


# HELMUGA 2013

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Gazteen Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Juventud

# europa

# HELMUGA 2013

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Gazteen Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Juventud

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Argitaraldia: 2.a, zuzendu eta eguneratua, 2013ko maiatza

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura

Egilea: Antonio Jesús Rodriguez Martinez

Koordinazioa: Gazteen Euskal Behatokia

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

*Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke*: www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

# AURKIBIDEA


AURKEZPENA 11

GIDA NOLA ERABILI 13

1. EUROPAR BATASUNA 16

1.1. ZER EGIN DEZAKE EUROPAR BATASUNAK ZURETZAT? 17
1.2. AUKERAK ETA LORPENAK 18
1.2.A. Muga gutxiago, aukera gehiago 18
1.2.B. Atzerrian ikasteko 18
1.2.C. Europa berdeago bat 19
1.2.D. Euroak poltsikoan 19
1.2.E. Aukera berdintasuna 19
1.2.F. Enplegua eta hazkundea 20
1.2.G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat 20
1.2.H. Toki bat Europar Batasunean 21
1.2.I. Kontinente oso bat 21

2. 2. EUROPAN BARRENA BIDAIATZEKO 22

2.1. BEHARREZKO DOKUMENTUAK 23
2.2. BIDAIATZEKO AHOLKUAK 24
2.3. LEKUALDATZEA 25
2.3.A. Errepidetik 25
2.3.B. Hegazkina 26
2.3.C. Trena 28
2.3.D. Itsasontzia 29
2.3.E. Metroa 30
2.3.F. Bizikleta eta txangoak 30
2.3.G. TMotxila turismoa 30
2.3.H. Lekualdatzeko baliabideak 30
2.4. NAZIOARTEKO TXARTELAK 31
2.5. OSTATUA 33
2.6. OSASUNA 36
2.7. EZUSTEKOAK. ZURE ESKUBIDEAK 37
2.8. BESTELAKO INFORMAZIO PRAKTIKOAK 38
2.9. ZER EGIN? 38

## 3. HIZKUNTZAK 40

3.1. HIZKUNTZAK IKASTEKO 41
- 3.1.A. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua 42
- 3.1.B. Ingelesa. Zirutagiriak, azterketak eta ikastaroak 43
- 3.1.C. Frantsesa. Zirutagiriak, azterketak eta ikastaroak 46
- 3.1.D. Alemana. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 47

3.2. BALIABIDEAK 48
- 3.2.A. Online hiztegiak eta itzultzaileak 48
- 3.2.B. Ikastaroak: hemen eta atzerrian 49
- 3.2.C. Online ikasteko tresnak eta ikastaroak 51
- 3.2.D. Autoebaluazio probak 54
- 3.2.E. Trukeak 55
- 3.2.F. Gizarte sareak 56
  - LLC (Language Learning Communities), Hizkuntza-ikaskuntzako Komunitateak 57
  - LEC (Language Exchange Communities), Elkarrizketen Trukeak 58
- 3.2.G. Beste baliabide batzuk 60
  - Smartphone-ak eta tablet-ak 60
  - Podcast-ak 61
  - Beste dispositibo batzuetan: telebista, irratia, kontsolak 61
  - Hizkuntzak musikaren bidez ikastea 62
- 3.2.H. Bekak eta laguntzak 63

3.3. HIZKUNTZAK ETA ENPLEGUA 63
- 3.3.A. Lan egin bitartean hizkuntzak ikasteko 63
- 3.3.B. Eskaintzen adibideak 64

3.4. AGENTZIAK: HIZKUNTZAK ETA GEHIAGO 65

## 4. ENPLEGUA EB-N 68

4.1. ENPLEGUA AURKITZEKO GOMENDIO ETA AHOLKUAK 69
- 4.1.A. Non bila dezaket lana? 69
- 4.1.B. Zer hartu behar dut kontuan lana bilatu aurretik? 69
- 4.1.C. Nola hasi bilaketa? 70
- 4.1.D. Lana aurkitzeko beste bide batzuk 70
- 4.1.E. Prestakuntza eta tituluen onarpena 71
- 4.1.F. Curriculuma eta aurkezpen gutuna 71
- 4.1.G. Nola prestatu lan elkarrizketa? 71
- 4.1.H. Irten aurreko aholku praktikoak 72

4.2. EURES 73

4.3. SEPE 76

4.4. ZURE LEHEN EURES ENPLEGUA 77

4.5. LANGILEENTZAKO OINARRIZKO INFORMAZIOA 78

4.6. EUROPAN ENPLEGUA BILATZEKO ATARIAK 79

4.7. RENPLEGU BALIABIDEAK GAZTEENTZAT 80
4.8. BALIABIDEAK: ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK HERRIALDEZ HERRIALDE 82
4.9. ENPLEGUA BILATZEKO BALIABIDEAK HERRIALDEZ HERRIALDE 84

5. PRESTAKUNTZA EB-N, BEKAK ETA PRAKTIKAK 90

5.1. PRESTAKUNTZA EB-N 91
5.2. EB-N IKASTEKO 10 ARRAZOI 92
5.3. GOI-MAILAKO HEZKUNTZARAKO EUROPAR ESPARRUA 92
5.4. PRESTAKUNTZA ETA TITULUEN ONARPENA 94
5.4.A. Naric sarea 95
5.5. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMA 96
5.5.A. Comenius: haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarrenhezkuntzako ikasleak. 97
5.5.B. Leonardo da Vinci: lanbide heziketarako mugikortasun programak 97
5.5.C. Erasmus Mundus: eb-tik kanpoko herrialdeekiko irakaskuntza eta lankidetza programak 98
5.5.D. Erasmus: Goi mailako ikasketak edo lanbide praktikak eb-ko beste herrialde batean 98
5.6. PLOTEUS 100
5.7. BALIABIDEAK 101
5.7.A. Prestakuntza eskolan 101
5.7.B. Lanbide heziketa 101
5.7.C. Unibertsitatean ikasteko 102

6. CV ETA EUROPASS 104

6.1. CURRICULUM VITAE-A ETA AURKEZPEN GUTUNA 105
6.2. EUROPASS 106
6.2.A. Europass curriculum vitae-a (Europass cv -a) 107
6.2.B. Europass hizkuntza pasaportea 107
6.2.C. Europass mugikortasun dokumentua 108
6.2.D. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria 109
6.2.E. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria 109
6.3. YOUTHPASS 110

7. EB-N OPOSIZIOAK EGITEKO 112

7.1. EB-N OPOSIZIOAK EGITEKO 113
7.1.A. Eb-rako oposizioen inguruko berriak 113
7.1.B. Betekizunak 113
7.1.C. Izena ematea 114

7.1.D. Oposizioetarako kategoriak 114
7.1.E. Probak: 2 fase 114
7.2. OPOSIZIOAK EGITEKO BALIABIDEAK 114

8. BEKAK ETA PRAKTIKAK 116

8.1. NAZIOARTEKO BEKAK ETA PRAKTIKAK 117
8.2. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMAREN BEKAK 117
8.3. PRAKTIKAK EUROPAKO INSTITUZIOETAN 119
8.3.A. Instituzio eta praktiken zerrenda 120
8.4. PRAKTIKAK NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN 124
8.5. NAZIOARTEKO PRAKTIKETARAKO BEKAK 125
8.6. PRAKTIKAK KUDEATZEN DITUZTEN BILATZAILEAK ETA WEBGUNEAK 128

9. LANA OPORRETAN 132

9.1. SARRERA 133
9.2. BALIABIDEAK ORO HAR 133
9.3. ITSAS BIDAIETAN, ITSASONTZIETAN ETA ONTZI ENPRESETAN LAN EGITEKO 136
9.4. ABENTUREN ETA ARRISKU KIROLEN ARLOAN LAN EGITEKO 137
9.5. ANIMAZIO TURISTIKOAREKIN LOTURIKO POSTUETAN LAN EGITEKO 139
9.6. KANPAMENDUETAN LAN EGITEKO 139
9.7. NEKAZARITZAN ETA BASERRIETAN LAN EGITEKO 140

10. ‘AU PAIR’ 142

10.1. ZER DA AU PAIR PLANA? 143
10.2. NOLA LAN EGIN AU PAIR MODUAN? 143
10.3. AU PAIR MODUAN JOATEKO BALIABIDEAK 144

11. EUROPAKO PROGRAMAK 146

11.1. GAZTEAK EKINEAN PROGRAMA 147
11.2. YOUTHPASS 147
11.3. GAZTEAK EKINEAN PROGRAMAKO EKINTZAK 148
11.4. 1. EKINTZA: GAZTEAK EUROPAREKIN 149
11.4.A. 1.1. Ekintza.- Gazte trukeak 149
11.4.B. 1.2. Ekintza.- Gazte ekimenak 150
11.4.C. 1.3. Ekintza.- Demokrazia parte-hartzaileko proiektuak 151
11.5. 2. EKINTZA: EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA 152
11.6. 3. EKINTZA: GAZTEAK MUNDUAN 152

## 12. BOLUNTARIOAK 154

12.1. SARRERA 155
12.2. NAZIOARTEKO BOLUNTARIOAK 155
12.2.A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa 155
12.2.B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak 156
12.3. EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA (EBZ) 158
12.3.A. Europako Boluntario Zerbitzuak Euskadin dituen erakundeak 159
12.3.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak 160
12.4. AUZOLANDEGIAK 161
12.4.A. Auzolandegiekin loturiko baliabideak 161
12.5. GAZTE TRUKEAK 163
12.5.A. Baliabideak 163

## 13. EUROPAKO SAREAK 166

13.1. UROPAKO SAREAK 167
13.2. EUROPAKO INFORMAZIOAREN EUSKAL SAREA (REVIE) 168
13.3. EUROPAKO BATZORDEAREN ESPAINIAKO ORDEZKARITZA 168
13.4. EUROPAKO BATZORDEAREN INFORMAZIO SAREAK 169
13.4.A. Europe Direct 170
13.4.B. Europako Dokumentazio Zentroak (EDZ) 171
13.4.C. Eures 171
13.4.D. Naric 173
13.4.E. Ploteus 173
13.4.F. Eurodesk 174
13.4.G. Euroguidance 175
13.4.H. Solvit 175
13.4.I. Kontsumitzailearen Europako Zentroa 176
13.4.J. Enpresei laguntzeko Europako sarea 176

# AURKEZPENA

Mundu globalizatu bezain interkonektatu honetan, ezinbestekoa da beste herri, kultura eta hizkuntza batzuk, bizitzeko eta munduan egoteko beste modu batzuk ezagutzea, hau da, mugikortasuna.

Euskadiko gazte gehienek nolabaiteko mugikortasun-esperientzia izan dute dagoeneko, oporretara, ikastera, lan egitera edo gazteen truke edo lankidetza-proiektu batera. Gazteen Euskal Behatokiak 2011n argitaratutako azterlaneko datuen arabera, atzerrira irteteari honako abantaila hauek ikusten dizkiote gazteek: atzerriko hizkuntza bat ikasi edo hobetzea eta toki eta ohitura berriak ezagutzea.

Hala ere, azterlanak ohartarazten duenez, gazte gehienak atzerrira joateko prest badaude ere (prestakuntza hobetzera, beste kultura batzuk ezagutzera edo lan egitera), informazio eskasa dute mugikortasun-aukerei eta -baliabideei dagokienez.

Gabezia horri aurre egiteko asmoz, Europa helmuga mugikortasun-gida aurkeztu zen 2012ko azaroan. Bere arrakastak bultzatuta, eguneratu egin dugu: diseinua hobetu dugu, eduki berriak txertatu eta dituen mila estekak gaurkotu. Aurreko edizioaren egile eta nazioarteko mugikortasunean aditu Antonio Jesús Rodríguez Martínezek gauzatu du eguneraketa. Hain zuzen ere, hainbat urte daramatza Gazteen Euskal Behatokiak egilearekin elkarlanean.

Europako Batzordeak edo Espainiako Gazteriaren Erakundeak gomendatutako gida honi esker, erraz aurki daiteke Europar Batasunekoherrialdeetara joateko informazio praktikoa, edozein dela xedea: bidaiatzea, hizkuntzak ikastea, prestakuntza sakontzea, lan egitea edo trukeetara edo boluntario-lanetara joatea.

Espero dugu gida hau baliagarria izatea gazteek, euren familiek eta gazteen orientazioan dihardutenprofesionalek Europan barrena mugitzeko eskura dituzten baliabide guztiak ezagutzeko.

Gazteen Euskal Behatokia

# GIDA NOLA ERABILI

## ESKAINTZEN DUGUN INFORMAZIOA

Europar Batasunak mugikortasun-gaietan (enplegua, prestakuntza, hizkuntzak, boluntario-lana eta abar) eskaintzen dituen aukera guztiak Euskadiko gazteei helaraztea da gida honen helburua. Gidaren atal bakoitzean, atalaren azalpena aurkituko duzu, baita eskura dituzun baliabideen azalpena ere.

Eskaintzen dizkizugun baliabide publiko zein pribatu guztiak honako irizpide hauei jarraiki bildu dira:

1. Eusko Jaurlaritzaren web-orrietan eta aldizkari ofizialetan egindako bilaketa.
2. Euskal erakunde eta instituzioetako (unibertsitateak, aldundiak, boluntario-elkarteak eta abar) webguneetan egindako bilaketa.
3. Europako webgune ofizialetan (Gazteen Europako Ataria, Europa ataria) egindako bilaketa.
4. Beren lanarengatik ezagunak diren Europako gazteen atarietan egindako bilaketa.
5. Gazte- eta ikasle-foroetan eta mugikortasun-arloko foroetan ere ikerketa batzuk egin ditugu, iritziak jasotzeko.

Gida hau argitaratzean, web-orrietarako loturak indarrean zeuden, baina Internet azkar aldatzen denez, lotura eta eduki horiek alda daitezke. Aldaketaren bat antzematen baduzu, edo, besterik gabe, atal edo informazio bati buruzko iritzia bidali nahi badiguzu, jar zaitez gurekin harremanetan: gaztebehatokia@ej-gv.es. helbidera idatzita. Zure laguntza balio handikoa izango da guretzat, ondorengo argitalpenetan aplikatzeko.

Azkenik, nabarmendu beharrean gaude, batetik, guk ezin dugula gure gain hartu aipatutako enpresen zerbitzuen kalitatearen erantzukizuna, eta, bestetik, enpresa batzuek kobratu egiten dutela egindako lanaren truke. Gure ustez, hautatu aurretik, hobe duzu aukera bat baino ge hiago bilatu, aukera horiek alderatu eta ahalik eta informaziorik osoena bildu.

## ALDERDI PRAKTIKOAK

Litekeena da webgune batzuetan edukia zer hizkuntzatan —([EN] ENglish, [FR] FRench, eta abar)— dagoen ez zehaztea; horrek esan nahi du espainolez daudela, herrialdez herrialde antolatutako helbideak izan ezik, herrialdearen hizkuntza ofizialean jasota daudenak.

Gai batzuk atal bati baino gehiagori lotuta egon daitezke; esaterako, atzerrian tituluak homologatzea EBko enplegu-atalari eta EBko prestakuntzari lotzen zaie. Bikoiztasuna saihesteko, gaia atal batean garatu dugu, eta bestean, berriz, ohar bat jarri dugu, aurreko atalean gaia sakonetik garatuta dagoela adierazten duena.

## GIDAREN EDUKIA

### 1. EUROPAR BATASUNA

Europar Batasunak eskaintzen dizkizun aukeren eta lorpenen laburpena (moneta bakarra, merkatu bakarra, mugikortasun-programak eta abar).

### 2. EUROPAN BARRENA BIDAIATU

Bidaiatzeko informazio praktikoa: aholkuak, bidaiatzeko baliabideak, nazioarteko deskontu-txartelak, hegaldi eta ostatu merkeak, gida turistikoak eta zure eskubideei eta eskubide horiek erreklamatzeko moduari buruzko informazioa.

### 3. HIZKUNTZAK

Hemen hizkuntzak ikasteko informazio baliagarria aurkituko duzu, baita ikastaro, beka eta laguntzei buruzkoa ere. Gainera, hizkuntza ikastea enpleguarekin, praktikekin eta mota guztietako jarduerekin uztartzeaz arduratzen diren agentzien zerrenda kontsulta dezakezu. “Hizkuntzak eta Enplegua” izeneko atala gomendatzen dizugu.

### 4. ENPLEGUA EB-N

Europar Batasunean lana aurkitzeko eta Eures Europako enplegu-zerbitzuak erabiltzeko jakin behar duzun guztia aurkituko duzu gidan, baita Europako enplegu-atariei, lanbidez lanbideko atariei, gazteentzako enplegu-baliabideei buruzko bilduma zabala ere, eta, areago, lana bilatzeko webguneak herrialdez herrialde.

### 5. PRESTAKUNTZA EB-N, BEKAK ETA PRAKTIKAK

Europako Hezkuntza Eremuari eta eremu horrek prestakuntza Europako beste herrialde batean egiteko eskaintzen dizkigun aukerei buruzko azalpen osoa. Funtsezko informazioa, batetik, tituluen homologazioari buruz, eta, bestetik, atzerrian bekekin ikasteko aukera ematen diguten mugikortasuneko hezkuntza-programei buruz.

### 6. CV-A ETA EUROPASS

Oso baliagarria EBn beren gaitasunak aurkeztu behar dituzten guztientzat. EBko edozein herrialdetan gure curriculuma aurkezteko aholku praktikoak.

### 7. OPOSIZIOAK EB-N

Europako erakundeetan lan egin nahi baduzu, hemen duzu informazio guztia.

### 8. BEKAK ETA PRAKTIKAK

Europako eta nazioarteko erakundeetako bekei eta erakunde publiko eta pribatuetako beka- eta praktika-bilatzaileei buruzko bildumarik handiena.

### 9. OPORRETAKO LANA

Udan lan egiteko premia al duzu? Oporretan lan egiteko aukera ugari dauzkazu: auzolandegiak, itsas bidaiak, turismo-animazioa, abentura-kirolak eta granjak.

### 10. ‘AU PAIR’

Atzerrira au pair joateko behar duzun guztia. Dokumentazioa, baliabideak eta eskaintzak.

### 11. EUROPAKO PROGRAMAK

Gazte-trukeak, gazte-ekimenak, proiektu parte-hartzaileak, Europako boluntarioak eta abar. Guztia Europar Batasunak finantzatua.

### 12. BOLUNTARIOAK, AUZOLANDEGIAK ETA GAZTE TRUKEAK

Aisialdirako aukera ugari daude. Boluntario-lanaren, auzolandegien eta gazte-trukeen aukera-eskaintza zabala aurkituko duzu hemen.

### 13. ERAKUNDEAK ETA SAREAK

Europako sareak, eta gure eskubideei buruzko zalantzak argitzeko, tituluak homologatzeko edota atzerrian ikastaro bat edo lan bat aurkitzeko lagungarri izan daitezkeen erakundeak.





# 1. EUROPAR BATASUNA


## 1.1. ZER EGIN DEZAKE EUROPAR BATASUNAK ZURETZAT? 17



## 1.2. AUKERAK ETA LORPENAK 18

1.2.A. Muga gutxiago, aukera gehiago 18
1.2.B. Atzerrian ikasteko 18
1.2.C. Europa berdeago bat 19
1.2.D. Euroak poltsikoan 19
1.2.E. Aukera berdintasuna 19
1.2.F. Enplegua eta hazkundea 20
1.2.G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat 20
1.2.H. Toki bat Europar Batasunean 21
1.2.I. Kontinente oso bat 21




# 1. EUROPAR BATASUNA

## 1.1. ZER EGIN DEZAKE EUROPAR BATASUNAK ZURETZAT?

Europar Batasuna elkarte ekonomiko eta politiko bakarra da, Europako 27 herrialde demokratikok osatua (2013ko maiatza) eta 498 milioi herritarri bakea, oparotasuna eta askatasuna bermatu nahi diena, mundu bidezkoago eta seguruago batean. Europako gazteei hainbat aukera eskaintzen dizkie EBk. EBk eskaintzen dizkizun aukera eta lorpen nagusien berri emango dizugu atal honetan.

### Zer lortu dugu orain arte?

Mugen gainetik oztoporik gabe bidaiatzeko eta salerosteko aukera, euroa edo Europako moneta bakarra, segurtasun handiagoa elikagaietan, ingurumen garbiagoa, bizi-baldintza hobeak eskualde pobreenetan, batasuna delinkuentziaren eta terrorismoaren aurkako borrokan, telefono-dei merkeagoak, atzerrian ikasteko milioika aukera… eta beste hainbat gauza.

### Lana EB-n

Hori guztia ahalbidetzeko, Europar Batasuneko herrialdeek erakunde batzuk sortu dituzte, EB zuzentzeko eta bere legeria sortu eta betearazteko. Honako erakunde hauek nabarmendu behar dira:

- Europako Parlamentua: Europako herritarrak ordezkatzen ditu.
- Europar Batasuneko Kontseilua: Gobernu nazionalak ordezkatzen ditu.
- Europako Batzordea: EBren interes orokorra ordezkatzen du.

### Zer egin dezaket nire ahotsa entzunarazteko?

EB ez da perfektua. Proiektua bilakaeran dago etengabe, eta etengabe hobetu behar da.

**Zure ustez, zer egin beharko luke EBk? Zer ez luke egin behar?** Zure iritzia emateko:

- Jar zaitez harremanetan zure nazioko diputatuekin: EBren politikak politika nazionalaren parte dira.
- Jar zaitez harremanetan eurodiputatuekin, eta botoa eman Europako Parlamenturako hauteskundeetan: bertan onartzen da EBren araudia

(http://www.europarl.europa.eu).
• Jar zaitez harremanetan GKEekin (kontsumitzaile-elkarteak, ingurumenaren aldeko interes-taldeak eta abar): EBren politikak lantzen parte hartzen dute.
• EBri buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jo ezazu http://www.europa.eu, webguneetara, eta egin zure galderak Europe Direct-en doako telefonozenbakira deituz: 00 800 67 89 10 11.

## 1.2. AUKERAK ETA LORPENAK

### 1.2.A. Muga gutxiago, aukera gehiago

Ia Europar Batasun osoan barrena bidaiatzeko aukera dugu, pasaporterik gabe eta mugan kontrolik pasatu beharrik gabe.
Beste herrialde batera joan gaitezke gauza merkeagoak erostera, murrizketarik gabe eta zerga osagarririk ordaindu beharrik gabe, betiere gauza horiek norberaren erabilerarako badira. Euroa edo moneta bakarra indarrean dagoen herrialde guztietan prezioak zuzenean alderatzeko aukera ere badugu. Euroguneko herrialdeetan barrena bidaiatzea errazagoa da, dirua aldatu beharrak berekin dakartzan arazoak eta gastuak desagertu direnez geroztik.

Mugarik gabeko merkatu bakarraren esparruan sortutako lehiaren eraginez, kalitateak gora egin du, eta prezioek, aldiz, behera. Telefono-deiak, Interneterako sarbidea eta hegazkin-bidaiak merkeagoak dira gaur egun. EBren legeriak kontsumitzailea babesten du produktu akastunen edo kalitate txarrekoen aurka, produktu horiek bakoitzaren herrialdean zein beste Estatu kide batean erosi. EBk mailarik handienak dauzka, halaber, elikagaien segurtasunaren alorrean.

EBko herritarrek EBko edozein herrialdetan bizitzeko, lan egiteko, ikasteko eta erretiroa hartzeko eskubidea dute. Hamabi Estatu kide berrienetako langileentzako aldi baterako murrizketak poliki-poliki desagertzen ari dira.

### 1.2.B. Atzerrian ikasteko

Dagoeneko bi milioi gaztek baino gehiagok bat egin dute Europar Batasuneko programekin, Europako beste herrialde batean ikasteko eta prestatzeko. Horri esker, mugaz gaindiko lankidetzarako eta hezkuntza-trukerako programak (Erasmus eta Leonardo, adibidez) oso ezagunak dira ikasle eta ikastunen artean.

EBk ez du ikastetxeetan ikasi behar duguna erabakitzeko ahalmenik, baina titulazio akademiko eta profesionalak EBko herrialde guztietan behar bezala onartzea lortu nahi du.

### 1.2.C. Europa berdeagoa

Ingurumen osasuntsua izatea garrantzi handikoa da Europako herritarrentzat eta gobernuentzat. Horregatik, munduan ingurumena babesteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko abian jartzen diren ekimenen buruan dago Europar Batasuna.

Kutsadurak ez duenez mugarik, EBko Estatu kideek baterako neurriak hartu dituzte hainbat sektoretan. Horregatik, ez da harritzekoa Europako ibai eta hondartzak garbiago egotea, ibilgailuek gutxiago kutsatzea eta hondakinen isurketari buruzko arauak zorrotzak izatea. Dagoeneko ezinezkoa da Europako hondakin arriskutsuak herrialde pobreetan botatzea. Bestetik, EBk zenbait arau sortu ditu enpresek erabilitako produktu kimikoek herritarrei eta ingurumenari kalterik eragin ez diezaioten bermatzeko.

EBk lortu nahi du funtsezko zenbait sektore (garraioa, industria, nekazaritza eta turismoa, adibidez) garatzea, baliabide naturalak suntsitu gabe. Horri garapen iraunkorra deitzen zaio.

### 1.2.D. Euroak poltsikoan

Euroa da (€), agian, Europar Batasunaren lorpenik nabarmenena. Hogei herrialdetan dago indarrean euroa (2012), horietako 17 Europar Batasunekoak, eta, horrenbestez, EBko biztanleriaren bi herenen moneta da une honetan. Eta beste batzuek ildo beretik jarraituko dute, ekonomiak horretarako prest dituztenean.

Euroa onartzen den herrialde guztietan erabil daitezke euroko moneta eta billeteak. Billeteak berdin-berdinak dira herrialde guztietan. Txanponak ez dira berdinak, ordea: alde bat bai, berdina da txanpon guztietan; bestean, aldiz, herrialde jaulkitzailearen enblema ageri da txanpon bakoitzean.

Euroa EBko herrialde hauetan dago indarrean: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Malta, Herbehereak eta Portugal.

### 1.2.E. Aukera berdintasuna

Gure gizartea bidezkoagoa eta eraginkorragoa da, baldin eta gure kideak beren nazionalitatearengatik, sexuarengatik, arrazarengatik, ezintasunarengatik edo beste zenbait faktorerengatik diskriminatzen ez baditugu. Horregatik, EBren Zuzenbideak diskriminazioa debekatzen du.

EBren lehen itunak 1950eko hamarkadan egin ziren, eta itun horietan guztietan jasota dagoen arau batek argi eta garbi adierazten du gizon eta emakumeek ordainsari bera jaso behar dutela lan bera egiteagatik. Horrekin, EB aitzindari izan zen emakumeen eskubideen aldeko borrokan, eta gaur egun eskubide horiek EBren politika guztietan daude jasota.

### 1.2.F. Enplegua eta hazkundea

Urteetan zehar, Europar Batasunak gure oparotasunaren alde jardun du, merkatu bakarra eta moneta bakarra sortuz eta merkataritzarako eta mugikortasunerako beste zenbait oztopo kenduz.

Eta hori lagungarri gertatu da 2008ko munduko finantza-krisiak Europan izan dituen ondorioak arintzeko. EBko zuzendariek elkarlanean jardun dute, Europan bankuak eta bestelako finantza-erakundeak egonkortzeko eta hazkunde ekonomikoa biziberritzeko.

Gaur egungo mundu lehiakorrean, Europak lanpostu berriak eta lanesku kualifikatua behar ditu. Ikerketak eta garapenak enplegua sorraraz dezakete. Ebko zuzendariek aurreikusi dute ikerketarako gastua nabarmen handitzea, 2020rako BPGaren % 3ko helburua ezarriz. Kualifikazio berriak ere behar dira, eta guztiok ere denbora gehiago eman beharko dugu ikasten, bizitza osoan zehar.

EBren aurrekontuaren herena (urteko aurrekontuko 130.000 milioi euro) eskualde pobretuetan enplegua sortzera eta inbertsioa erakartzera bideratzen da, baita langabeei eta lanbide-trebakuntzarik ez dutenei prestakuntza eskaintzera ere.
EBren laguntzari esker, zenbait herrialdetako (Irlanda eta Espainia, esaterako) herritarrak hobeto bizi dira gaur egun orain hogeita bost urte baino. Gaur egun, Ebko ekialdeko Estatu kide berriak dira hazkunde handienak lortzen ari direnak.

### 1.2.G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat

Nazioarteko terrorismoaren eta delinkuentziaren aurka borrokatzeko, Europar Batasuneko herrialdeek zenbait neurri hartu dituzte polizia-indarren, aduana-administrazioen, immigrazio-zerbitzuen eta justizia-auzitegien artean erabateko lankidetza ahalbidetzeko.

Besteak beste, Europako atxilotze-agindua sortu dute, atxilotutako ustezko delitugileak atxiloketaren herrialdetik haien bila dabilen herrialdearen esku uzteko bidea errazteko, jarraian azken herrialde horretan galdeketa egiteko edo epaitzeko. Gainera, EBko herrialdeek asilo-politikak koordinatzen dituzte eta kontrolak zorrozten, EBren kanpo-mugetan.

EBko herritarrek Estatu kide guztietan askatasunez bizitzeko eskubidea dutenez, Estatu kide guztietan justizia eskuratzeko berdintasuna izan behar dute. Gobernuek ahaleginak egin behar dituzte EBren arauak herrialde guztietan era berean ezar daitezen eta herrialde baten auzitegian emandako epaiak beste herrialde batean

betearazteko aukera izan dadin. EBk asko egin du ezkontzarekin, banantzearekin, dibortzioarekin eta adingabeen zaintzarekin zerikusia duten mugaz gaindiko arazo juridikoen konponbidea errazteko, baita beste zenbait auzi zibilen konponbidea errazteko ere.

### 1.2.H. Toki bat Europar Batasunean

Orain 50 urte baino gehiago sei kide fundatzaileek sortu zutenez geroztik, EBrekiko atxikimenduak bata bestearen segidan etorri dira, etengabe. 2004tik 2007ra bitarte, EB 15 kide izatetik 27 kide izatera igaro zen, eta horrek kontinentea batu egin zuen, gerra hotzaren ondorioz 45 urtez zatituta egon ondoren.

Europako edozein herrialdek dauka atxikitzeko aukera, baldin eta zuzenbideko Estatua, giza eskubideak eta gutxiengoen babesa bermatzen dituen democracia egonkorra baldin bada. Halaber, merkatu-ekonomia eraginkorra eduki behar du, baita EBren legeria aplikatzeko gauza den administrazio publikoa ere.

Garai bateko Jugoslaviako Mazedoniako Errepublika eta Turkia dira herrialde hautagaiak une honetan. Kroazia 2013ko uztailean bilduko da EBra. EBk herrialde hautagaiei laguntza ekonomikoa eta praktikoa eskaintzen die, atxikimendurako prestatzen laguntzeko.

### 1.2.I. Kontinente oso bat

EBko estatu kideak eta dagozkien atxikitze-datak:
1952 Alemania, Belgika, Frantzia, Italia, Luxenburgo, Herbehereak
1973 Danimarka, Irlanda, Erresuma Batua
1981 Grezia
1986 Espainia, Portugal
1995 Austria, Finlandia, Suedia
2004 Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Txekiar Errepublika
2007 Bulgaria, Errumania
2013 Kroazia




# 2. EUROPAN BARRENA BIDAIATZEKO

2.1. BEHARREZKO DOKUMENTUAK 23

2.2. BIDAIATZEKO AHOLKUAK 23

2.3. LEKUALDATZEA 24

- 2.3.A. Errepidetik 25
- 2.3.B. Hegazkina 26
- 2.3.C. Trena 28
- 2.3.D. Itsasontzia 29
- 2.3.E. Metroa 30
- 2.3.F. Bizikleta eta txangoak 30
- 2.3.G. Motxila turismoa 30
- 2.3.H. Lekualdatzeko baliabideak 30

2.4. NAZIOARTEKO TXARTELAK 31

2.5. OSTATUA 33

2.6. OSASUNA 36

2.7. EZUSTEKOAK. ZURE ESKUBIDEAK 37

2.8. BESTELAKO INFORMAZIO PRAKTIKOAK 38

2.9. ZER EGIN? 38



# 2. EUROPAN BARRENA BIDAIATZEKO

## 2.1. BEHARREZKO DOKUMENTUAK

### PASAPORTEA EDO NORTASUN AGIRIA

Dagoeneko muga-kontrolik ez dago EBko 22 herrialderen artean. EBko legeriaren parte den Schengengo itunak kontrol guztiak deuseztatu zituen barneko mugetan. Gainera, kanpo-mugetan kontrol eraginkorrak ezarri zituen, baita bisatuen politika orokorra ere.

EBko herrialde guztiak dira Shengengo ituneko kide eskubide guztiekin, Bulgaria, Zipre, Irlanda, Errumania eta Erresuma Batua izan ezik. Bestetik, Islandia, Norvegia eta Suitza ere Schengengo ituneko kide dira, nahiz eta EBko kide ez izan. Schengen eremuko kide ez diren bost herrialdeetara bidaiatzeko eta EBtik kanpoko mugetatik sartzeko eta irteteko, indarreko pasaporte bat edo nortasun-agiri bat beharko duzu.

EBn barrena bidaiatzean ere, hobe duzu agiri horiek eramatea, horien premia izan dezakezulako zure burua identifikatzeko edo segurtasun-arrazoiak direla medio. Ez ahaztu agintari nazionalek emandakoa dela nortasun-agiri baliodun bakarra.

Ez ahaztu zurekin batera doazen umeek euren nortasun-agiria edo pasaportea eraman behar dutela, edo zeurean txertatuta egon. Hala ere, 2012ko ekainaren 26tik aurrera, bidaiatzen duten umeek euren pasaporte edo nortasun-agiria eduki beharko dute (gurasoen pasaportean aipatuta egon arren, eta horrela baliozkoak izan arren).

### BISATUA

EBn barrena bidaiatzeko ez duzu bisatu baten beharrik.

### ASEGURUAK

Ez ahaztu aseguruen (bidaia, osasuna eta automobila) dokumentazioa zurekin eraman behar duzula.

### EUROPAKO OSASUN TXARTELA

Europako osasun-txartela ere eraman behar duzu. Osasun-txartelak aukera ematen dizu Europar Batasuneko herrialdeetan eta EBrekin hitzarmenak sinatu dituzten herrialdeetan osasun-laguntza jasotzeko.
http://www.seg-social.es/Internet_1/Trabajadores/PrestacionesPension10935/Asistenciasanitaria/DesplazamientosporE11566/TSE2/index.htm

### ATZERRIKO HERRIALDEETAN

NAN beharrezkoa da herrialde guztietan, eta zenbait herrialdek pasaportea eta bisatua ere eskatzen dute.
Pasaportea: zenbait herrialdetan sartzeko ezinbesteko agiria da.
Bisatua: ez da beharrezkoa hiru hilabetetik beherako egonaldia egin behar baduzu, turismo- edo negozio-bidaian bazoaz eta joan-etorriko txartela baduzu.
Adingabeek aitaren edo amaren baimena behar dute.

## 2.2. BIDAIATZEKO AHOLKUAK

Atzerrian barrena bidaiatzeko, hobe duzu bisitatzen duzun herrialdearen lege eta ohituren berri izatea. Herrialde askoren bizimodua eta kultura gureen oso bestelakoak dira. Legeak ere aldatzen dira, eta zure herrialdean legezkoak eta arruntak diren gauzak arazo-iturri bihur daitezke beste herrialde batean.

Garrantzi handikoa da beste herrialde batzuetan estupefazienteen (alkohola barne) jabetzari, kontsumoari eta trafikoari dagokienez indarrean dauden legeen berri izatea.
Gainera, atzerriko herrialde baterako bidaia hasi aurretik, hobe duzu Espainiak bisitatu beharreko herrialdean duen enbaxadari edo kontsulatuari buruzko informazioa jasotzea. Agiriak galdu edo lapurtuz gero edota beste arazoren bat sortuz gero laguntza handikoak izango dira zuretzat.

Behin argi daukagunean Europako beste herrialde batean zer egonaldi mota egin behar dugun, bidaian abiatu aurretik paperak eguneratuta daudela egiaztatu behar dugu, ezinbestean.

- Hobe dugu garrantzizko dokumentuen originalekin batera fotokopiak ere eramatea beste toki batean gordeta, originalak galduz gero lagungarri izan daitezkeelako. Txartel-argazkiak eramatea komeni da, litekeena delako baimen bereziren bat kudeatu behar izatea.
- Eraman beti nortasun-agiria, eta kontsultatu helmugako herrialdeak pasaportea eta bisatuak eskatzen ote dituen.

- Idatzi telefono-zenbaki bat dokumentu nagusietan, behar izanez gero, norbaitek zure familiari ohartarazteko aukera izan dezan.
- Eraman zurekin Espainiak bidaiaren herrialdean duen enbaxadaren edo kontsulatuaren helbidea.
- Oro har, herrialde bakoitzak zer baldintza jartzen dituen jakiteko (txertoak, bisatua, pasaportea eta abar), erabili lotura hau, eta, ageri den datu-basean, tekleatu interesatzen zaizun herrialdearen izena; bertan, dokumentazioari eta prozedurei buruz behar duzun informazio guztia aurkituko duzu.
  http://www.exteriores.gob.es

Gehienetan, bidaiatzea jarduera atsegina eta positiboa izaten da. Baina bidaia amesgaizto bihurtzeko aukera ere badago. Ezustekoek, kontratatutako zerbitzuak ez betetzeak eta beste zenbait arazok zaputz dezakete bidaia. Horregatik, oso garrantzitsua da egin beharreko bidaia ongi prestatzea, kontratua egiaztatzea, eta, bereziki, gure eskubideak errespetaraztea. Hau da, kontsumitzaileen eskubideak errespetaraztea.

Europar Batasuneko kontsumitzaile gisa dagozkizun eskubideak egiaztatzeko, kontsultatu EBren web-orria; bertan, zure eskubideen berri emango dizute, eta eskubide horiek nola eska ditzakezun ere azalduko dizute:
http://www.europa.eu/eu-life/consumer-rights/index_es.htm

## 2.3. LEKUALDATZEA

### 2.3.A. ERREPIDETIK

Ibilgailu partikular batean bazoaz, ez ahaztu honako hauek eraman behar dituzula:
- Gidabaimena.
- Ibilgailuaren zirkulazioko baimena.
- Ibilgailuaren asegurua eta indarreko ordainagiria.
- Ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartela egunean, baldin eta ibilgailuak lau urtetik gorako antzinatasuna badu.

#### Gidabaimena

Europar Batasuneko herrialde batean emandako indarreko gidabaimena balioduna da gainerako Estatu kideetan. Herrialde gehienetan, ibilgailua gidatzeko gutxieneko adina 18 urte da. Autoak alokatzeko gutxieneko adina aldatzen da EBko herrialde batetik bestera, baina 20 urtetik 23 urtera bitarte izaten da normalean. Zenbait herrialdetan gehieneko adina ere izaten da, 65 urtetik 75 urtera bitarte izan daitekeena.

### Automobil asegurua

Autoaren aseguruaren polizak gutxieneko estaldura (hirugarrenekiko estaldura) eskaintzen dizu automatikoki, EBko kide guztien eta Islandiaren, Norvegiaren eta Suitzaren legeriak eskatzen duena. Zure herrialdean arrisku orotako asegurua baduzu, egiaztatu atzerrian ere estaltzen zaituela.

Gutun berdea ez da nahitaezkoa EBn barrena bidaiatzeko, baina nazioartean onartua dago aseguru-proba gisa, eta kalte-ordainak erreklamatzeko bidea errazten du istripua izanez gero. Gutun berderik ezean, hobe duzu nahitaezko aseguruaren egiaztagiria eramatea.
www.cobx.org/ [EN][FR]
Zure aseguru-etxeak Europako istripu-partea eman diezazuke, dokumentu estandar horretan zure datuak errazago betetzeko aukera izan dezazun, atzerrian istripua izanez gero.

### Bide segurtasuna

Bide-segurtasunari, abiadura-mugei, bidesariei, alkoholemia-mugei eta Europan barrena gidatzeko bestelako informazio praktikoei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Europar Batasunaren ataria.
http://ec.europa.eu/transport/road_safety/glance/index_en.htm [EN]

### Autoa Partekatzeko

Autoa partekatzeari *carpooling* deritzo. Ekimen horri esker, dirua aurreztuko duzu eta gutxiago kutsatuko duzu, bidaiatzeko modu erraz eta merkea izateaz gain:
www.compartir.org www.blablacar.es www.amovens.com www.mylifts.com [EN] www.shareling.es [EN] www.covoiturage.com [FR]

### Autobusa eta autocarra

2013ko martxotik aurrera, EBn 250 km edo gehiagoko autobús-bidaiak egiten dituzteneko eskubide berriak izango dituzte: laguntza eta informazio egokiak, dirua itzultzeko edo garraiobide alternatiboa eskuratzeko bermea, atzerapenen ziozko kalte-ordaina, babesa heriotza-, lesio-, galera- edo kalte-kasuetan eta berariazko laguntza dohainik gaigabetasunak edo mugikortasun uritua duten pertsonentzat.

## 2.3.B. HEGAZKINA

Hegazkinez bidaiatzea garestiagoa da, baina baita erosoagoa ere. Atal honetan zure eskubideei buruzko informazioa jaso dezakezu, baita bidaiaren arabera, aukerarik erosoena eta merkeena aurkitu ere.

### Aireko bidaiarien eskubideak

Aireko bidaiariek zenbait eskubide dituzte honako hauei buruzko informazioari

dagokionez: hegaldiak eta erreserbak, ekipaje hondatuak, atzerapenak eta bertan behera uzteak, ontziratze-ukatzeak, istripuengatiko konpentsazioak edo antolatutako oporretan sortutako arazoak. Informa zaitez.
http:www.ec.europa.eu/youreurope/citizens/travel/passenger-rights/air/index_es.htm?profile=0

### Zerrenda beltza

EBk zenbait konpainiari ukatu die EBn jarduteko edo EBko aireportuak erabiltzeko aukera.
http://www.ec.europa.eu/transport/air-ban/list_es.htm

### Segurtasuna

Bidaiarien kontrolari, esku-ekipajeari, fakturatutako ekipajeari eta hegazkinen segurtasun-kontrolei buruzko arau batzuk daude indarrean, EB osoan segurtasunmaila handia bermatzen dutenak. Informa zaitez.
http://www.europa.eu/legislation_summaries/transport/air_transport/index_es.htm

### HEGALDI MERKEEN BILATZAILEAK:

www.lastminute.com
http://www.terminala.com
www.ultimasplazas.com
www.cheapvuelos.es
www.govolo.es
www.edreams.es
www.vuelosbaratos.es
www.rumbo.es
www.whichbudget.com
www.kayak.com
www.trabber.com
www.skyscanner.es/
www.vuelo24.es/

### AIRE KONPAINIA MERKEAK EUROPAN:

- ALEMANIA: www.airberlin.com / www.condor.com / www.germanwings.com / www.tuifly.com / www.flyintersky.com
- AUSTRIA: www.tuyfly.com
- BELGIKA: www.brusselsairlines.es / www.transavia.com
- ERRESUMA BATUA: www.easyjet.com / www.airwales.co.uk / www.flybe.com www.flythomascook.com / www.jet2.com / www.monarch.co.uk
- ERUMANIA: www.carpatair.com/ www.blueair-web.com

- ESLOVAQUIA: www.skyeurope.com
- ESPAÑA: www.vueling.com / www.iberiaexpress.com
- ESTONIA: http://estonian-air.ee/en
- GREZIA: www.hellas-jet.com
- HERBEHEREAK: http://www.corendon.com
- HUNGARIA: www.wizzair.com
- IRLANDA: www.ryanair.com / www.budgetair.ie/ www.cityjet.com
- ITALIA: www.meridiana.it / www.airdolomiti.it/ /www.airvallee.com
- ISLANDIA: www.icelandexpress.is
- LETONIA: www.airbaltic.com
- MALTA: www.airmalta.com
- NOVEGIA: www.norwegian.no
- SUEDIA: www.flysas.com/ www.scandjet.se
- SUITZA: www.darwinairline.com /www.helvetic.com
- TXEKIAR ERREPUBLIKA: www.smartwings.com
- TURKIA: www.onurair.com.tr/ www.sunexpress.com/tr

## 2.3.C. TRENA

Trena garraiobide eraginkorra eta ekologikoa da, aukera ugari eskaintzen dituena. Nazioarteko lineetan badaude programa batzuk kostuak merkatu egiten dituztenak.

### Interrail

Txartel moduko bat da, hainbat egunetan trenez Europako 30 herrialde baino gehiagotan lehen edo bigarren mailan bidaiatzeko aukera ematen dizuna.
Bi txartel mota daude, bidaiariari malgutasun handiagoa eskaintzeko hautatutako helmugaren eta bidaiatzen eman nahi dituen egunen araberakoak.

- Txartel orokorra: ohiko aukera da, Interrail mapa osoan barrena salbuespenik gabe bidaiatzeko aukera ematen dizuna,
- Herrialdearen araberako txartela, egun kopuru jakin batez herrialdeetako batean barrena bidaiatzeko aukera ematen dizuna.

### Interrail Webgunea

www.inter-rail.org webgunean, hasiberrientzat propio sortutako gida kontsulta dezakezu; gainera, foro batean parte har dezakezu, eta esperientziak, zalantzak, gomendioak, kontsultak eta abar aurkeztu edo jaso. Halaber, Europako trenbide-mapa aurki dezakezu sarean, zure bidaia programatzeko oso baliagarria.
www.inter-rail.org/

### Renfe

Bidaiatzeko modu horri buruzko xehetasun guztiak jartzen ditu zure eskura. Zoaz RENFEren edozein leihatilara edo bidaia-agentzia batera, eta erosi zure txartela. Interneten ere eros dezakezu.
www.renfe.com/viajeros/viajes_internacionales/interrail.html

### Eurail Passes

Eurail: Europa trenez ezagutzeko aukerarik onena! Eurail Passes (Eurorail ere deitzen zaie) txartelei esker, tren-bidaia malgua egin dezakezu Europako sareko 18 herrialdeetan barrena.
http://espanol.eurail.com/enes / www.raileurope.com

### Rail Plus

Txartel pertsonal eta besterenezina da, tren-txartelak prezio berezietan erosteko aukera ematen duena. Txartel hori baduzu, tren-txartelaren prezioa % 25 murrizteko aukera izango duzu.
www.renfe.com/viajeros/viajes_internacionales/railplus.html

### Mini eskaintza

Bidaiatu *ELIPSOS* trenhotelak eskaintzen dizkizun abantailekin. Benetako hotel ibiltaria da, trenaren abantailak eta hotelaren erosotasuna uztartzen dituena.
www.elipsos.com/

## 2.3.D. ITSASONTZIA

EBko herrialdeen artean itsas linea ugari daude kalitatezko zerbitzu erregularrak eskaintzen dituztenak autoaren, trenaren edo hegazkinaren alternatiba edo osagarri gisa. Gainera, EBko 27 herrialdeetatik (2013ko maiatza) 20ren barruan bide nabigagarri ugari daude, 37 000 km guztira. Itsas bidaia edo ibai-bidaia egin dezakezu, edo bestela itsasontzia erabili, lasaitasunez bidaiatzeko garraiobide egokia den heinean.

Azkenik, penintsula Balear Uharteekin, Britainia Handiarekin eta Irlandarekin lotzen duten ferryak erabiltzeko aukera ere baduzu.

### Baliabideak

- Trasmediterránea: Penintsula lotzen du Balear Uharteekin, Kanariar Uharteekin eta Ipar Afrikarekin. www.transmediterranea.es
- Ferries P&O [EN][FR][DE]: Bilbo lotzen du Britainia Handiarekin eta Irlandarekin. www.poferries.eu

—Brittany Ferries: Santanderretik, Bretainiatik eta Normandiatik Britainia Handirako eta Irlandarako bidaiak antolatzen ditu.
www.brittanyferries.es/
www.directferries.es/ Compañías de Ferrys de toda Europa
www.cruise.com [EN]

### 2.3.E. METROA

Aztertu Europako hirietako metro-lineetako mapak, baldin eta garraiobide erabiltzea aurreikusi baduzu.
www.urbanrail.net/eu/euromet.htm [EN]

### 2.3.F. BIZIKLETA ETA TXANGOAK

Europako Txirrindularien Federazioak kudeatutako EuroVelo sarea txirrindularientzako ibilbide luzeko 12 bide antolatzen ari da Europan barrena. 66.000 km-ko hedadura izango dute guztira. Oinez ibiltzea nahiago baduzu, berriz, Europako Mendi Ibilien Federazioak informazio egokia jartzen du Europako mendizaleen eskura, eta ibilbide luzeko 11 bide gomendatzen ditu, Europa norabide guztietan zeharkatzen dutenak.
EuroVelo: www.ecf.com/14_1 [EN]
Europako Mendi Ibilien Federazioa
www.era-ewv-ferp.com/index.php?page_id=6 [EN][FR][DE]

### 2.3.G. MOTXILA TURISMOA

Bidaiatzeko zenbait modu daude. Batzuek erosotasunari ematen diote lehentasuna, eta ia oporraldi osoa ongi programatzea dute nahiago. Beste batzuek, aldiz, bisitatu beharreko tokira beste era batera hurbiltzea nahiago dute, inprobisaziorako ere tartea utziz. Besteak beste, motxiladun bidaiariak daude azken talde horretan.
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-5072/eu/contenidos/informacion/viajes_mochileros/eu_16121/viajes_mochileros.html

### 2.3.H. LEKUALDATZEKO BESTE BALIABIDE BATZUK

#### Eurolines

Europan barrena autobusez bidaiatu nahi dutenentzako gunea. Ikus eskura dauzkazun helmuga eta ordutegi guztiak. Erreserbatu txartela online.
www.eurolines.com [EN][FR][DE]

#### European Railway Server

Trenzaleentzako ezinbesteko gunea; Europako trenbide nazionaletako webgune guztiekiko loturak eskaintzen ditu atari honek.
www.railfaneurope.net/ [EN]

### Tarifa merkeak aireko leneetan

Diru askorik gastatu gabe bidaiatu nahi baduzu, Europan eta munduko gainerako tokietan tarifa merkeak eskaintzen dituzten aire-konpainien zerrenda eskaintzen dizu gune honek. Bidaiei buruzko informazioa, zenbait hiriri buruzko gidak, eta prezio murriztuak eskaintzen dituzten beste konpainia batzuen bilatzaileekiko loturak.
www.etn.nl/lcostair.htm [EN]

### Routes International

Europan barreneko ferry bidaiei buruzko informazio baliagarria. Atzerrira bidaiatu nahi duten desgaituentzako aholku praktikoak.
http://routesinternational.com/feature.htm [EN]

### Elkarrekin bidaiatzeko

Eskualde edo herrialde baten barruan edo atzerrira bidaiatzeko, autoa norabide berean doazen beste pertsona batzuekin partekatu nahi dutenentzat. Elkarteko kide izanez gero, zeure bidaia-sareak egiteko aukera izango duzu. Online itzulpen-programari esker, orria beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera izango duzu.
www.mylifts.com [EN]

### Inter Rail

Zenbait herrialdetara bidaiatzeko asmoa baduzu, erosi trenbide-abonua, eta horrela dirua aurreztuko duzu. Kontsultatu Europan barrena egin nahi duzun ibilbidera ondoen egokitzen diren konbinazioak.
www.interrailnet.com/

## 2.4. NAZIOARTEKO TXARTELAK

Mundu osoan balia ditzakezu txartel hauek eskaintzen dizkizuten abantaila eta deskontuak. Gainera, ostatu hartzeko, museoak bisitatzeko edo erosketa merkeagoak egiteko aukera eskaintzen dizute txartel hauek.

Gazteaukera Euskadiko gazteriaren atarian eska ditzakezu txartel horiek, eta, jarraian, Gazte Informazioko edozein bulegotan jaso.
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-801/eu/contenidos/informacion/viajes_descuentos/eu_7795/viajes_descuentos_e.html

## GAZTE-TXARTELA

Gazte-txartela Europa-mailan homologatuta dagoen gazte-txartel bakarra da, European Youth Card Association (EYCA) delakoaren mendekoa delako. Hori dela-eta, Gazte-txartelaren titular gazteek Gazte-txartelaren abantailez ez ezik, beste autonomia-erkidegoetako gazte-txarteletakoez eta Europako 38 herrialdetakoez ere goza dezakete.
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-2392/eu/contenidos/informacion/txartela_conseguirla/eu_1868/txartela_conseguirla_e.html

## NAZIOARTEKO IKASLE TXARTELA EDO ISIC (International Student Identity Card)

ISIC txartela munduko edozein herrialdetan erabil dezakezu. Baldintza bakarra bete behar duzu txartelaren abantailak aprobetxatzeko: denbora osoko ikaslea izatea.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-2251/eu/contenidos/informacion/ocio_cult_carne_estu/eu_1744/carne_estudiante_e.html

## NAZIOARTEKO IRAKASLE TXARTELA EDO ITIC (International Teacher Identity Card)

Ofizialki onartutako hezkuntza-erakunde bateko langile gisa enplegatutako irakasleentzako txartela da ITIC txartela. Txartel horri esker, ostatuan, garraioan, museoetan, kulturguneetan edo antzokietan deskontuak eta abantailak baliatzeko aukera izango duzu.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-2251/eu/contenidos/informacion/ocio_cult_carne_prof/eu_1748/ocio_cult_carne_pr_e.html

## GO-25 EDO IYTC (International Youth Travel Card) NAZIOARTEKO TXARTELA

Go-25 txartelak 26 urtez azpiko gazteak ditu jomugan. Txartel horri esker edozein tokitan milaka deskontu eta abantaila baliatzeko aukera izango duzu.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-2251/eu/contenidos/informacion/ocio_cult_carne_go25/eu_1746/go25_e.html

## NAZIOARTEKO ATERPEKIDE TXARTELA

Aterpekide-txartelak ez dizu deskonturik eskaintzen, baina bai abantailak mundu osoko aterpetxeetan.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-4235/eu/contenidos/informacion/albergues_carne/eu_8206/carne_on_line_e.html

## 2.5. OSTATUA

Bidaiatzean, ostatu hartzeko zenbait aukera dauzkazu eskura. Gehien gustatzen zaizun eta zure premia fisiko eta ekonomikoetara ondoen egokitzen den ostatu mota aukeratu behar duzu, besterik ez.

### GAZTEENTZAKO ATERPETXEAK - HOSTELLING INTERNATIONAL

Ostatu hartzeko aukera merkeenetako bat da. Aterpetxeak sukaldez, armairuez, jangelez eta beste zerbitzu osagarri batzuez hornituta daude. Hirietako erdigunean egoten dira normalean. “Aterpekide-txartela” behar duzu horietako batean ostatu hartzeko.

Gazteentzako Aterpetxeen Nazioarteko Sareak Gazteentzako Aterpetxeen 90 elkarte baino gehiago ditu 60 herrialde baino gehiagotan banatuak, 4000 aterpetxe baino gehiago kudeatzen dituztenak.
Estatu espainolean, instalazio horiek Gazteentzako Aterpetxeen Sarean (REAJ) bildu dira. www.reaj.com/
Nazioarteko sareko aterpetxeak HiHostels webgunean kontsulta daitezke: www.hihostels.com/web/index.es.htm

### OSTATU HARTZEKO BALIABIDEAK - BED & BREAKFAST

“Bed and Breakfast” edo “B&B” ostatu mota bat da, tarifa murriztu baten truke “ohea eta gosaria” (ingelesez horixe esan nahi du, hitzez hitz) eskaintzen dituena.
www.bedbreak.com / www.bedandbreakfast.com

### KANPINAK

Kalitatezko kanpinak Europa osoan. Informazio zehatza Europan eskuragarri dauden hainbat kanpinen inguruan. Herrialdearen, eskualdearen, herriaren, kanpinaren izenaren edo eskainitako zerbitzuen araberako bilaketa egin dezakezu.
www.eurocampings.co.uk/en/europe/

### EUROPAN KANPATZEKO

Interhike webguneak zenbait aholku eskaintzen dizkizu, Europan kanpatzeko eta mendi-ibiliak egiteko. Hautatu herrialde bat, eta bertan eskuragarri dauden kanpin guztiak ikusiko dituzu. www.interhike.com/

### ATERPETXEAK EUROPAN

Non lo egin Europan? Bilatu aterpetxe bat; batzuek online erreserbatzeko aukera eskaintzen dizute bidaia hasi aurretik. Aurkitu hautatutako helmugara iristeko eskaintzarik merkeenak. Bidaiatzeko aholku baliagarriak.
www.europeanhostels.com/ [EN]

## EUROPAKO ATERPETXEEN GIDA

Europako aterpetxeei buruzko gida, argazkiak eta guzti, iritsi aurretik zer ostatu mota aurkituko duzun jakin dezazun. Aterpetxeetako webguneetarako sarbidea.
www.europeanhostelguide.com [EN]

## BELODGED.COM

Doako ostatua aurki dezakezu mundu osoan barrena, zure etxea sareko beste kide batzuei eskaintzearen truke. Izena eman behar duzu harrerako kidea izan aurretik.
www.belodged.com/1000_Home/1000_1000_Home_en.asp

## HOSTEL WORLD

Bidaia ongi antolatu nahi baduzu, dataren araberako bilaketa egin dezakezu, ostaturen bat eskuragarri daukazula egiaztatzeko.
www.hostelworld.com

## ATERPETXEAK

Nazioarteko bidaiariei izugarri gustatuko zaie mundu osoko gazteentzako aterpetxeei buruzko informazioa eskaintzen duen webgune hau. Webgunea bisitatzean, kontsultatu garraio eta txangoei buruzko orriak. Ez ahaztu, halaber, tren-garraiorako abonuak eta hegazkin-txarteletarako deskontuak dauzkazula!
www.hostels.com

## HOSTELBOOKERS

Mundu osoko aterpetxeen eta hotel merquen direktorioa.
www.hostelbookers.com/

## HOSTELS CLUB

EBko herrialdeetako hotel, pentsio eta aterpetxeen eskaintzarik onenak.
www.hostelsclub.com

## OSTATU HARTZEA DOHAINIK

Etxeak trukatzeko mugimendu bat dago, doako alternatiba gisa, kulturen eta pertsonen arteko trukea bultzatzen duena. Etxea partekatzeko arazorik ez baduzue, aintzat hartzeko moduko aukera izan daiteke. Interesatuen eskaintzak eta eskariak koordinatzen dituzten zentralak daude. Alde bikoak izan daitezke (etxe-trukea) edo alde bakarrekoak (norbaitek bere etxea lagatzen du).

www.homelink.org

www.homexchange.com
www.stay4free.com
www.couchsurfing.com
www.hospitalityclub.org

## HERRIALDEZ HERRIALDEKO BALIABIDEAK:

• HERBEHEREAK
www.holland.com/es
www.nvm.nl
• IRLANDA
www.daft.ie
www.myhome.ie
www.iavi.ie
www.let.ie
www.usit.ie
www.ireland.travel.ie
www.goireland.com
• BELGIKA
www.belgica-turismo.es
www.ugent.be/en
www.esn.org
• ALEMANIA
www.studenten-wg.de
www.wg-gesucht.de
www.zwischenmiete.de
http://www.study-in.de/en/
• ERRESUMA BATUA
www.londonnet.co.uk
www.thisislocallondon.co.uk
www.london-hostels.co.uk
www.loot.com
www.yha.org.uk
www.gumtree.com
www.easyhotel.com
www.accommodationforstudents.com/
• PORTUGAL
www.portaldahabitacao.pt
www.juventude.gov.pt
www.pousadasjuventude.pt

• ITALIA
www.portaportese.it
www.1hotelnapoli.it
www.hostelscentral.com

• FRANTZIA
www.seloger.com
www.pap.fr
www.avendrealouer.fr
www.chambrestudio.com
www.appartager.com
www.adele.org
www.portail-colocation.com
www.fusac.fr

## 2.6. OSASUNA

EBKo herritarrek doako edo kostu murriztuko osasun-laguntza jaso dezakete bidaiatzean gaixotzen direnean. Europako Osasun Txartelak gauzak errazten ditu alor horretan.

### EUROPAKO OSASUN TXARTELA (TSE)

Europako Esparru Ekonomikoan (EEE) edo Suitzan barrena bidaiatzeko asmoa baduzu, ez ahaztu Europako osasun-txartela edo ordezko behin-behineko ziurtagiria eraman behar duzula. Osasun-laguntza eskuratzeko bidea erraztuko dizute agiri horiek, eta laguntza hori herrialdearen legeriaren arabera eskainiko dizute (zenbait herrialdetan guztiz doakoa da).

Laguntza doakoa ez bada eta horrenbestez ordainketarik egin behar bada, agiri horiek bermatuko dizute etxera itzuli eta berehala osasun-laguntzan gastatutako dirua itzuliko dizutela.
https://sede.seg-social.gob.es/Sede_1/ServiciosenLinea/Ciudadanos/index.htm?ssUserText=232000

### BIDAIA-ASEGURUA

Bidaia-aseguru bat kontratatzea komeni da, Europar Batasuneko herrialde batzuek bakarrik ordaintzen dutelako osasun-tratamenduaren guztizko zenbatekoa. Atzerrian gertatutako gaixotasun eta istripuek kostu osagarriak ekar ditzakete berekin bidaiari, ostatuari eta aberriratzeari dagokienez, eta bidaia-aseguru batek horiek guztiak estal ditzake.

Kreditu-txartel gehienek doako bidaia-aseguru bat daramate, banku-entitatearen arabera aldatzen diren zenbait kondizio biltzen dituena. Irten aurretik, egiaztatu zure txartelaren kondizioak.

### ISIS ASEGURUAK HIZKUNTZA IKASTAROETARAKO ETA BIDAIETARAKO, ORO HAR

IASIS Ikasleentzako Aseguruen Nazioarteko Elkarteak eskaintzen du gazte eta ikasleentzat bereziki sortutako ISIS asegurua. Gazteriaren Erakundea elkarte horretako kidea da. Asegurua asteka kontratatzeko aukera dago.
www.aboutistc.org/iasis.html [EN]

### OSASUNA MUNDUAN

Oro har, EBn barrena bidaiatzeko nahitaezko txertorik ez dago. Atzerrira bidaiatzeko asmoa baduzu, hobe duzu lehenbailehen informazioa jasotzea zure helmugako gaixotasun ohikoenen eta beharrezko txertoen inguruan.
www.who.int/ith/es/index.html [EN]

### Europan BARRENA BIDAIATZEKO

Abiatu aurretik, informa zaitez bainatzeko uren kalitatearen edo aireko ozono-mailen inguruan, eta aukeratu eraman behar duzun eguzki-babesa. Erretzeko debekuari buruzko informazioa herrialdez herrialde kontsultatzeko aukera ere baduzu:
europa.eu/travel/healthy/index_es.htm

## 2.7. EZUSTEKOAK. ZURE ESKUBIDEAK

### LARRIALDIETARAKO ZENBAKI BAKARRA EUROPAN: 112

Europar Batasuneko edozein herrialdetako larrialdi-zerbitzuetara deitzeko, markatu 112 zenbakia edozein telefono finko edo mugikorretan.

eCall sistema borondatez sartzea bultzatu du EBk. Istripua izanez gero, larrialdi-deia automatikoki egiten du ibilgailutik.
http://ec.europa.eu/digital-agenda/en/112

### GALERA EDO LAPURRETA

Salatu edozein lapurreta tokiko poliziari. Salaketaren kopia erantsi beharko duzu baldin eta aseguru-etxeari horren berri eman nahi badiozu edo kalte-ordain bat eskatu nahi baduzu. Kreditu-txartela galtzen baduzu edo lapurtzen badizute, baliogabetu berehala. Pasaportea lapurtzen badizute, jakinarazi zure herrialdeko kontsulatuari edo enbaxadari. Kontuan hartu EBtik kanpo zaudenean EBko edozein herrialdetako enbaxadara edo kontsulatura jo dezakezula laguntza eske.
http://europa.eu/travel/things/index_es.htm

### EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK

Bidaiatzeko eskubideen berri edo beste edozein eskubideren berri izateko eta laguntza non eskatu behar duzun jakiteko, deitu, doan, Europe Direct-en 00 800 67 89 10 11 telefono-zenbakira, Europar Batasuneko edozein tokitatik. Posta elektronikoaren bitartez kontaktatzeko aukera ere baduzu.
http://ec.europa.eu/europedirect/

## 2.8. BESTELAKO INFORMAZIO PRAKTIKOAK

EBko herritarrek nahierara eros dezakete herrialde kide guztietan. Zenbat tabako eta zenbat alkohol eraman dezakete? Zer BEZ mota daude? Zein dira haragi eta esnekiei buruzko eta kontsumitzailea babesteari buruzko arauak?
http://europa.eu/travel/shop/index_es.htm

### DIRUA

Euroa EBko 17 herrialdetan erabiltzen da. Informa zaitez euroaren, beste moneta batzuekiko kanbio-tasaren eta dirua eskudirutan eta txartelen bitartez erabiltzeko moduaren inguruan.
http://europa.eu/travel/money/index_es.htm

### LAGUN EGITEKO ANIMALIAK

Katu edo txakur batekin bidaiatzea askoz errazagoa da gaur egun, EBk lagun egiteko animalientzako sortu berri duen pasaporteari esker. Kontsultatu xehetasunak hemen:
http://europa.eu/travel/pets/index_es.htm

### KOMUNIKAZIOA

Nola esan egun on Lisboan? Nazioarteko zer aurrezenbaki markatu behar dira telefonoz deitzeko? Zenbat balio du Frantzian mugikorra erabiltzeak? Hemen aurkituko dituzu erantzunak.
http://europa.eu/travel/comm/index_es.htm

## 2.9. ZER EGIN?

### IBILTARIAREN GIDA

Europa ezagutu nahi baduzu, webgune honek bidaiatzeko aukera bat baino gehiago eskaintzen dizkizu.
Europako aterpetxeen eta bidaien Europako gida deskarga dezakezu PDF formatuan, edo, bestela, hilabeteko buletinaren harpidedun ere egin zaitezke, baldin eta

ibiltariekin zerikusia duten albiste guztien berri izan nahi baduzu.
www.bakpakguide.com [EN]

### BUG BACKPACKERS' GUIDE

Ibiltarientzako Europari buruzko gidarik onena. Garraioak, helmugak, jaiak eta ostatua Europan.
www.bugeurope.com [EN]

### Let's Go

Ibilaldi laburra Europan barrena, helmuga interesgarrienei buruzko laburpena eta guzti. Aukeratu herrialdea, eta nahi duzun guztia aurkituko duzu. Kontsultatu dagozkion loturak. www.letsgo.com/ [EN]

### Lonely Planet

Nazioarteko bidaia-gida online, hautatutako tokira iristeko moduari, garraiobideei eta toki interesgarriei buruzko informazioa eskaintzen dizuna. Bilaketa herrialdez herrialde egin dezakezu, eta oso mapa baliagarriak jaso ditzakezu.
www.lonelyplanet.com/europe [EN]

### Rough Guide

Mundu osoko herrialdeei buruzko aipamenak biltzen ditu. Bat egin beste erabiltzaile batzuekin, partekatu zure esperientziak eta aprobetxatu eskaintza bereziak (Air Miles).
www.roughguides.com/travel/ [EN]

### BISITATU EUROPA

Europako hainbat helmuga interesgarriren berri ematen dizu atari honek, eta, hori ez ezik, herrialde bakoitzari buruzko azalpena ere eskaintzen dizu. Oraindik ez baduzu erabaki lehenik eta behin zer herrialde bisitatu nahi duzun, kontsultatu agerraldien edo ekintzen egutegia, aukeratzeko lagungarri izan daitekeelako.
www.visiteurope.com

### NORA JOAN?

Herrialdez herrialdeko gida bat da, bidaiei, aireportuei, itsas bidaiei, erakargarriei, gizarteari, mapei, kirol eta jarduerei, osasunari eta abarri buruzko informazio orokorra biltzen duena. Europako eta munduko gainerako herrialdeei buruzko informazioa.
www.worldtravelguide.net/country/7/countries/Europe.html [EN]





# 3. HIZKUNTZAK


## 3.1. HIZKUNTZAK IKASTEKO 41

3.1.A. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua 42
3.1.B. Ingelesa. Zirutagiriak, azterketak eta ikastaroak
3.1.C. Frantsesa. Zirutagiriak, azterketak eta ikastaroak 46
3.1.D. Alemana. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak 47

## 3.2. BALIABIDEAK 48

3.2.A. Online hiztegiak eta itzultzaileak 48
3.2.B. Ikastaroak: hemen eta atzerrian 49
3.2.C. Online ikasteko tresnak eta ikastaroak 51
3.2.D. Autoebaluazio probak 54
3.2.E. Trukeak 55
3.2.F. Gizarte sareak 56
- LLC (Language Learning Communities), Hizkuntza-Ikaskuntzako Komunitateak
- LEC (Language Exchange Communities), Elkarrizketen Trukeak

3.2.G. Beste baliabide batzuk 60
Smartphone-ak eta tablet-ak
Podcast-ak
Beste dispositibo batzuetan: telebista, irratia, kontsolak
Hizkuntzak musikaren bidez ikastea

3.2.H. Bekak eta laguntzak 63

## 3.3. HIZKUNTZAK ETA ENPLEGUA 63

3.3.A. Lan egin bitartean hizkuntzak ikasteko 63
3.3.B. Eskaintzen adibideak 64

## 3.4. AGENTZIAK: HIZKUNTZAK ETA GEHIAGO 65




# 3. HIZKUNTZAK

## 3.1. HIZKUNTZAK IKASTEKO

Hizkuntzak pertsona guztientzat dira baliagarri, adina eta bakoitzak hizkuntzak ikasteko dituen arrazoiak edozein izanik ere. Oztopo pertsonalak eta nazionalak gainditzen laguntzen dute hizkuntzek, eta europarrei elkarren artean komunikatzeko aukera ematen diete, baita lankidetzan aritzeko, lan egiteko, ikasteko eta bidaiatzeko aukera ere.

Europar Batasunak Europako beste hizkuntza batzuk ikastera animatu nahi ditu Europako herritarrak, merkatu bakarraren barruan mugikortasun profesionala eta pertsonala errazteko eta kulturen arteko harremanak eta elkar ulertzea ahalbidetzeko.

Eurobarometro berri baten arabera, *Europar Batasuneko herritarren erdiek adierazi dute euren ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza batean hitz egiteko gai direla, gutxienez*. Ehunekoak aldatu egiten dira, herrialdeen eta gizarte-taldeen arabera: Luxenburgoko herritarren % 99k, Letoniako eta Maltako herritarren % 93k eta Lituaniako herritarren % 90ek gutxienez hizkuntza bat ezagutzen du bere ama-hizkuntzaz gain; Hungarian (% 71), Erresuma Batuan (% 70), *Espainian*, Italian eta Portugalen *(% 64), berriz, gehiengo zabal batek bere ama-hizkuntza baino ez du ezagutzen*. Gizonen, gazteen eta hiriko herritarren artean gehiago dira atzerriko hizkuntza bat hitz egiten dutenak emakumeen, zaharren eta landako herritarren artean baino.

### NOLA IKASI

Hizkuntzak ikasteko esperientzia atsegina eta oso esker onekoa izan daiteke. Bakoitzaren premietara eta eskuragarri duen denborara egokitutako metodoa aurkitzea da garrantzizkoena.

Aukera bat baino gehiago daude:

1. Ikasi zure erritmoan: hainbat hizkuntza bakarka ikasteko ikastaroak daude, askotariko ikus-entzunezko euskarri eta testu-liburu biltzen dituztenak.
2. Irratia eta telebista: kate askok hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituzte.
3. Internet bidez: gero eta gehiago dira hizkuntza-eskolak eskaintzen dituzten orriak, askotan soinu, irudi eta guzti.

4. Irakasle batekin: ikasle talde baten barruan eskolak jasotzeak baditu alde on batzuk; besteak beste, ikasleak elkarren artean animatzen dira, eta irakasleak gidatu egiten ditu beren premia zehatzen arabera.

5. Lanean: gero eta enpresa gehiagok onartzen dute hizkuntzak funtsezkoak direla negozioen arrakasta bermatzeko, eta enpresa handi askok doako edo diruz lagundutako ikastaroak eskaintzen dituzte.

6. Binaka: binaka ikasteko, jatorrizko bi hiztunek, hizkuntza bakoitzeko banak, komunikatu behar dute elkarren artean, posta elektronikoz, telefonoz eta abar.

## 3.1.A. HIZKUNTZETARAKO EUROPAKO ERREFERENTZIA ESPARRU BATERATUA

**Hizkuntzetarako Europako erreferentzia Esparru Bateratua:** ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa Europako Kontseiluak garatutako esparru estandarra da, hizkuntza bateko ulermen-, idazmen- eta mintzamen-mailak neurtzeko nazioarteko eredua izatea lortu nahi da.

| EEEBren konpetentzia-mailak | | | Trebetasunak |
|---|---|---|---|
| | Erabiltzaile konpetentea | C2 | Hizlari natiboarenaren moduko komunikazio-maila, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean |
| | | C1 | Ia hizlari natiboarenaren moduko komunikazio-maila. Gai da aurkezpenetan, negoziazioetan eta bileretan ongi moldatzeko |
| | Erabiltzaile independentea | B2 | Gai da nozio konplexuak ulertu, landu eta komunikatzeko, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean |
| | | B1 | Gai da nozio arruntak ulertu, landu eta komunikatzeko, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean |
| | Oinarrizko erabiltzailea | A2 | Gai da gai errazak ulertzeko eta komunikatzeko, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean |
| | | A1 | Oinarrizko egiturak ulertzen eta lantzen ditu, hala ahoz, nola idatziz |

Entzumena | Irakurmena | Mintzamena | Idazmena

Iturria: Red de plurilingüismo de Sevilla. www.cepcastilleja.org

### MAILAK

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua maila berberak ezartzen ditu hizkuntza guztietarako, eta, horiei esker, errazago erka edo homologa daitezke erakunde ziurtatzaileek emandako tituluak.

### GARATU BEHAR DIREN GAITASUNAK

Maila bakoitzean, ulermenari, mintzamenari eta idazmenari dagokienez, ikasleak gainditu behar dituen gaitasunak zehazten ditu Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak.
Ulermenean entzumena eta irakurmena hartzen dira barne; mintzamenean, aldiz, ahozko interakzioa eta ahozko adierazmena; azkenik, idazmenari dagokion kategorian idatzizko adierazmenerako trebetasuna neurtzen da.

## 3.1.B. INGELESA. ZIURTAGIRIAK, AZTERKETAK ETA IKASTAROAK

Ingeleseko ziurtagiriak ematen dituen erakunde ugari dago. Espainian gehien ezagutzen denetako bat Cambridgeko Unibertsitatea da (www.cam.ac.uk/), Cambridge ESOL Exams direlakoak antolatzen dituena. Sei ziurtagiri daude, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratukoen parekoak, oinarrizko mailatik (A1) altuenera (C2) doazenak. Ziurtagiri horrek aintzatespen zabala du nazioartean, unibertsitateetan, negozio-eskoletan eta enpresetan.

Azterketa egin nahi baduzu, Espainian hainbat zentro dago horretarako. Horietako batzuetan matrikula zaitezke, aldez aurretik inolako prestakuntzarik egin beharrik gabe. Gainerakoak akademiak eta hizkuntza-eskolak dira, aldez aurreko azterketak antolatzen dituztenak, gero ikasleei azterketak egiteko. Tasak 60 eurotik (mailarik apalena) 200 eurora (mailarik aurreratuena) doaz.

Cambridge Young Learners (YLE) delakoa 7 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago, eta hiru mailatan banatuta dago: Starters, Movers eta Flyers. Mailetako bakoitzean irakurmen-, idazmen, entzumen- eta mintzamen-ariketak daude. Azterketa horiei Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan dagozkien mailak A1 eta A2 dira.

Key Englisth Test (KET) delakoa A2 mailaren parekoa da eta Preliminary English Test (PET) delakoa, B1 mailaren parekoa. Urtean hiru aldiz egiten dira azterketa horietarako deialdiak: martxoan, ekainean eta azaroan. Certificate in Advanced English (CAE) delakoa C1 mailaren parekoa da eta ikasleak ingelesezko hizkuntza konpetentzia-maila altua duela adierazten du, eguneroko bizitzaren alderdi gehienetan eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna duela. Ziurtagiri hau hainbat enpresak eta unibertsitatek aintzatesten dute ziurtagiri hori. Azterketak martxoan, ekainean eta abenduan egiten dira, eta gehienez ere bost ordu iraun ohi dute.

Certificate of Proficiency in English (CPE) delakoa, azkenik, C2 mailaren parekoa da, eta eskala profesional altuagoetan garatu nahi dutenei zuzendurik dago. Azterketaren deialdia urtean bi aldiz egiten da. Probek sei ordu inguru iraun ohi dute.

Beste ziurtagiri batzuk ere badaude: BEC (Business English Certificates), interesatuak negozioen testuinguruan duen trebetasuna balioesteko hiru azterketa; ILEC (International Legal English Certificate), abokatuei eta Zuzenbideko ikasleei zuzendua; ICFE (International Certificate in Financial English), kontulariei eta finantzaren arloko profesionalei zuzendua; IELTS (International English Language Testing System), ingelesez ikasi edo lan egiteko; CELTA (Certificate in English Language Teaching to Adults), beste hizkuntza batzuetako hizlariei ingelesa irakasteko; eta TESOL (Teaching English to Speakers of Other Languages), aurrekoaren xede bera duena.

TOEFL (Test of English as Foreign Language) delakoaren bitartez ingelesa unibertsitate-mailan erabili eta ulertzeko gaitasuna neurtzen du. Ziurtagiri hori ingelesez mintzatzen den unibertsitate askotan eskatzen da. IELTS Ameriketako ingelesera bideratuta dago; TOEFL Britainia Handiko ingelesera.

<table>
<tr><th>HEEEB</th><th colspan="2">Ingeles orokorra</th><th>Academikoa</th><th colspan="4">Profesionala</th></tr>
<tr><td>Maisutasuna C2</td><td></td><td>CEP Certificate of Proficiency in English</td><td rowspan="4">IELTS</td><td></td><td></td><td></td><td rowspan="6">BULATS</td></tr>
<tr><td>Ezagutza operatibo eraginkorra C1</td><td></td><td>CAE Certificate in Advanced English</td><td>BEC Higher</td><td rowspan="2">ILEC</td><td rowspan="2">ICFE</td></tr>
<tr><td>Aurreratua B2</td><td></td><td>FCE First Certificate in English</td><td>BEC Vantage</td></tr>
<tr><td>Atarian B1</td><td></td><td>PET Preliminary English Test</td><td>BEC Preliminary</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Plataforma A2</td><td>YLE Flyers</td><td>KET Key English Test</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Sarbidea A1</td><td>YLE Movers</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td></td><td>YLE Starters</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua</td><td>Cambridge Young Learners English Tests</td><td>General English</td><td>International English Language Testing System</td><td>Business English Certificates</td><td>International Legal English Certificate</td><td>International Certificate in Financial English</td><td>Business Language Testing Service</td></tr>
</table>

Iturria: www.aprendemas.com

## 3.1.C. FRANTSESA. ZIURTAGIRIAK, AZTERKETAK ETA IKASTAROAK

Frantzian aintzatetsitako *diploma- eta ziurtagiri-aukera zabala* dago gaur egun. Hori dela-eta, horietako bat hautatzeko garaian, kontuan hartu beharko ditugu gure egungo eta geroko premiak.

DELF eta DALF diplomak Frantziako Hezkuntza Ministerioak aintzatesten ditu, atzerritarrek frantsesez duten trebetasuna justifikatzeko. Centre International d'Études Pédagogiques erakundeak (www.ciep.fr) prestatzen ditu ziurtagiri hori eskuratzeko azterketak, Frantzian nahiz Espainian egin daitezkeenak.

Diplôme d'Études en Langue Française (DELF) oinarrizko ziurtagiria da. Diplôme Approfondi de Langue Française (DALF) ostera, diploma aurreratua da, unibertsitateetarako sarbidea ematen duena.

Gainera, Test de Connaisance du Français (TCF) Frantziako Hezkuntza Ministerioaren azterketa ofiziala da, atzerritarrak frantsesez duen trebetasuna aintzatesten duena. Komunikazio profesionalerako edo pertsonalerako erabiltzen den hizkuntzaren ebaluazio orokorra da. Kalifikazioek Europako Kontseiluak zehaztutako sei mailako eskalako pareko balioa ematen dute. Oinarrizko azterketak 80 galdera ditu, hautazko bi atalekin. Galdera horiei esker, ahozko nahiz idatzizko trebetasunak ebaluatzen dira.

Edonor aurkez daiteke nahi duen azterketara, bai eta, saio berean, *diploma bat baino gehiagotara aurkeztea* ere. Izena emateko, azterketen zentroetara jo behar da, Frantzian zein Espainian. Ade bakarra dago: diploma bakoitzerako probetan izena emateko kostua Espainian Frantziako Enbaxadaren Lankidetza eta Gizarte Ekintza Zerbitzuak eta Batzorde Nazionalak ezartzen du; Frantzian, ordea, errektoretzek. Prezioak hautatutako azterketa-zentroaren araberakoak dira.

Bestalde, Parisko Merkataritza eta Industria Ganberak antolaturiko azterketak egin eta gero, Français des Affaires et des Professions erakundeak ematen dituen zenbait ziurtagiri eta diploma hartzen dira barne. Negozioetara eta turismoarekin, ostalaritzarekin, zientziarekin, teknologiarekin edo legeekin lotutako lanbideetara bideratuta daude, Negozioetarako hiru diploma daude eta lau espezializatu.

Hona hemen Hezkuntza Ministerioak aintzatetsi eta Frantziako unibertsitateek onartutako beste diploma batzuk: Certificat Pratique de Langue Française (CPLF), Diplôme d'Études Françaises (DEF) eta Diplôme Supérieur d'Études Françaises (DSEF). Era berean, Alliance Françaisek emandako CEFP1, CEFP2, DL eta DSLCF diplomak

Europako Kontseiluaren mailekin parekatuta daude eta mundu osoan aintzatetsita.

Azkenik, Business Language Testing Service (BULATS) azterketen zerbitzua da, sei mailatan banatuak. Ordenagailuz zein idatziz egin daitezke probak, eta ikasleak negozioetako hizkuntzan dituen trebetasunak neurtzen ditu. Ez dago Frantzian erabat aintzatetsita, baina mundu osoan onartzen da.

### 3.1.D. ALEMANA. ZIURTAGIRIAK, AZTERKETAK ETA IKASTAROAK

Alemaneko titulazio ofizialak bat datoz Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratukoenekin bat datoz, hasiberrien A1 mailatik maila gorenera, C2ra, alegia.

SD1 edo Start Deutsch 1 (A1) delakoan 60 ikastordutik 150era hartzen dira barne. Azterketa hori gainditzeak zera esan nahi du: eguneroko egoeretako galdera, argibide eta mezu soilak ulertzen direla.
SD2 edo Start Deutsch 2 (A2) delakoan 150 ikastordutik 260ra hartzen dira barne, eta ikasleak eguneroko elkarrizketetako informaziorik garrantzizkoena ulertzen duela, galdetegiak bete ditzakeela edo elkarrizketa bateko alderdiren bat eztabaida dezakeela ziurtatzen du.

ZD edo Zertifikat Deutsch (B1) delakoan 260 ikastordutik 490era hartzen dira barne. Azterketa gainditzuz gero, ikaslea gai da kazetaritza-testuak ulertzeko, zerbaiti buruzko informazioa emateko, zerbait proposatzeko edo adosteko. Goethe-Zertifikat (B2) delakoaren bitartez, zera adierazten da: ikaslea gai dela gai zehatzen eta abstraktuen ideia nagusiak ulertzeko, testu-aukera zabal bat ulertzeko eta idatziz argiro eta egitura bati jarraituta adierazteko.

Jarraian, TestDaf edo Test Deutsch als Fremdsprache (Alemana Atzerriko Hizkuntzatzat dutenentzako Ziurtagiria B2-C1) delakoa aurkituko dugu. Hizkuntza ikasteko 525 eta 750 ordu eman izana hartzen du barne. Ziurtagiriak honako hau adierazten du: ikaslea gai dela informazio garrantzitsua ateratzeko, mezu osoak ulertzeko eta elkarrizketak edo diskurtso zientifikoak konprenitzeko. Gainditzeko, berariazko ikastaro trinkoa egitea gomendatzen da.

Goethe Zertifikat (C1) delakoak alemana 600 eta 750 ikasi izana hartzen du barne. Zera egiaztatzen du: ikaslea gai dela testu espezializatuak ahaleginik gabe uler ditzakeela. Era berean, gai dela ahoz bat-batean eta erraztasunez adierazteko eta pentsamenduak eta iritziak zehaztasunez emateko.

ZOP edo Zentrale Oberstufenprüfung (C2) delakoak honako hau adierazten du: 750 eta 900 bitarteko ordu-kopurua eman dela alemana ikasten. Ikasleak alemanez irakurtzen eta entzuten duen guztia esfortzurik gabe ulertzen duela egiaztatzen du.
KDS edo Kleines Deutsches Sprachdiplom delakoak ZOP-ren baldintza berberak ditu, baina bideratuago dago literaturara. Azterketa hauek maiatzean eta azaroan izan ohi dira.

Azkenik, GDS edo Grobes Deutsches Sprachdiplom delakoak alemaneko 900 ikastordu hartzen ditu barne. Ziurtagiri honen bitartez, zera egiaztatzen da: ikasleak ezagutza bikainak dituela alemanez eta gai dela testu literarioak eta zientifikoak aztertzeko. Azterketak maiatzean eta azaroan izan ohi dira.

Alemaniako unibertsitate batean ikasteko, Unibertsitatean sartzeko Alemaneko Azterketa (DSH) egitea eskatzen da.. Ziurtagiri hori eskuratzeko probek ahozko atala eta idatzizkoa dute. Idatzizko atalak zati hauek ditu: entzumena, idatzizko ulermena eta testu bat idaztea. Unibertsitate bakoitzak bere DSH azterketa prestatzen du, baina Alemania osorako arauen mende daude denak.

Azterketa hori gainditzeko, ahozko eta idatzizko probaren bi heren gainditu behar dira. Ikasle bakoitzak bi bider baino ezin du azterketa hau egin, beraz, gomendagarria da Alemaniako goi-mailako irakaskuntza-erakundeek antolatutako prestakuntza-ikastaroa egitea. Ikastaro hori doakoa da ia, ikasleak izena emateko kuota txiki bat baino ez baitu ordaintzen.

## 3.2. BALIABIDEAK

### 3.2.A. ONLINE HIZTEGIAK ETA ITZULTZAILEAK

#### WORD REFERENCE

WordReferencek doako online hiztegiak eskaintzen ditu. Gaztelaniarako honako hiztegi hauek ditu: hiztegi elebakarra, gaztelaniatik ingeleserako, frantseserako eta portugeserako hiztegiak, eta sinonimo eta antonimoen hiztegia. Nabarmentzekoa da argota, esaerak eta abar itzultzeko foroak ere eskaintzen dituela.
www.wordreference.com

#### YOURDICTIONARY.COM

Zenbait diziplinatako hiztegiekiko ezinbesteko lotura. Besteak beste, gramatika bat eta itzultzeko zenbait tresna aurkituko dituzu, balio handikoak. Sartu eta eman begirada bat!
www.yourdictionary.com

### FREE TRANSLATOR

Sarean eskuragarri dauden doako hiztegi-ikastaroen, itzultzeko tresnen eta hiztegien aukera. Erraz erabiltzen da, eta 40 hizkuntza baino gehiago biltzen ditu.
www.free-translator.com [EN]

### VERBIX

Ezagutu aditz-jokatzaile unibertsala! 100 hizkuntza baino gehiagoko aditz guztietako forma jokatu guztiak erakusten ditu, eta informazio erabilgarria eskaintzen du mundu osoan hitz egiten diren hizkuntzen inguruan. Hizkuntzak ikasteko oso aproposa!
www.verbix.com [EN]

### MICROSOFT OFFICE

Microsoft Office 2003 aplikazioak eta ondorengo bertsioek eskaintzen dituzte, batetik, itzulpenzerbitzuak, tokiko edo lineako hiztegi elebidunak erabiltzen dituztenak, eta, bestetik, itzulpen automatikoa webgunearen bitartez. Erreferentzia ezaugarri berriari jarraiki, sakatu ALT eta klik egin dokumentuaren hitz batean, eta itzulpena berehala ageriko da "Erreferentzia" izeneko zeregin-panelean.

### GOOGLE TRANSLATE

Googlek itzultzeko doako aplikazioak biltzen ditu: Google Translate testu laburrak itzultzeko, itzulpen automatikoa Gmail mezuetarako. Google Chrome nabigatzaileak itzulpen automatikoa biltzen du; Google barrak hitzez hitzeko itzulpena eskaintzen du; mugikorretarako Android aplikazioak, berriz, elkarrizketarako eta bidaiarako gidak ditu.
http://translate.google.es/#

### Worldlingo

Webgune honek, esaldiak eta testuak itzultzeaz aparte, webguneak eta dokumentuak ere itzultzen ditu, kalitate onez.
www.worldlingo.com

## 3.2.B. IKASTAROAK: HEMEN ETA TZERRIAN

### EUSKADIKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak ikastegi publikoak dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendekoak, helduentzako hizkuntza-irakaskuntzara bideratuak.
http://eoieuskadi.net/

## ASEPROCE

Atzerrian hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituzten 71 enpresa biltzen ditu ASEPROCE elkarteak. Bere mendekoa da AECAE, atzerrian ikasturtea egiteko aukera ematen duten zentroak biltzen dituena.
www.aseproce.org/

## E-LEA PROGRAMA

e-LEA programak ingelesa, frantsesa, alemana eta italiera ikasteko aukera eskaintzen du multimedia sistemen bidez, etengabe ikasteko atariaren bitartez.
www.hiru.com/e-ikasi

## IBERLINGVA

Bilbon egoitza duten hizkuntza-zerbitzuak, atzerritarrentzako gaztelania-programak eta munduko hainbat herrialdetan hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituztenak.
www.iberlingva.com.es/

## OISE HIZKUNTZAK

Erresuma Batuko hizkuntza-ikastaroen enpresa, profesional, heldu, ikasle eta gazteentzako ikastaro trinkoak eskaintzen dituena betiere filosofia berberari jarraiki: baldintza ezin hobeak + lan gogorra = emaitzak.
www.oise.es/

## INFOIDIOMAS

Infoidiomas webguneak ikastaroei buruzko datu-base zabala eskaintzen du: probintziaren arabera, atzerrian, hizkuntzak online, udako ikastaroak eta abar. Gainera, bidaia-gida interesgarri batzuk biltzen ditu.
www.infoidiomas.com/

## LANGUAGE LEARNING

Atzerrian hizkuntzak ikasi nahi badituzu, sartu hemen. Lortu informazioa 90 herrialdetako 6.500 hizkuntza-eskola baino gehiagoren ostatu-erraztasunei, jarduerei eta hizkuntza-ikastaroei buruz. Hautatutako hizkuntzan dauzkazun gaitasunak frogatzeko egin beharreko azterketei buruzko informazioa ere aurkituko duzu webgune honetan.
www.language-learning.net

### LEXICOOL

Hizkuntza-trebetasunak funtsezkoak badira zure etorkizuneko lanbidean, sartu webgune honetan. Europako, Kanadako eta AEBetako itzulpengintza- eta interpretazio-ikastaroen direktorio zabala eskaintzen du.
www.lexicool.com/courses.asp

## 3.2.C. ONLINE IKASTEKO TRESNAK ETA IKASTAROAK

### LA MANSIÓN DEL INGLES

Multimediako ingeles-ikastaroa, online eta doan. Orain ingelesa ikas dezakezu multimediako ingeles-ikastaroei esker. Egin ezazu ingeles-ikastaroa doan, izen-ematerik eta kosturik gabe. Egunero-egunero, hamabost mila pertsonak baino gehiagok ikasten dute webgune honen bitartez!
www.mansioningles.com/

### BBC HASIBERRIENTZAT

Atzerrira joan zara eta ez zara gauza helmugako herrialdeko hizkuntzan tutik ere esateko? BBC kateak hasiberrientzako online ikastaro bikainak eskaintzen ditu, doan. Hainbat cd eta bideo eskuragarri.
www.bbc.co.uk/languages/index.shtml [EN]

### INGELESEZKO ORTOGRAFIARI ETA GRAMATIKARI BURUZKO GIDA

Ingelesa atzerriko hizkuntza gisa ikasten dutenek ingelesaren gramatikari buruz jakin behar duten guztia. Oinarrizko ortografiari buruzko online testu-liburu bat aurkituko duzu, ehunka lehiaketa elkarreragilerekin batera.
http://grammar.ccc.commnet.edu/grammar/ [EN]

### E.L.EASTON

Hizkuntzak irakasteko eta ikasteko material interesgarrien —gramatika-ikasgaiak, testak, lehiaketak, hiztegiak eta abar— iturria. Webgune aproposa beren hizkuntza-trebetasunak egiaztatu nahi dituzten ikasle eta irakasleentzat.
http://eleaston.com [EN]

### LINGU@NET-EUROPA

Europa osoan hizkuntzak ikasteko baliabideak. Hautatu menutik hizkuntza ikasteko eta irakasteko materialak, eta jarraian hautatu ikasi beharreko hizkuntza: neerlandera, ingelesa, frantsesa, alemana, italiera, gaztelania edo beste bat.
www.linguanet-europa.org/plus/welcome.htm

## PHRASEBASE

Phrasebase hizkuntzak ikasteko baliabideak eskaintzen dituen komunitate librea da. Sartu datubase erraldoian eta hainbat hitz arrunt aurkituko dituzu, baita 90 hizkuntza baino gehiagotara itzulitako esaldi ugari ere. Erregistratu doan, eta parte hartu mundu osoan bere hizkuntza irakasteko interesa duen jendearekin.
www.phrasebase.com/english/

## BESTE HAINBAT ONLINE IKASTARO DOAN

• INGELESA
Aprende inglés http://lingolex.com/espan.htm
Business English Courses www.businessenglishuk.org.uk/
Curso ingles www.curso-ingles.com/
Dave's ESL Café www.eslcafe.com/
English on line www.eleaston.com/
Escuela American Accent www.americanaccent.com/
Gramática 'online' www.edufind.com/
I love languages www.ilovelanguages.com/
Inglés Aula Fácil www.aulafacil.com/cursosgratis/curso/ingles.html
Inglés Mundial www.inglesmundial.com/index.html
La mansión del inglés www.mansioningles.com/
Learn English as a second language www.english-at-home.com/
Página de inglés www.englishpage.com/
Practice for learners of English http://englishlearner.com/
Word 2 Word www.word2word.com/

• ALEMANA
Curso de Alemán www.aulafacil.com/cursosgratis/curso/aleman.html
Academia de Alemán www.deutschakademie.de/online-deutschkurs/spanisch/
Alemán para viajeros www.germanfortravellers.com/
Language Gauge-German www.curso-de-aleman.de/grammatik/inhaltsangabe/spanisch_deutsch_inhaltsverzeichnis.htm
Deutsch Plus www.bbc.co.uk/languages/german/dplus/index.shtml
Alemanadas: http://www.alemanadas.com/
Ejercicios de alemán www.vokabel.com/german.html

• ITALIERA
Centro Studi Italiani www.locuta.com/classroom.html
Language Gauge - Italian www.bbc.co.uk/languages/italian/gauge/index.shtml
Italianissimo www.bbc.co.uk/education/languages/italian/issimo/index.shtml

CyberItalian www.cyberitalian.com/
Aula Facil: www.aulafacil.com/Italiano/Cursoital.htm
Langmaster: www.langmaster.com/comes/italian/home.htm
Free Italian Course for Beginners http://abruzzo2000.com/course/index.html

• PORTUGESA
Cursos Gratis de idiomas: www.cursosgratisidiomas.com/portugues-online
Curso de Portugués www.portuguesweb.com/
BBC portugués www.bbc.co.uk/languages/portuguese/

• SUEDIERA
SSE - Introduction to Swedish http://www2.hhs.se/isa/swedish/
Online Swedish: www.onlineswedish.com/Spanish

• FRANTSESA
Civilisation française http://web.cortland.edu/flteach/civ/
Aula fácil www.aulafacil.com/cursosgratis/curso/frances.html
Course de Français sur Internet pages.infinit.net/jaser2/
French-Spanish : http://www.frenchspanishonline.com
French Steps http://www.bbc.co.uk/languages/french/lj
Dictionnaires http://artfl-project.uchicago.edu/
French for Travellers http://travlang.com/languages/cgi-bin/langchoice.cgi?page=
Cafe.umontreal www.cafe.umontreal.ca/
Language Gauge - French www.bbc.co.uk/languages/french/gauge/index.shtml
Francés on line: http://www.frances-online.de/

• DANIERA
BBC Danish www.bbc.co.uk/languages/other/quickfix/danish.shtml
Speak Danish www.speakdanish.dk

• TXEKIERA
The Little Czech Primer www.czechprimer.org/

• NEERLANDERA
Learn Dutch via the Internet www.learndutch.org/

• GAELIKOA
Elementary Course of Gaelic www.smo.uhi.ac.uk/gaidhlig/ionnsachadh/ECG/
Irish Gaelic Handout http://english.glendale.cc.ca.us/gaelic.html

• GREKOA
Modern Greek www.theology.edu/greek01.htm
Learn to Read Greek www.ukindia.com/zip/zgk1.htm

• SERBIERA
Serbo-Croat Language www.barnsdle.demon.co.uk/jezik/indeks.htm

• TURKIERA
Turkish Online www.onlineturkish.com/

### 3.2.D. AUTOEBALUAZIO PROBAK

#### URRUTIKO HIZKUNTZEN UNIBERTSITATE ZENTROA (DIALANG)

DIALANG hizkuntza-ebaluazioko sistema nagusia da, Europako Kontseiluaren "Europako erreferentziazko esparru komunean" oinarritua. Europako garrantzizko 20 erakundek baino gehiagok garatu dute, Europako Batzordearen babesarekin. DIALANG sistemak zenbait hizkuntza-gaitasunen testak eskaintzen ditu, ongi diseinatuak eta balidatuak, dakizuna hobetzeko aholku espezializatu eta iruzkin (feedback) ugarirekin batera. Zer maila duzun eta ondoen eta okerren non zabiltzan jakiteko aukera ematen dizu horrek, hizkuntza menderatzeko bidean hartu beharreko erabakiak erraztuko dizkizuna.
http://portal.uned.es/portal/page?_pageid=93,1336773&_dad=portal&_schema

#### EUSKADIKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK (HEO)

Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko zentro publikoak dira, helduei hizkuntzak irakasten jarduten dutenak. Proba bat egin dezakezu zer mailatan matrikulatu behar duzun jakiteko.
www.eoieuskadi.net/

#### GAITASUN PROBAK LINEAN

Atzerriko zenbait hizkuntzatan daukazun gaitasun-maila egiaztatzeko aukera! Beste zenbait gauza aurki ditzakezu webgune honetan: hizkuntzak ikasteko zenbait baliabide, erreferentziazko hizkuntza-materiala, kultura-informazioa, jokoak eta lehiaketak.
www.transparent.com/tlquiz/proftest/index.htm [EN]

### INFOJOBS

Hizkuntzen online test honetan sartu eta ezagutu ezazu ingelesez, frantsesez, alemanez eta gaztelaniaz duzun benetako maila. Proba hauek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratura egokituta daude. Testa egin eta gero, e-mailean jasoko duzu zeure balorazioa. Emaitza InfoJobseko CVan sar dezakezu.
http://blog.infojobs.net/candidatos/test-de-idiomas-gratuito

## 3.2. E.TRUKEAK

Hizkuntzen trukea honetan datza: bi hizkuntzatan hitz egiten duten bi lagun elkartzean, bi hizkuntzak praktikatze aldera. Horrela, erraztasunez eta ondo pasatuz hizkuntzen ezagutza hobe daiteke.

### MYLANGUAGE EXCHANGE

Ikastea errazagoa da konpainia onean! Aurki ezazu lagun bat online eta praktika ezazu ikasten ari zaren hizkuntza natibo batekin, zure hizkuntza ikasten ari den natibo batekin. Beheko estekak praktikatzen lagunduko dizu, bertako ikasketa-planei, txat guneei, online hiztegiari, iragarkien taulari eta argota eta espresioak trukatzeko hiztegi-jokoei esker.
www.mylanguageexchange.com

### MYNGLE

Edozein hizkuntzatako irakasleak bilatzeko eta eskolak Internet bidez (Skype bidez edo beste nolabait) jasotzeko merkatu birtuala. Edozeinek eman dezake izena irakasle gisa, baina aldez aurretik duzun esperientzia adierazi behar duzu. Ikasleek komentarioak utz ditzakete irakasle baten web-orrian, irakasle horrekin klase bat jaso eta gero. Ordaindu behar da, baina prezioa irakaslearekin adosten da, aldez aurretik.
www.myngle.com/ [EN]

### ITALKI.COM

Hizkuntzak trukatzeko eta ikasteko gizarte-sare honek, besteak beste, aukera ematen du hizkuntzen ikaskuntzan elkartzeko bilaketak egitea edo galderak egitea, hizkuntza bateko erabiltzaile natiboek erantzun ditzaten.
www.italki.com/

### LANGUAGE EXCHANGE ESP

Beste hizkuntza bat pertsonalki praktikatzeko pertsona bat bilatzeko aukera ematen du, zeure herrian edo probintzian edo, areago, zeure adinaren edo interesen arabera.
www.languageexchangeesp.com

### ZUIOP™ INTERNATIONAL INTERCAMBIO DE IDIOMAS.

Hizkuntza-truke (language exchange) bila dabiltzanentzako webgunea. Hizkuntza-trukean, bi hizkuntzatan mintzatzen diren bi lagun elkartu egiten dira, eta batak bestea ikasten ari den hizkuntza du ama-hizkuntza.
www.zuiop.com

### HIZKUNTZA TABERNAK

Hizkuntza-tabernetan elkarrizketan aritu zaitezke hainbat hizkuntzatako jatorrizko mintzatzaileekin. Burunda Café daukazu Donostian.
Hona horrelakoen zerrenda oso bat
www.infoidiomas.com/noticia/4729/todos-los-bares-linguisticos-de-espana

Interneterako konexiorik ez izatea ere ez da aitzakia hizkuntza bat ez ikasteko. Ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat mintzatzeko erakunde publikoek nahiz pribatuek bultzatzen dituzten kultura-eskaintzak edo partikularrek sustatzen dituzten ekimenak ugariak dira. Alemanezko zinema-ziklo batera joan zaitezke, edo ingeles-talde batekin elkartu trago bat hartzeko. Motibazioa baino ez da behar. Denak balio du atzerriko hizkuntza baten ikaskuntza osoan hobetzeko eta aurrera egiteko. Baina ezin da ahaztu edozein hizkuntzaren zokondoak ezagutzeko, gomendagarria dela irakaskuntza arautuari ekitea.

## 3.2.F. GIZARTE SAREAK

Gaur egun, bogan dago gizarte-sareetan parte hartzea. Gero eta zabalduago daude facebook Twitter, hi5, tuenti edo orkut; hori dela-eta, hizkuntzak ikastera bideratutako gizarte-sareen belaunaldi “berria” sortu da. Gizarte-sare horiek, oro har, doakoak dira eta izena eman dezakezu, inolako arazorik gabe. Beste hizkuntza bat ikasi edo zurekin hizkuntzaren bat praktikatu nahi duen jendea ezagutu ahal izango duzu.

Hizkuntzak irakasteko metodo tradizionalak (liburuak edo akademietako eskolak) dagoeneko ez dira atzerriko hizkuntza bat ikasi nahi dutenek nahiago dituztenak. Instituto de Empresa (IE) erakundeak eta Busuu atariak bigarren hizkuntzen ikaskuntza-azturei buruz egindako Hizkuntzen barometroa 2011 ikerketako datuek adierazten duten bezala, gero eta zale gehiago dituzte on-line tresnek. Izan ere, ikaskuntzarako material guztia eskaintzen duten webguneak eta online ikastaroak daude.

150 herrialdetako 16 urtetik gorako 16.537 laguni egin zitzaien inkestaren arabera, aplikazio horien erabiltzaileek metodo horien eraginkortasunari balorazio altua ematen diote. Inkestatutakoen %37k uste dute hizkuntza bat ikasteko modurik onena Internet dela.

Sareak eskura jartzen dizkigun aplikazioei eta tresnei esker, hainbat metodo erabil daitezke beste hizkuntza batzuk praktikatzeko. Hauek dira gehien hautatzen direnak, besteak beste: web 2.0 plataformak (%23), online ikaskuntza indibidualizatua (%12) edo bideotxata (%7). Gainera, aurrezteko bidea ematen dute, gehienak doakoak direlako. Era berean, ikaskuntza malguagoa da, erabiltzaileen espazio- eta denbora-premiei egokituagoa.

Jende gehienarentzat, zaila da ikastea eta dena ulertzea, inork lagundu gabe. Hori dela-eta, gizarte-sareak sortu dira, lagun horiei espreski laguntzeko.

Ariketak egin ditzakezu eta gero online materiala eskuratu, baina, ondoren, laguntza jaso dezakezu beste ikasle batzuengandik edo ikasten ari zaren hizkuntza ezagutzen dutenengandik. Sare batzuetan, kideek mezuak bidaltzen dizkiete elkarri ariketak zuzentzeko, zalantzak argitzeko, aholkuak emateko edo, besterik gabe, hizkuntza elkarrizketa informaletan praktikatzeko.

Hizkuntzak ikasteko gizarte-sareak bi motatan sailka daitezke: hizkuntza bat mintzatu eta praktikatu nahi duten pertsonak harremanetan jartzen dituena, batetik, eta, bestetik, beste hizkuntza batzuetan hitz egiten duten pertsonen kontaktua errazteaz aparte, ikasteko materiala ere eskaintzen dutenak.

- *LLC (Language Learning Communities)*, Hizkuntza-Ikaskuntzako Komunitateak

  Webgune hauetan, hizkuntzak ikasi ez ezik, hizkuntza bera ikasten ari diren eta antzeko interesak dituztenekin sozializatzeko aukera ere badago, edo nork bere ezagutzekin, besteei laguntzekoa ere.

  LIVEMOCHA.COM

  Denetan erabiliena da eta hizkuntzak ikasteko munduan dagoen komunitaterik handiena. Aldizkari teknologiko batzuek “ikaskuntzaren facebook” deitzen dute. Doako 30 ikastaro eskaintzen ditu. Ingelesa, errusiera, mandarina, hebreera edo arabiera ikas daitezke.
  http://livemocha.com

BUSUU

Busuu hizkuntzak online ikasteko gizarte-sarea da. Horretarako, 150 unitate didaktiko erabiltzen ditu. Guztira, 12 hizkuntza ikas daitezke doan: espainiera, frantsesa, alemana, italiera, japoniera, ingelesa, portugesa, errusiera, poloniera, turkiera, arabiera eta txinera. www.busuu.com/es

PALABEA

Audiodun mezularitza-programen eta bideokonferentzien bidez lagunak ezagutzeko gizarte-sarea da. Norberaren kontaktu-zerrenda erakusten duen leihoa du, edozein mezularitza-programak bezala, kontaktuen egoera ikusi ahal izateko eta eurekin multimedia-harremana ezartzeko. www.palabea.com

BABBEL

Hizkuntzak ikasteko modu dibertigarri, eraginkor eta erraza. LLC honen jarduera nagusia hiztegia barneratzeko ariketak trukatzean datza.
http://es.babbel.com/

**Besteak**

DUOLINGO
http://duolingo.com/

IKNOW
http://iknow.jp/

BABELYOU
www.babelyou.com/es/

LINGQ
www.lingq.com/

WORDCHAMP
www.wordchamp.com/lingua2/Home.do

- *LEC (Language Exchange Communities),* Elkarrizketen Trukea

LLC delakoetan parte hartzen dutenek hizkuntza praktikatzeko elkarren artean hizketan aritzen dira; LEC webguneetan, ordea, eginkizun nagusia ikasleak elkarren artean harremanetan jartzea da, euren ezagutzak erabil ditzaten.

LANG-8

Atzerriko hizkuntza batean idazmena praktikatzeko LEC webgunea da. Erabiltzaileek egunerokoa idazten dute ikasten ari diren hizkuntzan eta beste parte-hartzaile batzuek zuzendu egiten dute. http://lang-8.com/

### LINGOFRIENDS

Gizarte-sare honetan ez dago gai zehatzik. Gidatuko zaituen pertsona bat aukeratu behar duzu eta kontaktua urratu. Gidariaren bilaketa aurreratua da, eta honako hauek bezalako irizpideak hartzen ditu barne: generoa, adina, tokia eta interesak. LingoFriendsek e-mailaren moduko mezu-sistema baino ez dauka. Hori dela-eta, askok Windows Messenger, Skype edo bat-bateko beste mezularitza-sistema batzuk erabiltzea aukeratzen dute.
www.lingofriends.com/

### SHAREDTALK

Elkarrizketak trukatzeko webgune erraza. Interesgarria eta osoa da. 172 herrialdetan mintzatzen diren 110 hizkuntza jartzen ditu erabiltzailearen eskura. LingoFriends-en antzekoa da, baina SharedTalkek elkarrizketarako aukera aurreratuak eskaintzen ditu.
www.sharedtalk.com/

### MYHAPPYPLANET

Hizkuntzak dohainik, modu dinamikoan eta dibertigarrian ikasi nahi dituzten ikasleen online komunitatea da My Happy Planet. Hainbat hizkuntzatako bideoen liburutegia eta erabiltzaileek sartutako ikastunitateak ditu.
www.myhappyplanet.com/

### EDUFIND.COM

E-mailarekin erregistratuz gero, doako ingeles-testa eskaintzen du. Erregistratuta daudenek klaseak kudeatzeko orri baterako sarbidea dute, irakasle eta guzti. Hizkuntzen tutoredun online ikastaro gehiagori buruzko informazioa. CAELT test.
www.edufind.com/

**Otras**

SOZIETY
www.soziety.com

LINGORILLA :
www.lingorilla.com/index.php?

PENPALS :
www.interpals.net/

EDUFIRE
http://edufire.com/

### 3.2.G. Beste baliabide batzuk

Gaur egun, askotariko baliabideak daude edozeinen eskura hizkuntzak doan praktikatzeko: online komunitateak, podcast-ak, smartphone eta tablet-etarako aplikazioak, telebista- eta irrati-kateak, kontsoletarako jokoak...

SMARTPHONES Y TABLETS

Enpresa askok aukera handia ikusi dute app direlakoen merkatuetan, eta, hartara, deskarga daitezkeen doako aplikazioen eskaintza nabarmen handitu da azken urteotan.
Horixe da Busuu (www.busuu.com/Mobile), enpresaren kasua. Sakelako telefonoetarako aplikazio bat sortu du hamar bat hizkuntzatan. Android Market/ Google Play-n edo Apple-ren App Store guneetan eskura daiteke.

Ildo beretik doa aipatutako Babbel enpresa (http://es.babbel.com). Atzerriko hizkuntzak ikasteko webgunea ez ezik, ingelesa, alemaniera, nerrelandera edo turkiera ikasteko aplikazioak ere sortu ditu iPhonerako.

Voxy aplikazioa ere ezagunenetakoa da. iPhonerako aplikazioa da. Ahoskera lantzeko ariketak, test-ak eta albisteak eskaintzeaz aparte, objektu bati argazkia atera eta ingelesez nola deitzen den esaten du. Era berean, zure kokapena GPS bidez antzemanda, leku horretarako ikasgai aproposak eskaini diezazkizuke.

'The iRegular Project' aplikazioa ere nabarmentzen dugu, hitzen eta aditzen ilustrazioen bitartez ingelesa ikasten lagunduko diguna, hartara, ikaskuntza asko erraztuta.

Mosalingua (www.mosalingua.com/es/) aplikazioak frantseseko, italierako, ingeleseko eta espainierako ezagutzak hobetzeko bidea ematen du. Ingelesezko aplikazioak, adibidez, zera dio: “bi hilabetez hamar minutu ematen badira hiztegia berrikusten, 600 hitz eta esaldi garrantzitsu ikas daitezke”.

Ausartenentzat, beste hizkuntza batean bada ere, noizean behin kantuan hastea gustuko dutenentzat, Sing&Learn English proposamena dugu, Sony ATV Publishing-en eskutik. Hizkuntzak ikasteko metodorik eraginkorrenetako bat da abestiak kantatzea. Aplikazioan hainbat kantu ezagun dago, True Colors edo Burnin'Up bezalakoak. Gainera, gramatika, hiztegia eta Cool English atala ditu. Bere abantailetako bat audioa eta testua konbinatzea da.

Atzerriko hizkuntza bateko ezagutzak hobetzeko beste modu on bat natibo batekin mintzatzea da. Horretarako aplikazio bat dago, SpeakingPal (http://play.google.com/store/apps/details?id=com.speakingpal.speechtrainer.sp) (Android Market-en eta App Store-n eskuragarri). Pertsonaia birtual batekin hitz egiteko aukera ematen digu dohainik, ingelesez hobeto ahoskatzen ikas dezagun.

Bestelako aplikazioak ere badaude: testuak itzultzen dituztenak, adibidez. Hiztegiak bezalakoak dira, eta hitz bat audio bidez itzultzeaz aparte, ahoskera zuzena ematen dute. Horien adibide, Vaughan aplikazioa (www.grupovaughan.com/cursos-ingles/curso-movil-gratis).

## PODCAST

Beste aukera bat podcast-ak dira, saretik deskarga daitezkeen audioko artxiboak, ordenagailuan nahiz MP3an entzun ahal izateko. Ingelesa podcast bidez ikasteko adibide batzuk: British Councilen Learn English (http://learnenglish.britishcouncil.org/en/) audioen podcast-en bitartez azpitituluak dituzten ingelesezko elkarrizketak entzuteko aukera ematen duena; Business English Pod (www.businessenglishpod.com) (negozioetarako ingelesa ikasteko); Learn French with Alexa (http://learnfrenchwithalexa.com/), (frantsesa hasiberrientzat) edo LearnItalianPod.com (www.learnitalianpod.com/) (15 euro hilabeteko harpidetzagatik).
IVOOX (www.ivoox.com/) audiokioskoan era guztietako podcast-ak aurki daitezke, hizkuntza guztietarako, denetariko iraupenetakoak eta mailatakoak.

## BESTE DISPOSITIBO BATZUETAN: TELEBISTA. IRRATIA, KONTSOLAK

Hizkuntzak ikasteko baliabideen zerrenda ordenagailutik edo sakelakotik askoz harago doa. Aprende inglés TV online ikus daiteke. “Curso Vaughan Inglés 4.0” ordu erdiko eskolak dira, mota guztietako ikusleei zuzendutako edukiak dituztenak: hasiberrientzat nahiz ezagutzak sakondu nahi dituztenentzat. The Verb Circus aditzak eta aditz-formak ikastera bideratuta dago; Common Mistakes, ahoskeran dauden akats ohikoenen inguruko zalantzak argitzera; edo Culture Ventures, ingelesa musikaren, literaturaren edo ekonomiaren bidez ikasteko.

Beste aukera bat *atzerriko telebista-kateak sintonizatzea* da (www.canalesparabolica.com/)telebista-saioak, serieak eta filmak bertsio originalean ikusteko, YouTube webgunera jotzea, denetariko hizkuntzetako ikasgaieak dituzten milaka online bideo eskaintzen dituena. Hizkuntzak ikasteko beste aukera bat es.englishyappr.com da (http://es.englishyappr.com) ahoskera hobetzeko itzulita dakartzan bideoak dituena.

Vaughan-ek ingelesa ikasteko irrati-emisora dauka, Vaughan Radio izenekoa (www.vaughanradio.com/) Cloverdale's Corner, The Salad (maila aurreratua) edo Square One (hasiberrientzat) bezalako saioak dituena. 24 orduz ingelesezko elkarrizketak entzuteko, 92.0 bilatu irratiko dialean, Bilbon. Beste hiri batzuetarako, kontsultatu dialak webgunean.

Eta, jakina, PCrako eta kontsoletarako jokoak ere badaude. "Mi experto en Inglés" jokoa Nintendo DSrako da (www.ubi.com/ES/Games/Info.aspx?pId=6061) eta hiztegia, gramatika eta kaligrafia lantzeko aukera ematen du. Antzekoak dira alemana edo frantsesa ikasteko nahiz hiztegia handitzeko "Mi experto" jokoak.

Hizkuntzak ikasteko bestelako jokoak ere baditu Nintendo DS-k: English Training (www.nintendo.es/Juegos/Nintendo-DS/English-Training-Disfruta-y-mejora-tu-ingles-270682.html) edo Practice English! (www.nintendo.es/Juegos/Nintendo-DS/Practise-English-Ingles-para-el-dia-a-dia-272519.html) kasu. Playstation-ek PSP-rako Play English eskaintzen du (http://es.playstation.com/psp/games/detail/item275177/PlayEnglish%E2%84%A2/). Jokoaren sortzaileen arabera, jokoaren oinarrian dagoen ikaskuntza-metodoa ingeleseko 300 ikastorduren parekoa da.

## HIZKUNTZAK MUSIKAREN BIDEZ IKASTEA

Beste hizkuntza batzuetan dauden abestiak entzutea baliabide dibertigarria da hizkuntza-konpetentziak praktikatzeko. Hizkuntza bat ikastea oso astuna eta aspergarria gerta daiteke, ikasleak motibatuko dituzten irakaskuntza-tresnak erabiltzen ez badira. Musika eta abestiak aliatu perfektua dira atzerriko hizkuntza bat modu praktiko eta dibertigarrian lantzeko. Musika-baliabideen bidez, funtsezko alderdi didaktikoak hobe daitezke, testuinguru errealean: hiztegia zabaldu, entonazioa eta ahoskera indartu eta gramatika birpasatu.

### SUBINGLES.COM:

Webgune honetan 3000 abesti inguru daude ingelesez eta azpitituluekin, hizkuntza horretako ezagutzak probatzeko. Bideoaren azpian abestiaren letra ageri da, bete beharreko hutsuneekin.
www.subingles.com/

### APRENDIENDO INGLÉS CON CANCIONES:

Hizkuntzak musikaren bidez praktikatzeko 49 lezio dituen blog-a. Horietako bakoitzean kanta batekin egiten da lan. Bideoa eta letra hizkuntza originalean aurkituko dituzu, bai eta gaztelaniarako itzulpena ere.
http://aprendiendoinglesconcanciones.blogspot.com.es/

ENSEÑAR CON CANCIONES:

Ingelesezko abestien zerrenda bat du. Ikasgai bakoitzarekin batera, abestia ematen du, bideoan edo audio-formatuan, bai eta lotutako ariketa-multzoa ere.
www.isabelperez.com/songs.htm

MAMA LISA'S WORLD:

Gazteenei hizkuntzak irakasteko modu dibertigarri eta eraginkorra. Webgune honetan mundu osoko haur-kantak biltzen dira, hainbat hizkuntzatan. Abesti bakoitzarekin, letra, nahi den hizkuntzarako itzulpena eta kanta entzuteko edo bideoan ikusteko behar diren artxiboak daude, eskuragarri badaude.
www.mamalisa.com/?t=sc&p=790&c=116

### 3.2.H. BEKAK ETA LAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA-ATZERRIKO HIZKUNTZA IKASTAROETARAKO BEKAK

- Eusko Jaurlaritzaren bekak euskal unibertsitateetan goi-mailako edo unibertsitateko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat
  www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib2/eu_2033/b2_e.html
- Eusko Jaurlaritzaren bekak unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat
  www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib1/eu_2032/cursos_extranjero_e.html

ESPAINIAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA MINISTERIOA

www.mecd.gob.es/educacion/becas-y-ayudas/para-estudiar/idiomas.html

## 3.3. HIZKUNTZAK ETA ENPLEGUA

### 3.3. A. LAN EGIN BITARTEAN HIZKUNTZAK IKASTEKO

"Europar Batasuneko beste herrialde batean lan egiteko prest nago, baina ez dut maila egokirik beste hizkuntza batzuetan". Hainbat pertsonak, eta bereziki gazteek, oztopo horri egin behar izaten diote aurre; izan ere, beren herrialdetik kanpo etorkizuna bilatzeko prest badaude ere, hizkuntza dela-eta, zailtasunak dituzte helmugako herrialdeko nazionalekin lehiatzeko.

Gidaren atal honetan, ordaindutako lan bat (prestakuntza txikikoa normalean, hizkuntza-maila txikia izaki) eta hizkuntza-ikastaro bat aurkitzeko eskaintza eta aukera batzuk erakutsi nahi dizkizugu, horrela bidaiarako eta integraziorako erraztasunak eduki ditzazun.

AUKERAK

- *Praktika profesionalak*

  Parte-hartzaile bakoitzaren interes profesionalei loturiko praktikak. Programa horiek diseinatu dira nazioarteko ikasleei oinarrizko lan-esperientzia errazteko, eta, horrela, egungo lan merkatuan abantaila lehiakor bat irabaz dezaten. Aldez aurretik eta praktikak egin bitartean hizkuntza-ikastaroak egiteko aukera eskaintzen dute normalean.

- *Ordaindutako lanak*

  Programa honetan parte hartzen dutenek zenbait lan egin ditzakete ostatua ordaintzeko, gastu pertsonaletarako asteko edo hileko ordainsaria jasotzeaz gain.
  Lanak hoteletan, jatetxeetan, gazte-egoitzetan, kanpamentuetan eta abar. Enpresa askok lanean hasi aurretik hizkuntza-ikastaroak egiteko aukera eskaintzen dute, eta, zenbait programatan, ikastaroak eta lana aldi berean egin daitezke.

- *Au pair Programak*

  Emakume parte-hartzailea (gizonek ez dute parte hartzen, normalean) jatorrizko familia batekin bizi da, haurrak zainduz, eta, aldi berean, etxeko zeregin arinetan lagunduz. Trukean ostatua, mantenua eta ordainsari bat jasotzen du astean, bere gastu pertsonaletarako. Egonaldi horiek hizkuntza-ikastaroekin uztartzen dira, normalean. Lana eta ikasketak uztartzeko aukera: hizkuntza ikastaroak (12-20 ordu astean) eta etxeko eta haur-zainketako lanak (15-20 ordu astean) uztartzen dira.

OHARRA: 10. atalean au pair programei buruzko informazio gehiago daukazu

## 3.3. B. ESKAINTZEN ADIBIDEAK

Jarraian, hizkuntzen ikaskuntza eta lana uztartzeko aukeren zenbait adibide aurkeztuko dizkizuegu. Proposatzen ditugun adibideak bi agentziak eskainitako zenbait programaren lagina baino ez dira. Askoz ere gehiago daude, eta 3.4. atalean kontsulta daitezke.

### INTERLINK-IDIOMAS

Erresuma Batuan honako programa hauek aurki ditzakezu ordaindutako enplegu gisa:

- RU 1 programa - Lana hoteletan ingeles ikastaroarekin
- RU 2 programa - Lana Erresuma Batuko hoteletan
- RU 3 programa - Lan programa Londresen
- RU 4 programa - Ostatua Londresen
- RU 5 programa - Lana Erresuma Batuko konplexu turistikoetan
- RU 6 programa - Lan programa Eskozian

**Adibidea:** RU 1 ZENBAKIKO PROGRAMA - LANA HOTELETAN INGELES IKASTAROAREKIN
Deskribapena: Programa honek lana eta ingeles-ikastaroak uztartzeko aukera eskaintzen du; lana Erresuma Batuko hoteletan egiten da eta ikastaroak, berriz, ospe handiko eskoletan. Programa Erresuma Batu osoan egiten da. Ingeles-eskolak dituzten programetan, ikastaroak honako hiri hauetan egiten dira: Bournemouth, Oxford, Eastbourne, Salisbury eta Londres.
Beste zenbait herrialdetan beste hainbat aukera gehiago ere badaude. Programa bakoitzean zenbait gauza zehazten dira, hala nola hizkuntza-eskola mota, ziurtagiria, betekizunak, egonaldien iraupena, lan mota eta abar.

### INFORT HIZKUNTZAK ATZERRIAN

Hona agentzia honek Frantzian ordaindutako enplegu gisa eskaintzen duen programa bat:
**Adibidea:** FRANTSES IKASTAROAK ETA ORDAINDUTAKO PRAKTIKAK OSTALARITZAN ATZERRIAN (CÔTE D´AZUR).
Ospe handiko frantses-zentro batek frantsesa ikasteko eta hobetzeko aukera eskaintzen du, eta, aldi berean, ordaindutako praktikak ahalbidetzen ditu ostalaritza-sektorean, bere instalazioetan: harreragileak, sukaldeko laguntzaileak, administrazio-laguntzaileak, konponketa- eta garbiketa-zerbitzuak eta abar.
Honako 3 aukera hauek eskaintzen dizkigute:

1. 35 orduko praktikaldia astean, eta, horren truke, ostatua egoitzan edo pisu partekatuan, gela partekatuan, self catering (otordu-zerbitzurik gabe) eta 46 € astean.
2. 28 orduko praktikaldia astean, eta, horren truke, 12 orduko ikastaroa astean goizez edo arratsaldez, eta ostatua egoitzan edo pisu partekatuan, gela partekatuan, self catering.
3. 20 orduko praktikaldia astean, eta, horren truke, ostatua egoitzan edo pisu partekatuan edo familian, gela partekatuan eta self catering (astelehenetik ostiralera), edo, bestela, 12 eskola astean (ostaturik gabe).

## 3.4. AGENTZIAK: HIZKUNTZAK ETA GEHIAGO

Zerrenda honetan hainbat agentzia eta enpresa bildu dira, honako hauek kudeatu eta antolatzen dituztenak: lanak atzerrian, hizkuntza-ikastaroak, lana eta ikasketak uztartzea, egonaldiak familietan, udako kanpamentuak, au pair egonaldiak eta praktikak, betiere hizkuntza hobetzeko helburuarekin.

### GET READY

Espainiako agentzia bat da, eta udako programak, hizkuntza-ikastaroak atzerrian, ordaindutako lana eta abar eskaintzen ditu, baita Espainian gaztelania ikasteko zenbait programa ere. www.getready.es/

## EASY IDIOMAS

Atzerriko herrialde batean hizkuntza bat ikasi nahi duten edo ikasi bitartean lan egin nahi duten ikasleentzat.
www.easyidiomas.com/

## EF

EFk hizkuntza-ikastaroak, trukeak, hizkuntza-bidaiak, lan-praktikak eta atzerrian ikasteko beste hainbat programa eskaintzen ditu. Hautatu zure premietara ondoen egokitzen den programa!
http://efpartner.ef.com/

## KAPLAN INTERNACIONAL

Kaplanek ingelesezko komunikazioa hobetzen lagunduko dizu, bai eta, atzerrian lan eginda, oinarrizko lan-esperientzia eskuratzen ere. Bere ikasleen emaitzak bermerik onena dira.
www.kaplaninternational.com/spa/cursos/estudiar-trabajar/al-extranjero.aspx

## EUROPAPLUS

Adin guztietarako ikastaroak mundu osoan. Lan-programak eta ikastaroak enpresentzat.
www.europaplus.net/

## IHS IDIOMAS

Hizkuntza-programa eta -ikastaroak kudeatzen ditu atzerrian: eskolak, lanbidepraktikak, lanak, ikasturtea eta abar.
www.ihs-idiomas.com/

## INTERTRAVELWORK, SL

Enpresa honek hizkuntza-ikastaroak sustatu eta kudeatzen ditu atzerrian (EBko edozein herrialde, AEB, Hego Afrika, Australia, Zeelanda Berria), ostatuaren kudeaketaz arduratzen da, eta abar. Ordaindutako eta ordaindu gabeko zenbait praktika-programa ere kudeatzen dituzte, urte osoan.
www.intertravelwork.com/

## INFORT.ORG

Infort hezkuntza-zerbitzuen erakundea da, atzerriko kultura- eta hizkuntza-programen kudeaketan eta aholkularitzan jarduten duena. Honako programa hauek eskaintzen ditu: hizkuntza-programak (ingelesa, frantsesa, alemana eta italiera), praktikak kualifikatutako eta/edo ordaindutako enpresetan, hizkuntza eta boluntario-lana, eta au pair egonaldiak.
www.infort.org

## INTERLINK

Interlinkek ikastaro-katalogo zabala eskaintzen du. Ikastaroak ordaindutako praktikekin, enpleguarekin eta au pair programekin osatzen dira, Britainia Handian, Irlandan, Frantzian, Alemanian, Austrian, Norvegian, Finlandian, Australian, Kanadan eta AEBetan. Oso gomendagarria.
www.interlink-idiomas.com

## ESL HIZKUNTZAK ATZERRIAN

Ikastaro eta enplegu-aukeren eskaintza zabala. Katalogoak doan jasotzeko aukera duzu, eta, besteak beste, enpresa honek elkarrizketa pertsonala egiteko aukera ere eskaintzen dizu, aukerarik onenak bilatzeko.
www.esl-idiomas.com/es/home.htm

**BESTE ORRIALDE BATZUK:**
LONDON JOB www.londonjob.net
STUDIA IN ITALIA htm www.studiainitalia.com/
AULAINGLES.ES www.aulaingles.es
MOSAIC INTERNATIONAL STUDIES http://mosaic.edu.es
VIAJAR Y ESTUDIAR www.viajaryestudiar.com
TOP SCHOOL www.topschool.es
ASEPROCE www.aseproce.org
EASY-GO www.easy-go.org/
SABATICA www.sabatica.org/
ACTIOSTAY www.actiostay.com/
LANGUAGE4YOU http://language4you.com/
CENTRO CULTURAL IDIOMAS www.ccidiomas.es/
CHOICES www.choices-international.com/
OVER THE RAINBOW www.otrenglish.com/
LLC www.londonlanguagecentre.com/
ANGLOSCHOLA www.angloschola.com/index2.asp
TOP SCHOOL www.topschool.es/
CONSULTING IDIOMAS EXTRANJEROS www.cie.es/
EURO PRACTICE www.euro-practice.com
GO LANGUAGES www.golanguages.es/
SHE HERENCIA www.she.es/cursos/
IDIOMAS WATSON www.idiomaswatson.com/
LANGUAGE IN www.language-in.com/





# 4. ENPLEGUA EB-N


4.1. ENPLEGUA AURKITZEKO GOMENDIO ETA AHOLKUAK 69

4.1.A. Non bila dezaket lana? 69
4.1.B. Zer hartu behar dut kontuan lana bilatu aurretik? 69
4.1.C. Nola hasi bilaketa? 70
4.1.D. Lana aurkitzeko beste bide batzuk 70
4.1.E. Prestakuntza eta tituluen onarpena 71
4.1.F. Curriculuma eta aurkezpen gutuna 71
4.1.G. Nola prestatu lan elkarrizketa? 71
4.1.H. Irten aurreko aholku praktikoak 72

4.2. EURES 73

4.3. SEPE 76

4.4. ZURE LEHEN EURES ENPLEGUA 77

4.5. LANGILEENTZAKO OINARRIZKO INFORMAZIOA 78

4.6. EUROPAN ENPLEGUA BILATZEKO ATARIAK 79

4.7. RENPLEGU BALIABIDEAK GAZTEENTZAT 80

4.8. BALIABIDEAK: ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK HERRIALDEZ HERRIALDE 82

4.9. ENPLEGUA BILATZEKO BALIABIDEAK HERRIALDEZ HERRIALDE 84

# 4. ENPLEAGUA EB-N

## 4.1. ENPLEGUA AURKITZEKO GOMENDIOAK ETA AHOLKUAK

### 4.1. A. Non bila dezaket lana?

Europako Esparru Ekonomikoan (EEE), pertsonen zirkulazio askea oinarrizko eskubide bat da, eta horrenbestez, EEEko langileek EEEtik kanpoko herrialde batean lan egin dezakete lan-baimenik gabe. Atxikimendu-itunetan ezarritako aldi baterako xedapenen eraginpeko Estatu kide berrietako herritarrei aplikatzen zaie langileen zirkulazio askea. “Estatu kide berrientzat ezarritako aldi baterako xedapenak” izeneko atalak Estatu kide berriekin zerikusia duten gaiei heltzen die berariaz.

### 4.1. B. Zer hartu behar dut kontuan LANA BILATU aurretik?

Europako beste herrialde batean bizitzeak eta lan egiteak zenbait arazo ekar ditzake berekin, hala nola kultura berri batera egokitu beharra, atzerriko hizkuntza batean lan egitea eta guretzat ezezagunak diren gizarte-segurantzako eta zerga-arloko erregimenekin ohitzea. Hautatutako herrialdeari buruz ongi informatzea da prestatzeko modurik onena. Zure gaitasun pertsonalak eta zure erabakimena ere kontuan hartzekoak dira, baita, jakina, zure kualifikazioak eta atzerriko hizkuntzei buruz duzun jakintza-maila ere.

Europako lan-merkatuaren sektore batzuek aukera handiak eskain ditzakete zuretzat, hala nola turismoak eta zerbitzuek (finantza-zerbitzuak, kudeaketa-aholkularitza, eraikuntza, informazioaren teknologiak eta osasun-sektoreko segmentu batzuk), baita nekazaritzako aldi baterako lanak ere. Gogoan hartu, halaber, lanpostuen eskaintzari dagokionez, alde handiak daudela Europako Esparru Ekonomikoko eskualdeen artean, eta, gainera, egoera oso azkar alda daitekeela.

Lan merkatuari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeen arabera, sakatu hemen:
http://ec.europa.eu/eures/main.jsp?acro=lw&lang=es&catId=2648&parentId=0

### 4.1.C. Nola hasi bilaketa?

Lekualdatu aurretik lana aurkitzen hasteko, honako hau egin beharko zenuke:

- Bisitatu EURES lan-mugikortasuneko ataria (hurrengo atalean), eta bertan hainbat lan-eskaintza aurkituko dituzu, baita bizitza- eta lan-baldintzei buruzko eta lan-merkatuari buruzko informazioa eta beste zenbait informazio baliagarrirekiko loturak ere.
- Jar zaitez harremanetan enpleguko tokiko edo eskualdeko bulego batekin, eta haiek beharrezko aholku guztiak emango dizkizute. Litekeena da EURES aholkulari bat edukitzea. Hala bada, horrek aholku eman diezazuke informazio pertsonalizatuagoa emanez, eta gainera lan-eskaintzak bila ditzake EURES sisteman, eta zure helmugako herrialdeko EURES aholkulariekin harremanetan jar daiteke.
- Kontsultatu lan-eskaintzei buruzko iragarkiak harrerako herrialdeko egunkarietan. Kontuan hartu hainbat aldizkari espezializatuk lanbide espezifikoetarako iragarkiak biltzen dituztela.
- Jar zaitez harremanetan harrerako herrialdeko enplegu-zerbitzu publikoarekin, hark aholku eman diezazuke-eta. Eta gogoan hartu beste Estatu kide batean herrialde horretako herritarrek dituzten eskubide berberak dituzula, EEEko herritarra zaren neurrian.

### 4.1. D. Lana aurkitzeko beste bide batzuk

Enplegu-zerbitzu publikoetatik aparte, honako bide hauek jorratzeko aukera ere badago:

- Estatu kide askotan agentzia pribatu batzuk daude, aldi baterako lanak aurkitzeaz berariaz arduratzen direnak. Aldez aurretik, beren zerbitzuengatik kobratzen duten edo ez egiaztatu behar duzu, eta enplegu-kontratuen nondik norakoak aztertu.
- Laneratzeko agentzia pribatuak ere badaude, baina exekutiboentzako enpleguez edo berariazko sektoreetako enpleguez arduratzen dira normalean, hala nola informatika edo finantzak.
- Ikasleentzat, enplegu-azokek eta lanbide-orientazioko zentroek oso zeregin garrantzitsua bete dezakete enplegua bilatzean.
- Gero eta ohikoagoa da enpresetarako hautagaitzak norberaren ekimenez aurkeztea. Enpresaren esku ahalik eta informaziorik zehatzena jarri behar duzu, arrakasta enpresaren egitura eta betekizunetara egokitzeko erakusten duzun gaitasunaren mendean egon daitekeelako. Zure hautagaitza aurkezteko, gutun bat bidaliko diozu enpresari, eta bertan zure kualifikazioak jasoko dituzu, baita esperientzia eta enpresa horrengatiko interes berezia eragin diputen arrazoiak ere. Bestetik, enpresa askok beren kontratazio webguneak dituzte, zenbaitetan eskaera-inprimaki elektronikoa aurkezteko aukera ematen dutenak.

- Zenbait herrialdetan oso garrantzizkoa da kontaktuak izatea, askotan lehen-lehenik ahoz komunikatzen delako lan-eskaintza bat sortu dela.
- Hautatutako herrialdea ondo ezagutu nahi baduzu eta bertan lan bila ibili nahi baduzu, onena duzu herrialde horretan denboraldi bat ematea praktikak egiten edo lan-formula jakin batekin. Enpresa handi askok horrelako lanak antolatzen dituzte.

### 4.1. E. Kualifikazioen eta tituluen onarpena

Harrerako herrialdean prestakuntzak onartzeko zer egin dezakezun jakitea; horixe da gauza garrantzitsuenetako bat.

> ! OHARRA: EBko Prestakuntzari buruzko 5. atalean aurki ditzakezu prestakuntza eta tituluak onartzeko beharrezko betekizun guztiak.

### 4.1. F. Curriculuma eta aurkezpen gutuna

Ongi ziurtatu behar duzu curriculum vitaea argi eta ongi egituratua idatzi duzula, bila zabiltzan lanari berariaz egokitua. Gainera, harrerako herrialdeko hizkuntzara itzuli behar duzu, kualifikazioekin batera.

> ! OHARRA: Gida honetan baduzu atal oso bat curriculumaz eta aurkezpen-gutunaz jarduten duena: 6. atala.

### 4.1. G. Nola prestatu lan elkarrizketa?

Zure jatorriko herrialdean bezala, lan-elkarrizketa ongi prestatu behar duzu: Portu enpresari buruzko oinarrizko informazioa, eta pentsatu zer galde diezazuketen enpresari eta lanpostuaren ezaugarri partikularrei buruz. Harrerako herrialdearen hizkuntza zenbateraino menderatzen duzun ere erakutsi beharko duzu, baita zure funtsezko gaitasun eta kualitateak lanpostu jakin horren enplegu-emaileak lanpostu horretarako ezarritako eskakizunetara zenbateraino egokitzen diren erakutsi ere.

Europar Batasuneko enpresa handi askok ebaluazio-zentroetara jotzen dute beren enplegatuak izan daitezkeenek benetako bizitzaren egoeretan nola jokatuko luketen epaitzeko.

ELKARRIZKETA EGITERA HONAKO AGIRI HAUEK ERAMAN BEHAR DITUZU:

- Zure CVaren zenbait ale, dagokion hizkuntzan.
- Zure titulazioaren itzulpen ziurtatua (zure ikastetxeak edo dagokion ministerioak emango dizu, normalean).

- Ikasketa-ziurtagiriaren, unibertsitate-titulazioaren edo beste edozein prestakuntzaren fotokopiak.
- Indarreko pasaportea edo nortasun-agiri bat.
- Jaiotza-agiriaren kopia bat.
- Europako osasun-txartela.
- Pasaporte-neurriko zenbait argazki.

### 4.1. H. Irten aurreko aholku praktikoak

• NAN edo pasaportea indarrean www.dnielectronico.es/

• CV itzulia. Eraman ale batzuk, ahal dela, formatu digitalean, litekeena delako aldaketak egin behar izatea.

• Aurkezpen- eta babes-gutunak; pasaporte-neurriko argazkiak.

• Lehen soldata jaso arte behar adinako funtsak edukitzea.

• Europako osasun-txartela edo E-100 inprimakiak
Gizarte Segurantzaren arreta- eta informazio-zentroa:
www.justizia.net/jaiotza-ziurtagiria

• Nazioarteko jaiotza-agiria eta familia-liburua.
Erregistro zibila
Aurkeztu familia-liburua eta horren fotokopia.
www.justizia.net/jaiotza-ziurtagiria

• E-303 prestazioen esportazio-eskaera
Gehieneko esportazioaldia: 3 hilabete. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren prestazioen arloa, Enpleguko bulegoa.
www.sepe.es/contenido/prestaciones/ag00d07.html

• E -301 inprimakia
Espainian egindako kotizazioen egiaztagiria. SEPEk ematen du.
www.sepe.es/contenido/empleo_formacion/eures/info_trabajadores/eu0104.html

• Gidabaimena
Trafiko Zuzendaritza Nagusia. Probintziako buruzagitza.
www.dgt.es/portal/es/oficina_virtual/dir_telefonos/jefaturas

• Banku-kontu bat irekitzea
Lan-kontratu bat edukiz gero, enpresak berak gutun bat ematen du bankuan kontu bat irekitzeko erraztasunak emateko. Lan-kontraturik eduki ezean, bankuan alokairu-kontratua aurkeztu behar da, edo, bestela, argiaren edo uraren fakturak eta abar.

Espainiako banku baten gutuna, interesduna bezero ona dela adierazten duena, eta kontuaren azken mugimenduak. Bilatu helmugako herrialdean sukurtsalak dituzten banku espainolak.
Ikasleak: egiaztatu zentro batean gutxienez hiru hilabeteko matrikula egin duzula.

- Lanbide batean aritzeko tituluak egiaztatzea

  Ikus egiaztagiriak Hezkuntza Ministerioaren web-orrian. Gobernuaren Ordezkariordetzan ere aurkez daitezke.

- Tituluaren itzulpen ziurtatua eta ikasketa-ziurtagiriaren fotokopiak

  Espainian behar bezala inskribatutako edo baimendutako zinpeko itzulpen batekin. Estatu espainolak atzerrian duen edozein diplomazia- edo kontsulordezkaritzaren eskutik www.maec.es, Kanpo Arazoetako Ministerioaren weborrian, “Zinpeko interpreteen zerrenda eguneratua” ageri da.

- Kontsulatuan edo enbaxadan izena ematea

  Beste herrialde batean egoitza iraunkorra baduzu, kontsulatuko matrikula-erregistroan inskribatu behar duzu. Espainiako kontsulatu eta enbaxaden helbideak www.maec.es. webgunean daude eskuragarri.

## 4.2. EURES

EURES mugikortasun profesionalaren ataria da, baina askoz gehiago ere bada, 700 EURES aholkulari baino gehiagoko giza sarea baitu Europa osoan. 1993an sortu zen EURES, eta Europako Batzordearen, eta EEEko Estatu kideetako (EBko herrialdeak, Norvegia, Islandia eta Liechtenstein) europar enplegu-zerbitzu publikoen eta elkartutako beste erakunde batzuen arteko lankidetza-sarea da. Suitzak ere parte hartzen du EURES lankidetza-sarean.

EURES sareak informazioko, aholkularitzako eta kontratazioko/laneratzeko (enplegubilaketa) zerbitzuak eskaini nahi dizkie langile eta enpresaburu guztiei, baita Europar Batasuneko pertsonen zirkulazio askea baliatu nahi duten herritar guztiei ere.

### EURES-EN ZERBITZUAK INTERNETEN http://ec.europa.eu/eures/

ENPLEGU BILAKETA

EURES atarian argitaratutako enplegu-eskaintzak EURESen kide eta bazkideek egindakoak dira, zehazkiago, Europako enplegu-zerbitzu publikoek egindakoak.
EURES tresnaren bitartez, enpresaburuek ezagutzera ematen dituzte Europako beste herrialde batzuetako langileekin bete nahi dituzten lanpostuak. Bandera urdin bat

da “EURES lanpostuen” bereizgarria, enpresak Europako beste herrialde batzuetako lagunak kontratatzeko interes berezia duela adierazten duena.

Europako lan-merkatuaren gardentasuna handitzeko asmoarekin, Europako enplegu-zerbitzu publikoek iragarritako enplegu guztiak beren web-orrian kontsulta daitezke. Lanpostu horiek ez daramate bandera urdinik, eta ez dira “EURESlanpostuak”.

Lanpostu hutsak askotariko lanbideetan ageri dira, urte-sasoian eta modu iraunkorrean lan egiteko aukerak barne. Lanpostu huts bakoitzean, kontaktuko pertsonari eta hautagaitza aurkezteko moduari buruzko informazioa jaso da. Kontaktua EURES aholkulari baten bitartez bidera daiteke, eskaera bideratuko duena; beste kasu batzuetan, enpresaburuarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera dago.

Europako enplegu-zerbitzuek egunero-egunero eguneratzen dute enpleguak bilatzeko EURES datu-basea, eta lanpostu hutsei buruzko iragarkiek hutsik dauden bitartean bakarrik jarraitzen dute sisteman.

## BIZI ETA LAN BALDINTZAK

EURESek funtsezko datu-base bat eskaintzen du Europako Esparru Ekonomikoaren herrialdeetako lan-merkatuari, lan-baldintzei eta bizitzari buruz. Beste herrialde batera lanera joan nahi baduzu, funtsezkoa da datu-base hori bisitatzea.

## AHOLKU PRAKTIKOAK

Enplegu-eskaintza interesgarri bat aurkitzen baduzu, bisitatu atal hau herrialdeko lan- eta bizitza-baldintzak ezagutzeko. Izan ere, litekeena da, aldez aurretik jende askok egin duen bezala, eskaintza bat onartzea soldata zoragarria iruditzen zaizulako, bizitza-maila handia dela eta zergetan % 40 ordaindu behar dela jakin gabe.

Herrialde jakin batera aldatzeko aukera aintzat hartzerakoan gogoan izan behar diren gai praktiko, juridiko eta administratiboei buruzko ikuspegi orokor laburra eskaintzen du datu-base honek. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, jarraitu Interneteko beste gune batzuekiko loturak, edo, bestela, jo aipatutako harreman-puntu eta erakundeetara.

Herrialde horretan enplegua bilatzeko moduari, lekualdatzeari, lan- eta bizitzabaldintzei, gizarte-segurantzari, aseguruei eta abarri buruzko informazioa eskaintzen du.

## NIRE EURES

“Nire EURES” doako zerbitzua da, enplegu-eskatzaileentzat zein enpresentzat sortua.

*Enplegu-eskatzaileek bilaketa-profilak sortu eta gordetzeko eta posta elektroniko bidezko abisuak jasotzeko aukera dute* profilera egokitutako lanpostuak izanez gero. EURESen lineako CVa, EBko hizkuntza guztietan eskuragarri dagoenak, curriculuma iragartzeko eta erregistratutako enpresei eta EURES aholkulariei erakusteko aukera eskaintzen du.

“Nire EURES” ataleko erabiltzaile-kontuan enplegu-eskatzaileen curriculumak bilatzen hastean, enpresek bilaketa-profilak sortu eta gorde ditzakete, baita posta elektroniko bidez abisuak jaso ere.

## EURES KONTSEILARIAK EDO AHOLKULARIAK

Aholkulari-sare batek osatzen du EURES. Enplegu-eskatzaileek eta enpresek eskatutako informazioa ematen dute aholkulari horiek, harreman pertsonal baten bitartez.
Europa osoan 700 EURES aholkulari baino gehiago daude, eta kopuru hori gero eta handiagoa da.

*EURES aholkulariak espezialistak dira, eta EURESen oinarrizko hiru zerbitzuak (informazioa, orientazioa eta laneratzea) ematen dizkiete*, enplegu-eskatzaileei zein Europako lan-merkatuan interesa duten enpresei. Mugikortasun nazionalarekin eta mugaz haraindikoarekin zerikusia duten gai praktiko, juridiko eta administratiboei buruzko espezializazioa lortu dute. Estatu kide bakoitzeko edo EURES sareko kide diren beste erakunde batzuetako enplegu-zerbitzu publikoaren esparruan dihardute.

Honako webgune honetan aurki dezakezu Eures aholkulari hurbilena:
http://ec.europa.eu/eures/main.jsp?acro=eures&lang=es&catId=3&parentCategory=3

Albisteak eta enplegu-eskaintzak sakelako telefonorako aplikazio berrian ere jaso ditzakezu (http://goo.gl/wBESI) edo gizarte-sareetan:
Facebook: www.facebook.com/EURESjobs
Twitter: http://twitter.com/euresjob
LinkedIn: www.linkedin.com/groups?mostPopular=&gid=1884728
Google+: http://goo.gl/Xd1Fo

## 4.3. SEPE

SEPE Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuak EBko enpleguari buruzko garrantzizko informazioen bilduma aurkezten du bere webgunean.
www.sepe.es

*Web-orriak garrantzizko informazio hau eskaintzen du:*

### LAN DEIALDIAK: HAUTAKETA PROZESUAK ESPAINIATIK

Herrialdez herrialde antolatzen dira. EBn lan egiteko Espainian egiten diren hautaketa-prozesuak aurkezten dituelako nabarmentzen da atal hau. Aukera hau oso garrantzitsua da, EBko langileak kontratatze aldera zerbitzu publikoek egiten dituzten eskaintzak baitira. Kasu askotan, aurretiazko hizkuntza-prestakuntza sartzen da.

### CV-AK ETA AURKEZPEN GUTUNAK HERRIALDEZ HERRIALDE

SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak informazioa eskaintzen du Europar Batasuneko zenbait herrialdetan aurkezpen-gutuna eta curriculum vitaea lantzeko jarraibide orokorren inguruan, dagozkien hizkuntzetan. Laguntza handikoak izando dira zuretzat, herrialde bakoitzaren ezaugarri espezifikoen berri ematen dizuten neurrian.

### EUROPAN LAN EGITEKO INFORMAZIOA ETA GIDA BALIAGARRIAK HERRIALDEEN ARABERA

Atal honetan honako hauek nabarmendu behar dira:

- “TRABAJAR EN” GIDAK
  Eures sareak argitaratzen ditu gida horiek, eta nahi duzun gida espezifikoa aukera dezakezu lan egiteko aukeratzen duzun herrialdearen arabera. Nahiko gida osoak dira, eta hainbat gairi buruzko informazioa biltzen dute: lan-merkatua, kontratuak, Gizarte Segurantza, osasuna eta prestazioak, zergak, ostatua, hezkuntza, kultura, helbide baliagarriak eta abar.
- “BUSCAR EMPLEO EN” LIBURUXKAK
  EBko herrialde bakoitzean enplegua bilatzeko eskuragarri dagoen informazio praktikoa laburbiltzen dute liburuxka horiek, enplegua bilatzeko oinarrizko helbideen berri emanez.
- “CUÁNTO CUESTA EN”
  EBko gainerako herrialdeetan bizitzak duen kostuari buruzko datu praktikoak eskaintzen dituzte liburuxka horiek. KONTUZ! Erreparatu datari, litekeena delako eguneratuta ez egotea.

### EURES ATARIAREN ESKAINTZAK

Sarbide zuzena Eures atariko enplegu-eskaintzetara.

MUGIKORTASUNERAKO INFORMAZIOA. OHIKO GALDERAK
BIZITZA ETA LAN BALDINTZAK HERRIALDEZ HERRIALDE
LAN MERKATUAREN FITXAK HERRIALDEZ HERRIALDE
EURES SAREKO AHOLKULARIAK ESPAINIAN

## 4.4. ZURE LEHEN EURES LANA

### Zer da?

18 eta 30 urte bitarteko gazteei jatorrizko herrialdea ez den EBko beste batean lana bilatzeko eta EBko beste herrialde batzuetako langile gazteak kontratatu nahi dituzten enpresei diruzko laguntza emateko proiektu pilotua da.
www.sepe.es/contenido/empleo_formacion/eures/first_job

### Nori dago zuzenduta?

- Lana eskatu eta baldintza hauek betetzen dituztenei::
  - 18 eta 30 urte bitartekoak izatea.
  - Europako herritartasuna izatea.
  - EBko herrialde batean legez bizitzen egotea.
- Honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresei:
  - Enpresa EBko herrialde batean legez ezarrita izatea.
  - Dagokien herrialdean aurkitzen ez duten berariazko profila duten langileak bilatzea.
  - Gutxienez 6 hileko kontratuak eskaintzea, herrialdeko lan-legeria betetzen duten ordainsariak eta baldintzak dituztenak.

### Nolako izango dira laguntzak?

- Lana eskatzen dutenentzat:
  Lanpostu huts egokiak bilatzea eta laneratzeko laguntza; lan-elkarrizketa egiteko bidaia ordaintzeko gastuetarako edota lanpostu huts bat betetzeko atzerrira joateko bidaiarako diru-laguntza.
- Enpresentzat:
  Kontratatzeko laguntza. Langile kontratatu berrien prestakuntza-gastuen eta herrialdean bizitzen hasteko laguntzen zati bat ordaintzeko diru-laguntza bat eska dezakete enpresa txiki eta ertainek (250 langilekoak, gehienez ere).

*Informazio guztia:*
www.sepe.es/contenido/empleo_formacion/eures/pdf/yfej_Guide_ES.pdf

## 4.5. LANGILEENTZAKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

### ZER DA LANGILEEN ZIRKULAZIO ASKEA?

Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan barrena, langileen zirkulazio askea funtsezko eskubidea da. Eskubide horri esker, EEEko herritarrek edozein herrialde kidetan lan egiteko eta ezartzeko askatasuna dute, lan egiteko baimenik, herrialde horretako nazionalekiko eskubide-berdintasuna bermaturik. Senitartekoak ere eskubide horren jabe dira.

### NIRE TITULUAREKIN, JARDUN AL DEZAKET EUROPAKO BESTE HERRIALDE BATEAN?

Oro har, Europako herritar batek EBko beste herrialde batean jardun dezake edozein lanbidetan, nazionalen arau eta muga berberak baino ez dituela. Zenbait herrialdetan, tituluak, diplomak, ziurtagiriak edo kualifikazio espezifikoak edukitzea eskatzen dute autonomo gisa zein besteren kontura jarduera jakin batzuetan aritzeko. Kasu horietan, horien onarpena eskatu beharko da xede profesionaletarako, harrerako Estatu bakoitzeko eskumeneko erakundeen aurrean.

### OSASUN LAGUNTZARIK BA AL DUT eb-KO BESTE HERRIALDE BATERA JOATEN BANAIZ?

Osasun-laguntzari dagokionez: Gizarte Segurantzaren onuradun bazara, irten aurretik Europako osasun-txartela lortu behar duzu. Txartel hori indibiduala da, eta titularraren eskubidea ziurtatzen du ikuspegi mediko batetik beharrezkoak diren osasun-prestazioak jasotzeari dagokionez, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan eta Suitzan aldi baterako dagoen bitartean. Gizarte Segurantzan lor daiteke. Osasun-laguntza doakoa da herrialde gehienetan.

Hala eta guztiz ere, herrialde batzuetan kostu osoa edo kostuaren zati bat ordaindu beharko du. Oso garrantzitsua da ordainagiriak eta fakturak gordetzea, ondoren dirua itzul diezazuten.

### LAN BILA NAGOEN BITARTEAN, KOBRA AL DEZAKET LANGABEZIA PRESTAZIOA EUROPAKO BESTE HERRIALDE BATEAN?

Langabezia-prestazioak edo subsidioa jasotzen ari bazara, prestazio horiek esportatzeko aukera duzu lan bat bilatzeko, gehienez, 3 hilabetez. Horretarako honako hauek eskatuko dizkizute: jatorriko herrialdearen Enplegu Zerbitzu Publikoan gutxienez 4 astean erregistratua egotea, zerbitzu horri habitasen zaren eguna jakinaraztea eta helmugako herrialdeko Enplegu Zerbitzu Publikoan izena ematea 7 eguneko epean. E-303 inprimakia eraman behar duzu zurekin, eskubidea onartu zizun Enplegu Zerbitzuak emango dizuna. Kontuan hartu zenbait herrialdetan izapideak 2 hilabete ere atzera daitezkeela.

### NON ORDAINDU BEHAR DITUT NIRE ZERGAK?

Europar Batasunean ez dago berariazko legeriarik zerga-arloari dagokionez, baina kontu handiz ibili behar da, batetik, ezarpen bikoitza saihesteko bi herrialdetan jasotako diru-sarrerak dituzten pertsonen errentetan, eta, bestetik, atzerrikoak nazionalen aldean ez diskriminatzeko. Normalean egoitza fiskala dagoen herrialdean ordainduko dira zergak.

## 4.6. EUROPAN ENPLEGUA BILATZEKO ATARIAK

### BILATZAILE PRIBATUAK

Zenbait bilatzaile pribatuk (Jobrapido edo Trovit, adibidez) hainbat herrialdetan bilatzeko aukera eskaintzen dizute, dagokion herrialdearen hizkuntzan.

### ENPLEGU ATARI OROKORRAK

www.infojobs.net/busqueda_avanzada_ofertas.cfm?canal=0
www.infoempleo.com/trabajo/en_union-europea
www.laboris.net/Buscador.aspx?Idioma=es&Portal=1
www.trabajar.com/empleo/fuera-espana-5p
http://buscartrabajo.monster.es/

### BERARIAZKO ENPLEGU ATARIAK

www.jobtransport.com/ (garraioa-Frantzian)
www.turijobs.com (turismoa-atzerriko eskaintzak)
www.ticjob.es/ (informazio-teknologietan espezializatutako ataria)
www.hacesfalta.org/oportunidades/remuneradas/buscador/
www.newscientistjobs.com/jobs/default.aspx (fisika, kimika, biologia eta beste. mundu osoko eskaintzen bilatzailea)
www.pole-emploi.fr/accueil/ (ostalaritza)

### OSASUN ENPLEGUA/EUROPA

www.seleuropa.com/es/index.html
http://agencemobiliteurope.com/
www.efisioterapia.net/empleo/index.php (Espainiako eta Frantziako eskaintzak)

## 4.7. ENPLEGU BALIABIDEAK GAZTEENTZAT

### INTERNATIONAL JOB LINKS

Bilatu lana oporretarako edo bidali zure CVa online. Webguneen direktorio zabal honek hainbat aukera eskaintzen dizkizu, aldi baterako enpleguekin hasi eta funtzio publikoaren lanpostuekin buka. Hautatu eskualde bat eta eremu bat eta honako hauek lortuko dituzu: herrialdez herrialde sailkatutako loturak, enplegua bilatzeko datu-baseei eta bilatzaileei buruzko iruzkinak, eta horiek eskuragarri dauden hizkuntzei buruzko informazioa.
www.4icj.com [EN]

### ANYWORK ANYWHERE

Enplegu-iragarkiak eta oinarrizko informazioa, Erresuma Batuan eta mundu osoan lan egiteko eta bidaiatzeko. Informazio-iturri baliagarri honetan, bisatu eta aseguruei, zergen itzulketari eta abarri buruzko informazioa bila dezakezu.
www.anyworkanywhere.com/ [EN]

### International Job Board

EscapeArtist's International Job Board delakoak atzerrian lan egiteko aukera ematen die ingelesez hitz egiten dakitenei. Ihes egin nahi baduzu Australian abokatu-karrera hasteko, Karibean urpekari-lanpostu baten bila bazabiltza, Monakon artapeneko teknikari aritu nahi baduzu edo Mediterraneoan gurutzald batean lan egin, hau da zure webgunea.
http://jobs.escapeartist.com/ [EN]

### JOBSABROAD

Munduko enplegu-eskaintzen iturria. Bilatu hautatutako helmugaren arabera.
www.jobsabroad.com/search.cfm [EN]

### ATZERRIAN ENPLEGUA BILATUZ

Europako beste herrialde batera lan bila joan aurretik bizitza-estiloari eta lan-baldintzei dagokienez eta kulturari dagokionez kontuan hartu beharreko desberdintasunei buruzko informazio-iturria. Herrialdeetako gidetan informazio praktikoa aurkituko duzu 40 herrialde baino gehiagoren kultura-alderdiei heltzeko moduari eta bertan lana bilatzeko moduari dagokienez.
www.labourmobility.com/ [EN]

### EUROBRUSSELS

Bruselan, EBko erakundeetan, abokatu-kabineteetan, nazioarteko erakundeetan, erakunde akademikoetan, unibertsitateetan, enpresa-eskoletan eta think tank direlakoetan enplegua aurkitzeko lagungarri izan daiteke webgune hau. Lana bilatzeko tokiei buruzko aholku baliagarriak.
www.eurobrussels.com/index.php [EN]

### EXPERTISE IN LABOUR MOBILITY

Enpleguak irabazi-asmorik gabeko sektoreetan, munduko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta giza eskubideen arloko erakundeak barne.
www.labourmobility.com/ EN][FR][ES]

### EUROPAR BATASUNEKO HERRITARREI AHOLKU EMATEKO ZERBITZUA

Europan barrena lan egiteko, bizitzeko, ikasteko edo erretiroa hartzeko dauzkazun eskubideei buruz galdetzeko:
http://ec.europa.eu/citizensrights/front_end/index_es.htm

### LANA ETA PENTSIOAK EUROPAR BATASUNEAN

EBko beste herrialde batean bizitzeko eta lan egiteko asmoa al duzu? Hemen informazioa aurki dezakezu Europako curriculum vitae bat egiteko, enplegua aurkitzeko eta zure prestakuntzetarako aintzatespena lortzeko moduari buruz.
http://europa.eu/eu-life/work-pensions/index_es.htm

### NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN LAN EGIN

Lan-eskaintzen webguneetarako estekak ditu atari honek, bai eta Europako eta itsasoz gaindiko nazioarteko erakundeen zerrenda zabala ere.
www.coe.int/T/E/Human_Resources/jobs [EN]

### IWORK

Graduatu berritan eta lehen enpleguaren bila? Hasiberri batentzako lanpostu baten edo bestelako lanpostu baten bila bazabiltza, webgune honetan Europar Batasun osoko eskaintzak aurkituko dituzu, kokapenaren, industriaren eta eginkizunaren arabera antolatuak. Posta elektronikoa ere erabil dezakezu, izena emateko eta lan-aukerei eta praktikaldiei buruzko informazioa jasotzeko.
www.iagora.com/iwork/index.html

### INTERNATIONAL JOB OFFERS

Erabil ezazu nazioarteko lana motaren eta herrialdearen arabera aurkitzeko duen bilaketa-tresna.
www.intljobs.org

## 4.8. BALIABIDEAK: ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK HERRIALDEZ HERRIALDE

**• ALEMANIA**

BUNDESAGENTUR FÜR ARBEIT
www.arbeitsagentur.de/
BVA. BUNDESVERWALTUNGSAMT
www.bva.bund.de/

**• AUSTRIA**

AMS. ARBEITSMARKTSERVICE
www.ams.at/

**• BELGIKA**

ORBEM/GDA. OFFICE RÉGIONAL BRUXELLOIS DE L'EMPLOI / BRUSSELSE GEWESTELIJKE DIENST VOOR ARBEIDSBEMIDDELING
www.actiris.be/
FOREM. L'OFFICE WALLON DE LA FORMATION PROFESSIONNELLE ET DE L'EMPLOI
www.leforem.be/
VDAB. VLAAMSE DIENST VOOR ARBEIDSBEMIDDELING www.vdab.be/

**• DINAMARKA**

AF. ARBEJDSFORMIDLINGEN PUBLIC EMPLOYMENT SERVICES
www.af.dk/
AMS. ARBEJDSMARKEDSSTYRELSEN, LABOUR MARKET AUTHORITY
http://ams.dk/

**• FINLANDIA**

MOL. TYÖMINISTERIÖ/ARBETSMINISTERIET (MINISTRY OF LABOUR)
www.mol.fi/etusivu/index.html

**• FRANTZIA**

ANPE. AGENCE NATIONALE POUR L'EMPLOI
www.pole-emploi.fr
APEC. ASSOCIATION POUR L'EMPLOI DES CADRES
www.apec.fr
OFII. OFFICE FRANÇAIS DE L'IMMIGRATION ET DE L'INTEGRATION
www.ofii.fr/

**• GREZIA**

OAED www.oaed.gr/

**• IRLANDA**

FAS. TRAINING AND EMPLOYMENT AUTHORITY
www.fas.ie

- **ISLANDIA**

VINNUMALASTOFNUN
www.vinnumalastofnun.is

- **ITALIA**

MLPS. MINISTERO DEL LAVORO E DELLE POLITICHE SOCIALI
www.lavoro.gov.it/lavoro

- **LUXEMBURGO**

ADEM. ADMINISTRATION DE L'EMPLOI
www.adem.public.lu/

- **NORVEGIA**

AETAT. ARBEIDSMARKEDSETATEN
www.aetat.no/

- **HERBEHEREAK**

CWI. CENTRUM VOOR WERK EN INKOMEN
www.werk-en-inkomen.com
WERK.NL
https://www.werk.nl

- **PORTUGAL**

IEFP - INSTITUTO DO EMPREGO E FORMAÇÃO PROFISSIONAL
http://www.iefp.pt/

- **ERRESUMA BATUA**

UNIVERSAL JOBMATCH
www.gov.uk/jobsearch
JOBCENTREONLINE, DEPARTMENT FOR EMPLOYMENT & LEARNING NORTHERN IRELAND.
www.jobcentreonline.com

- **SUEDIA**

ARBETSFÖRMEDLINGEN
www.arbetsformedlingen.se/

- **SUITZA**

SECO. DIRECTORATE OF LABOUR.
http://www.seco.admin.ch/

## 4.9. ENPLEGUA BILATZEKO BALIABIDEAK HERRIALDEZ HERRIALDE

Herrialdez herrialde enplegua bilatzeko baliabide-bilduma ugari daude. Hona hemen interesgarrienak.

### SEPE

EURES sareak argitaratzen ditu gida horiek, eta nahi duzun gida espezifikoa aukera dezakezu lan egiteko aukeratu duzun herrialdearen arabera. Nahiko gida osoak dira, eta hainbat gairi buruzko informazioa biltzen dute, hala nola lan-merkatua, kontratuak, Gizarte Segurantza, osasuna eta prestazioak, zergak, ostatua, hezkuntza, kultura, helbide baliagarriak eta abar.
www.sepe.es/contenido/empleo_formacion/eures/info_trabajadores/eu0103.html

### ENPLEGUA GAZTEENTZAT, HERRIALDEZ HERRIALDE

Kantabriako gobernuak herrialdez herrialde enplegua bilatzeko gida bat argitaratu du, enpleguari, bekei, udako lanari eta abarri buruzko loturak barne. Herrialde jakin batean interesatuta bazaude, kontsultatu gida hau, ezinbestean. OSO GOMENDAGARRIA.
http://www.jovenmania.es/index.php/comunes/contenido/id/7502/h/no

### ENPLEGUA BILATZEKO BALIABIDEAK HERRIALDEZ HERRIALDE

• AUSTRIA
http://www.jugendservice.at/themen/ferial-nebenjob/infos-zum-jobben.html
www.stepstone.at
www.oscars.li

• BELGIKA
www.leforem.be
www.actiris.be
www.brico.be/wabs/fr/jobs/index.jsp
www.federgon.be
www.colruyt.be
www.horest.be
www.centres-de-vacances.be
www.stepstone.be
www.references.be
www.jobscareer.be

• BULGARIA
http://www.bluelink.net/

- TXEKIAR ERREPUBLIKA

www.ajob.cz
www.alfa-agency.cz
www.ccusa.cz
www.gaa.cz
www.studentagency.cz
www.adecco.cz
www.axial.cz
www.jobpilot.cz
www.jobs.cz
www.student.cz

- DINAMARKA

www.seasonalwork.dk

- ESTONIA

www.luisa.ee
www.malev.ee

- FINLANDIA

www.nordjobb.net

- FRANTZIA

www.animjobs.com/
www.yoopala.com
www.etudis.com/
www.iquesta.com/
www.planetanim.com
www.letudiant.fr/emploi.html?origin=emploi
www.unse.org/fr/sejours/jobs.html
www.emploi-saisonnier.com
http://chez-vous.com/
www.studyrama-jobs.com/

- ALEMANIA

www.arbeitsagentur.de
www.europaserviceba.de
www.athenajob.de
www.jobpilot.de
www.jobs.de
www.jobber.de
www.afasp.net

- GREZIA

www.diversparadise.gr/
http://www.ctp.gr/intrasteki/working.htm

- HUNGARIA

www.allas.lap.hu
www.afsz.hu
www.mol.hu
www.morganstanley.hu
www.congresstravel.hu
www.profipower.hu
www.job.lhsystems.hu
www.jobbkezek.hu
www.multi-coop.hu
www.rebusz.hu
www.furgediak.hu/cegek.php/default/index_en
www.decathlon.hu

- IRLANDA

www.hoteljobs.ie
www.approachpeople.com

- ISLANDIA

www.nordjobb.net/
http://studentamidlun.is/atvinna/

- ITALIA

www.comune.torino.it/infogio/lavoroest/index.htm
www.mirabilandia.it/#/lavoraconnoi
www.zainettoviaggi.it/collaboratori.asp

- LETONIA

www.study.lv/
www.prakse.lv/vacancy/vacancyList/public/3/any/any/any

- LIECHTENSTEIN

www.aha.li/

- LITUANIA

www.ewc.lt/
www.itc.lt/
www.lwc.lt/render/lt/programos/darbo/ukfarm.htm
www.jaunimas.lt

- LUXEMBURGO

www.cij.lu
http://jobs.youth.lu

- MALTA

www.etc.gov.mt/site/page.aspx?pageid=2008
www.vacancycentre.com/

- NORVEGIA

www.norvege.no
www.nav.no/English

- HERBEHEREAK

http://vakantiewerk.startpagina.nl
http://recrajob.nl
www.doublea.nl
www.vacansoleil.nl/werk
www.seasonalwork.nl

- POLONIA

http://job.2p.pl/

- PORTUGAL

http://aeiou.expressoemprego.pt/scripts/indexpage.asp?headingID=4651

- ERRUMANIA

www.sci.ro

- ESLOVAKIA

www.bakalari.sk
www.brigadnici.sk/
www.ccusa.sk
www.ckm.sk/buxus/generate_page.php?page_id=60
www.indexplus.cz/index_sk.html
www.studentagency.sk

- ESLOVENIA

www.ess.gov.si/
www.impel-bohinj.si
www.studentski-servis.com/

- SUEDIA

www.sommarjobb.se
www.nordjobb.net

- TURKIA

http://genctur.com.tr

- ERRESUMA BATUA

*SEKTORE GUZTIAK*

www.totaljobs.com
www.prospects.ac.uk
www.jobs.ac.uk
www.jobserve.com
www.gisajob.com
www.tiptopjob.com
www.hotrecruit.com
www.jobsite.co.uk
www.seasonworkers.com/summerjobs
www.holidaybreakjobs.com

*CATERING-A*

www.hoteljobswop.com
www.hotel-jobs.co.uk
www.hcareers.co.uk
www.caterer.com

*ENPLEGU ELEBIDUNAK*

www.french-selection.co.uk

*ENPLEGU AGENTZIAK*

www.agencycentral.co.uk
www.reed.co.uk
www.tate.co.uk
www.thelawyer.com
www.maine-tucker.co.uk
www.diamond-rec.co.uk
www.adecco.co.uk
www.manpower.co.uk
www.select.co.uk



# 5. PRESTAKUNTZA EB-N




## 5.1. PRESTAKUNTZA EB-N 91
## 5.2. EB-N IKASTEKO 10 ARRAZOI 92
## 5.3. GOI-MAILAKO HEZKUNTZARAKO EUROPAR ESPARRUA 92
## 5.4. PRESTAKUNTZA ETA TITULUEN ONARPENA 94
5.4.A. Naric Sarea 95
## 5.5. TENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMA 96
5.5.A. Comenius: haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleak 97

5.5.B. Leonardo da Vinci: lanbide heziketarako mugikortasun programak 97

5.5.C. Erasmus Mundus: EBtik kanpoko herrialdeekiko irakaskuntza eta lankidetza programak 98

5.5.D. Erasmus: Goi mailako ikasketak edo lanbide praktikak eb-ko beste herrialde batean 98
## 5.6. PLOTEUS 100
## 5.7. BALIABIDEAK 101
5.7.A. Prestakuntza eskolan 101

5.7.B. Lanbide heziketa 101

5.7.C. Unibertsitatean ikasteko 102

# 5. PRESTAKUNTZA EB-N

## 5.1. PRESTAKUNTZA EB-N

Atzerrian udako ikastaro bat egitea da aukera hedatuenetako bat udako oporrak beste kultura bat ezagutzeko eta, aldi berean, hizkuntza bat ikasteko aprobetxatu nahi dituzten gazte edo/eta ikasleen artean.

Ildo horretan, gero eta herrialde gehiagoren erakunde publikoek programa edo beka jakin batzuk eskaintzen dituzte, nazionalei atzerrian udako ikastaro bat egiteko edo udan prestakuntza hobetzeko aukera emateko.

Hala eta guztiz ere, litekeena da udako ikastaroarekin nahikoa ez izatea, eta egonaldi akademikoak luzatu nahi izatea, nola mugikortasun-ekimen baten baitan, hala programa batean sartzeko baimen arrunta eskatuz. Kasu horretan, guretzat aproposa den programa aurkitu beharko dugu, izapide korapilatsuago batzuei aurre egin beharko diegu, eta beste faktore batzuk kontuan hartu beharko ditugu.

Atal honetan, atzerrian ikasteko arrazoi garrantzitsuenak aztertuko ditugu, eta, horren haritik, Europar Batasunak eta estatu kideek Europako Hezkuntza Esparrua sortzeko egindako ahaleginen laburpena ikusiko dugu. Gainera, atzerrian titulu bat nola homologa daitekeen ikusiko dugu, Europar Batasunak finantzatutako hezkuntza- eta truke-programak aztertuko ditugu, eta PLOTEUS atariaren eta EBn prestakuntza-aukera onenak bilatzeko beste baliabide batzuen berri emango dugu.

OHARRA: Jaso nahi duzun prestakuntzak, funtsean, hizkuntzak ikastearekin zerikusirik badu, irakurri arretaz gidaren 3. atala, hizkuntzei buruzkoa.

## 5.2. EBN IKASTEKO 10 ARRAZOI

1. Zure espezialitatea ikasten aurrera egiteko eta zenbait irakaskuntza-metodo egiaztatzeko aukera izan dezakezulako.

2. Zure curriculuma hobetuz, zure lan-aukerak zabal ditzakezulako. Atzerrian bizitzearen esperientzia oso erakargarria izan daiteke enpresentzat.

3. Atzerriko ikasketak zure herrialdean edo lan egin nahi duzun herrialdean onartuko dizkizutelako. EBren programek erraztasunak ematen dizkizute beste toki batzuetan ikasteko eta kredituak transferitzeko, denborarik eta lanik galdu gabe.

4. Hainbat helmugaren artean hautatzeko aukera duzulako.

5. Hizkuntzak ikasteko edo hizkuntza-mailak hobetzeko aukera duzulako. Atzerrian ikasteak edo prestatzeak zure hizkuntza-trebetasunean eragin esanguratsua izan dezakeelako, eta, hizkuntza horretan tutik ere ez badakizu ere, hizkuntza horren oinarriez jabetzeko aukera ezin hobea delako.

6. Beste kultura batzuk ezagutu ditzakezulako eta beste herrialde batzuetako jendearekin harremanetan jarri eta lagun berriak egin ditzakezulako. Atzerriko kultura batean murgiltzeak bizitzaren ikuspegi berria eman diezazuke, zure moldagarritasunaren mesedetan.

7. Heltzen lagunduko dizun aparteko esperientzia pertsonal batez gozatzeko aukera duzulako.

8. Zure prestakuntza pertsonalean eta zure gizarte-gaitasunetan aurrera egingo duzulako. Atzerriko herrialde batean jardutea zure independentzia eta heldutasuna indartzeko lagungarri izan daiteke.

9. Horrela malgutasuna eta ekimena dituzula erakusten duzulako.

10. Atzerrian ikasiz zure bizitzak hobera egingo duelako.

## 5.3. GOI-MAILAKO HEZKUNTZARAKO EUROPAR ESPARRUA

Europako hezkuntza-sistemetako egiturek oso bestelako ikuspegiak dituzte lanbide-heziketari, goi-mailako irakaskuntzari eta etengabeko prestakuntzari, azterketei eta kualifikazioei dagokienez. Horregatik, *Goi-mailako Hezkuntzarako EuroparEsparruak* Europako goi-mailako elkargunea izan nahi du. Horrek ez du esan nahi ikuspegi guztiak bateratu behar direnik, estatu kideek beren hezkuntza-sistema ezartzeko autonomiari eutsiko diotelako.

Boloniako prozesua 1999an hasi zen, Europako 29 herrialdetako (Espainia tartean) ministroek Boloniako Adierazpena sinatu zutenean 2010erako Goi-mailako

Hezkuntzarako Europar Esparrua ezartzeko xedearekin, Europako unibertsitate-sistemak elkarganatzeko eta alderatzeko, Europa osoan enplegagarritasuna, mugikortasuna eta unibertsitate-tituluen aintzatespena erraztuz. Orain arte Europako 46 herrialde ari gara ekimen horretan parte hartzen.

**Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruak honako helburu hauek ditu:**

- Graduko, masterreko eta doktoregoko ikasketak alderatzeko moduko sistema bat.
- Ikasleen lanaren eta ikasketen neurri bat, neurtzeko eta transferitzeko erraza, europar kreditua deiturikoa, *ECTS: European Credit Transfer System*.
- Europako eta nazioarteko mugikortasuna.
- Unibertsitateko erakunde eta titulazioen kalitatearen bermea.
- Edozeinek, bere aukera ekonomikoak edozein izanik ere, unibertsitatean sartzeko aukera izatea.

Hezkuntza-sistemen elkarganatze-testuinguru horren barnean, halaber, lortutako kualifikazioak berdindu nahi dira. Horregatik, Europar Batasunak ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO PRESTAKUNTZEN EUROPAR ESPARRUA (EQF) ezarri du. erreferentziazko europar sistema komuna da, eta prestakuntzen esparru eta sistema nazional desberdinak lotuko ditu elkarren artean. Praktikan itzulpen-mekanismo baten antzera jardungo du, prestakuntzak errazago interpretatzeko aukera emango duena. Hori laguntza handikoa izango da ikasteko prozesuan murgilduta dauden pertsonentzat eta beste herrialde batera lanera joan nahi duten langileentzat. Sistema horri esker, pertsonek, enpresek eta hezkuntza- eta prestakuntza-zentroek hainbat herrialdetako kualifikazio indibidualak eta hainbat prestakuntza-eta hezkuntza-sistema alderatzeko aukera izango dute. Etengabeko ikaskuntza sustatzeko tresna den heinean, EQF sistemak irakaskuntza orokorra eta helduen irakaskuntza hartzen ditu eraginpean, baita lanbide-heziketa, lanerako prestakuntza eta goi-mailako hezkuntza ere.

**GOI MAILAKO HEZKUNTZARAKO EUROPAR ESPARRUA**

www.eees.es/

BOLONIA PLANA

Hezkuntza Ministerioaren web-orria, Espainian Bolonia plana aplikatzeko moduari buruzko informazioa eskaintzen duena. Informazio interesgarria planak bigarren mailako hezkuntzan duen eraginari buruz.
http://bolonia.fecyt.es

## 5.4. PRESTAKUNTZA ETA TITULUEN ONARPENA

Besteak beste, harrerako herrialdean zure prestakuntzak aintzatesteko zer egin behar duzun jakin behar duzu. Oso premisa erraz batetik abiatzen da: zure jatorriko herrialdean lanbide jakin batean jarduteko prestatuta bazaude, Europar Batasuneko
gainerako herrialdeetan jarduteko ere prestatuta zaude.

Lanbide-kualifikazioak dituztenentzat, lanbidea arautua dagoen edo ez jakitea da funtsezkoena. Hortaz, honako bi egoera hauek gerta daitezke:

1. **Zure lanbidea arautu gabe dago lan egin nahi duzun herrialdean.**
   Kasu horretan, ez dizute zertan titulua onartu, ezin izango delako eragozpen juridikorik alegatu zure prestakuntzari loturik bertan lan egitea galaraziko dizunik. Baina helmugako herrialdean lanbide horri dagozkion beharrezko prozedura guztiak errespetatu beharko dituzu, zuretzat ohikoak direnen desberdinak izan daitezkeela aintzat hartuta.
2. **Zure lanbidea arautua dago.**
   Kualifikazio jakin batzuk dauzkatenei bakarrik dagozkienak dira arautotako lanbideak (abokatuak, kontulariak, irakasleak, ingeniariak, osasun-laguntzaileak, medikuak, haginlariak, albaitariak, kirurgialariak, farmazialariak eta arkitektoak, esaterako).
   Kasu horretan titulazioa automatikoki onartuko dizute normalean, eta, ondorioz, edozein estatu kidetan lan egiteko aukera izango duzu.

Harrerako herrialdean arautotako lanbide batean jardun nahi baduzu (irakaslea, ingeniaria, psikologoa, abokatua eta abar), zure titulua baliozkotzeko eskaera egin behar diezu lan egin nahi duzun herrialdean eskumena duten agintariei. Agintari horiek lau hilabeteko epea izango dute erantzuteko, eta, iraupenari edo epeari dagokienez garrantzizko aldeak aurkitzen badituzte zure prestakuntzaren eta harrerako herrialdean eskatzen dutenaren artean, agian lanbide-esperientzia eskatuko dizute zure prestakuntzaren osagarri, edo bestela egokitze-ikastaro bat edo gaitasun-proba bat egiteko eskatuko dizute.
Gogoan hartu betekizun osagarri horietako bat bakarrik eskatzeko aukera dutela.

Normala denez, zure benetako kualifikazioen eta esperientzia profesional osoaren aintzatespena lagungarri izan daiteke beste estatu kide batean lortutako tituluak baliozkotzeko.

Gaur egun, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak du tituluak homologatzeko eskumena, eta, hortaz, horra jo beharko duzu horri buruzko zalantzak argitzeko.

### LANBIDE PRESTAKUNTZEN ZUZENTARAUA: ERABILTZAILEAREN GIDA

Gidaren helburua honako hau da: lan-jarduera batean aritzeko, lanbide-kualifikazioak beste estatu kide batean aintzatetsi nahi duten herritarrak babesteko eskubideak azaltzea, modu errazean eta galdera-erantzunen bitartez. Informazio osoa eskaintzen du lanbide-kualifikazioen aintzatespenari buruz.
http://ec.europa.eu/internal_market/qualifications/docs/directive-in-practice/useful-documents/users_guide_es.pdf

### ATZERRIAN EGIAZTATU BEHAR DIREN ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKADIKO AGIRI AKADEMIKO OFIZIALEN LEGALIZAZIOA

Unibertsitatekoak ez diren titulu eta agiri akademiko ofizialak atzerrirako legalizatzeko izapideei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzako webgunean aurki dezakezu. Ohiko galderei eta araudiari buruzko atalak daude, bai eta sinadurak aintzatesteko eta agiriak legalizatzeko jarraibideak ere.
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dif9/eu_5494/acreditacion_extranjero_e.html

## 5.4.A. NARIC SAREA

### NARIC, EB-KO BESTE HERRIALDE BATEAN LAN EGITEKO EDO IKASTEKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA ETA AINTZATESPENA

Naric sareak informazioa eskaintzen dizu Europar Batasuneko edozein herrialdetan ikasteko unibertsitate-titulua homologatu nahi baduzu. Oinarrizko informazioa jasotzeko gunea ere bada, Europar Batasuneko beste estatu kide batean lan egiteko lanbide-onarpen bat lortu nahi duten pertsonentzat. Naricen abantaila da sarean lan egiten duela, eta, horrela, erabiltzaileari eskainitako informazioa, zuzenean, interesatzen zaion herrialdetik datorrela.

### NARIC: UNIBERTSITATEKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA

Naric sarea balio handikoa izan daiteke zuretzat, zure unibertsitate-titulua nola homologa daitekeen jakin dezazun, Europar Batasuneko beste herrialde batean aintzatetsia izan dadin. Europar Batasuneko herrialde kide bakoitzak bere homologazio-sistema dauka, eta horregatik, prozesua ezagutzeko eta zer dokumentu eskatzen dizkizuten jakiteko, hobe duzu Naric korrespontsalarekin harremanetan jartzea titulua homologatu nahi zenukeen herrialdean, korrespontsal horiek orientatu behar zaituztelako homologazio- eta izapidetze-prozesu osoaren inguruan. Korrespontsal horrekin harremanetan jartzeko zalantzak edo zailtasunak badituzu, jo ezazu Naric sareak Espainian duen korrespontsalarengana, bitartekari jardun dezan.

### NARIC: LANBIDE AINTZATESPENA

Europar Batasuneko beste herrialde batera lanera joan nahi baduzu eta zure titulua lanbide-xedeetarako bakarrik onartzea nahi baduzu (eta ez xede akademikoetarako), onena duzu zure tituluaren lanbide-aintzatespena eskatzea. Estatu kide bakoitzak bere lanbide-aintzatespenen sistema dauka, eta horregatik, berriz, ere, onena duzu Naric korrespontsalarekin harremanetan jartzea titulua onartzea gustatuko litzaizukeen herrialdean. Zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan Naric sareak Espainian duen korrespontsalarekin (behean dauzkazu haren datuak), bitartekotza-lanaren ardura har dezan. Gainera, horrelako aintzatespenengatik ez da inolako tasarik ordaindu behar.

NARIC SAREA:
www.enic-naric.net/index.aspx

NARIC ESPAINIA:
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa
Tituluen, Aintzatespenen eta Kualifikazioen Zuzendariordetza Nagusia.
Paseo del Prado, 28 - 28014 Madril.
Tel: 00 34 91 506 55 93 Faxa: 00 34 91 506 57 06
E-mail: naric@mecd.es
Web: http://www.mecd.gob.es/naric
Harremanetarako: Belén Hernández / Antonio J. Lara

## 5.5. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMA

Europar Batasunak zenbait hezkuntza-programa jarri ditu abian ikasleen prestakuntza eta mugikortasuna sustatzeko. Horri esker, gaur egun milioika gaztek aukera dute, karrera amaitutakoan, doktorego-ikasketak edo praktikak egiteko jatorrikoaz bestelako europar herrialde batean.

Etengabeko ikaskuntzako programa europar finantziazio-mekanismo nagusia da hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean. Lehen aldiz programa bakar batek ikaskuntza-prozesu osoa hartu du bere gain, haurtzarotik helduarora bitarte. 7000 milioi euroko aurrekontua du, EBren barruko hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen artean mugikortasuna, lankidetza eta trukea sustatzen dituzten jarduera eta proiektuak finantzatzeko, munduko kalitateko erreferentzia bihur daitezen.

Besteak beste, honako azpiprograma hauek osatzen dute programa hori:

- COMENIUS. Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza.

- LEONARDO DA VINCI. Lanbide-heziketako ikasleak, langileak eta tituludun berriak
- ERASMUS MUNDUS. EBtik kanpoko herrialdeekiko irakaskuntza- eta lankidetza-programak
- ERASMUS. Goi-mailako hezkuntzako eta hirugarren mailako lanbide-heziketako ikasleak.

Informazio gehiago izateko: EUROPAKO HEZKUNTZA PROGRAMEN ERAKUNDE AUTONOMOA
www.oapee.es/oapee/inicio.html

### 5.5. A. Comenius: haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleak

COMENIUS programa haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleak dituzten ikastetxeentzako programa da. Ikasle-irakasleek Europako dimentsioa duten proiektuetan parte hartzea eta EBko beste herrialde batzuetako ikastetxeekin lankidetzan aritzea du helburu nagusi.
Comenius eskola-elkartean parte hartzen duten ikastetxeen artean bakarrik gara daiteke mugikortasuna. Ikastetxe parte-hartzaileek hautatuko dituzte ikasleak, gutxienez 14 urte eduki behar dituztela aintzat hartuta.

COMENIUS programak diru-laguntzak ematen ditu bi ekintza-ildo handi eta ildo horien barneko jarduerak finantzatzeko:

- Mugikortasun indibiduala, honako hauek barne har ditzakeena: ikasle- eta irakasle-trukeak eta mugikortasuna bigarren hezkuntzako ikasleentzat.
- Eskola-elkarteak ikastetxeen artean, ikasle eta irakasleentzako baterako hezkuntza-proiektuak garatzeko.

### 5.5. B. Leonardo da Vinci: lanbide heziketarako mugikortasun programak

LEONARDO DA VINCI programak lanbide-heziketan eta -hezkuntzan inplikatutako pertsona guztien (ikasleak, irakasleak eta abar) eta prestakuntza hori bideratzen edo eskaintzen duten erakunde eta instituzio guztien irakaskuntza- eta ikaskuntza-premiak betetzea du xede.

LEONARDO DA VINCI programak honako mugikortasun-ekintza hauetarako dirulaguntzak ematen ditu:

- INITIAL VOCATIONAL TRAINING (IVT): nazioz haraindiko egonaldiak enpresetan edo prestakuntza-zentroetan, hasierako lanbide-heziketan diharduten pertsonentzat. Goi-mailako prestakuntza zikloetan ikasten duten ikasleak eta lanerako prestakuntzako ikastaroetan parte hartzen dutenak talde horretatik kanpo daude.

- PEOPLE IN THE LABOUR MARKET (PLM):
nazioz haraindiko egonaldiak enpresa edo prestakuntza-zentroetan, lanbide-heziketako edo –hezkuntzako maila jakin bat lortu ondoren, lan-merkatuan (zerbitzu aktiboan zein langabezian) dauden langileentzat. Talde horren barnean hartzen dira, halaber, lanerako prestakuntzan parte hartzen duten pertsonak, goi-mailako lanbide-heziketako tituludunak eta unibertsitateko ikasleak.
- VOCATIONAL EDUCATION AND TRAINING PROFESSIONALS (VETPRO):
egonaldiak, trukeak eta mugikortasuna lanbide-heziketako eta –hezkuntzako profesionalentzat. Talde horren barnean honako hauek hartzen dira: irakasleak, hezitzaileak, lanbide-heziketako langileak, orientazio-aholkulariak, prestakuntza-zentroen arduradunak eta enpresetan lan-orientazioa eta prestakuntza planifikatzeko ardura dutenak.

NOLA LORTU LEONARDO DA VINCI BEKA BAT

LEONARDO DA VINCI programaren beka bat lortu nahi baduzu, irakurri arretaz OAPEEren barnean hartutako dokumentua.
www.oapee.es/oapee/inicio/pap/leonardo-da-vinci/Como-obtener-una-beca.html

### 5.5.C. Erasmus Mundus: Eb-tik kanpoko herrialdeekiko irakaskuntza- eta lankidetza-programak

Erasmus Mundus: Europar Batasuneko lankidetza- eta mugikortasun-programa zabala da. Europako goi-mailako hezkuntzarekiko interesa eragin nahi du mundu osoan, Europa eredu “nagusi” gisa finka dadin hezkuntzaren sektore horri dagokionez. Ikasle-trukeak sustatzen ditu Europako unibertsitateen eta mundu osoko herrialdeen artean, eta baterako hainbat programa ere bultzatzen ditu.

ERASMUS MUNDUS
http://ec.europa.eu/education/external-relation-programmes/doc72_en.htm

### 5.5.D. Erasmus: Goi mailako ikasketak edo lanbide praktikak eb-ko beste herrialde batean

ERASMUS hezkuntza-programa bat da, eta, hori ez ezik, gizarte- eta kultura-fenomeno bat ere bada. Tolerantziaren aldeko gunea sortzen du, eta gazteak naturaltasunez eta erraztasunez elkartzea ahalbidetzen du. 1987an abian jarri zenez geroztik, bi milioi ikaslek baino gehiagok hartu dute parte Erasmus programan, eta unibertsitateen trukerako munduko programa nagusia dela esan dezakegu.

Parte-hartzaileen artean irekitasunerako eta tolerantziarako gune bat sortzea da ERASMUS programaren helburu nagusia, hainbat nazionalitatetako gazteak naturaltasunez eta erraztasunez nahasteko bitartekoak jarriz. Gainera, kulturen arteko elkarrizketa sustatzen du, eta gazteak animatzen ditu “europar” pentsamoldea eduki dezaten, ikasterakoan ez ezik, lan egiterakoan ere mugikortasuna erraztuz.

Erasmus programak 3 milioi ikasle bilduko ditu 2012an, ikasle bakoitzari atzerrian esperientzia bat bizitzeko aukera eskainiz.

### Nork har dezake parte Erasmus programan?

- Ikasketak zabaldu nahi dituzten ikasleek: ikastaldia egiten dute Europako beste herrialde bateko goi-mailako hezkuntzako erakunde batean.
- Ikasleak praktiketan: praktikaldia egiten dute Europako beste herrialde bateko enpresa edo erakunde batean.
- Goi-mailako hezkuntzako erakundeetako eta enpresetako irakasleak eta langileak.

ERASMUS programak diru-laguntzak ematen ditu mugikortasun indibidualeko honako ekintza hauetarako: Erasmusek estatu kideetako ikasleen lekualdatzeetarako diru-laguntzak ematen ditu, goi-mailako hezkuntza-zentroetan ikasteko edo prestakuntza jasotzeko edota enpresetan, prestakuntza-zentroetan, ikerketa-zentroetan edo bestelako erakundeetan egonaldiak egiteko aukera izan dezaten. Mugikortasun-beka horiek eskatzeko, jarri harremanetan dagozkien unibertsitateekin.

### ERASMUS

Erasmus esperientziei buruz gehiago jakin nahi baduzu, kontsultatu Erasmus ikasleen nazioarteko elkartearen web-orria.
www.esn.org/ [EN]

> OHARRA: Eusko Jaurlaritzak ere Erasmus ikasleentzako bekak eskaintzen ditu, baita nazioarteko unibertsitate-mugikortasuneko eta goi-mailako arte-irakaskuntzetako beste programa batzuetarako bekak ere. Informazio gehiago gidaren 8. atalean, bekei eta praktikei buruzkoan.

## 5.6. PLOTEUS

PLOTEUS (Portal on Learning Opportunities throughout the European Space) Europako esparru osoko ikaskuntza-aukerei buruzko web-ataria da.

PLOTEUS atariaren helburu nagusia honako hau da: ikasleei, enplegu bila dabiltzanei, langileei, gurasoei, orientazioaren alorreko profesionalei eta irakasleei Europan ikasteko moduari buruzko informazioa aurkitzen laguntzea. Eskuragarri dauden hezkuntza-baliabideei buruzko informazioa eskaintzen du atariak, honako eremu hauei dagozkien datu-baseen bitartez:

### IKASTEKO AUKERAK

Europar Batasunean ikasteko eta prestatzeko eskuragarri dauden aukerak. Goi-mailako irakaskuntzako erakunde eta unibertsitateetako web-orriekiko lotura ugari bildu dira atal honetan, baita ikastetxe eta lanbide-heziketako zentroei edota helduentzako hezkuntza-ikastaroei buruzko datu-baseak ere.

*Hezkuntza sistemak:*

> Ezagutu hezkuntza- eta prestakuntza-sistema nazionalak eta garrantzizko beste alderdi batzuk, hala nola atzerriko kualifikazioen eta tituluen aintzatespena, matrikulazio-tasak eta abar. Hezkuntza-mailen, herrialdeen eta herrialde baten barneko eskualdeen arabera eskaintzen da informazioa, hizkuntza horretako hizkuntzan edo ingelesez.

### TRUKEAK ETA LAGUNTZAK:

Europako herrialdeetan eskuragarri dauden truke eta bekei buruzko programak (Comenius, Erasmus, Leonardo da Vinci, Grundtvig, Youth in Action). Bekak nola eskatu, harremanetan norekin jarri eta abar. (Informazioa herrialdeko hizkuntzan dator, eta zenbaitetan ingelesez).

### HARREMANETARAKO HELBIDEAK:

Informazioa eskaintzen du informazio jakin bat bilatzeko lanean lagungarri izan daitezkeen kontaktuen inguruan (bilaketa herrialdeen eta hezkuntza-mailen arabera).

### HERRIALDE BATERA JOATEKO:

Atzerrira, Europako beste herrialde batera bizitzera mugitu aurretik jakin behar duzun guztia: bizitzaren kostua, hezkuntza-gastuak, ostatua nola aurkitu, legeesparrua eta Europako herrialdeei buruzko bestelako informazio orokorrak. Herrialdeen arabera eta herrialde baten barneko eskualdeen arabera.

PLOTEUS
http://ec.europa.eu/ploteus/

## 5.7. TRUKEAK ETA IKASTETXEEN ARTEKO ELKARLANA

### 5.7.A. Prestakuntza eskolan

ETWINNING EUROPEAN PORTAL
eTwinning atariak eskola-lankidetza sustatzen du IKTen bitartez, Europako ikastetxeak eta ikasleak elkar daitezen edozein gairi buruzko proiektuetan elkarrekin lan egiteko.
www.etwinning.net/

ESKOLA ELKARTUAK AURKITZEKO
Webgune honetan, EBko eskolekin trukatzeko eskaera indibiduala sar dezakezu. www.aede.eu/ [EN]

EURYDICE
EBko eta Europako beste herrialde batzuetako hezkuntza-sistemei buruzko informazioa aurkituko duzu helbide honetan. Herrialde bakoitzeko informazioa ingelesez eta dagokion herrialdeko hizkuntzan dago.
http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/[EN] [FR][DE]

KULTURA ARTEKO IKASKUNTZARAKO EUROPAKO FEDERAZIOA
Bigarren hezkuntzako ikasleei beste herrialde batean ikastea eta harrerako familia batekin bizitzea ahalbidetzeko programei buruzko informazioa. Iraupen laburreko eta luzeko trukeak.
www.efil.afs.org/ [EN]

### 5.7.B. Lanbide heziketa

LANBIDE HEZIKETAKO EUROPAKO ELKARTEA
Nabigatu orrialde elkarreragilean barrena eta bilatu EVTAk Europa osoan eskaintzen dizkizun prestakuntza-zentroak. www.evtaecosystem.eu/ [EN]

LANBIDE HEZIKETA ONLINE
Zure aisialdian lanbide bat ikasi nahi duzu? Direktorio honetan, LHko online ikastaroen eta ziurtagiriak lortzeko programen hainbat hornitzaile aurkituko dituzu, gogoko duzun aukera hautatzeko lagungarri.
www.worldwidelearn.com/career-training/vocational-training.htm

VO-TECH SCHOOLS
Prestakuntza teknikoa online jaso nahi baduzu, kontsultatu online eskola teknikoei buruzko atari hau, eta graduazio teknikoetarako programak eta online prestakuntza teknikoa aurkituko dituzu bertan.
www.vocational-technical-schools.com/online [EN]

Youth@Europeantrainingvillage

Lan-prestakuntza txikiko gazteentzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuei, mugikortasunari eta lanbide-prestakuntzari buruzko informazio bila zabiltza? Webgune honek lanbide-prestakuntzari buruzko hainbat txosten, estatistika eta azterlan aurkezten dizkizu.
www.cedefop.europa.eu/EN/Index.aspx [EN]

### 5.7.C. Unibertsitatean ikasteko

EUROPEAN UNIVERSITY ASSOCIATION:
Europako Unibertsitateen Elkartearen web-orria, Boloniako prozesuari buruzko hainbat artikulu eta txosten biltzen dituena. www.eua.be/Home.aspx

EURYDICE - The Education Information Network In Europe:
Europako hezkuntzari buruzko informazio-sarea.
http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/index_en.php [EN][FR][DE]

DIPLOMAREN OSAGARRIA:
EBren webgunea, goi-mailako irakaskuntza-tituluari atxikitako dokumentuari buruzkoa, prestakuntzen (tituluak, diplomak, ziurtagiriak eta abar) onarpen akademikoa eta profesionala errazteko eta nazioarteko «gardentasuna» hobetzeko helburua duena.
ec.europa.eu/education/lifelong-learning-policy/ds_en.htm [EN] [FR][DE]

AEGEE EUROPA
Europako ikasleen diziplina arteko elkarte nagusietako baten webgune honetan askotariko gaiak aurkituko dituzu: kultura-trukea, goi-mailako irakaskuntzako europar dimentsio baten aldeko presio-taldeak, nazioarteko politika, giza eskubideak eta garapen iraunkorra, besteak beste. Udako unibertsitate-programa interesgarri bat ere badu. www.karl.aegee.org/ [EN]

CORDIS:
Ikerketari eta Garapenari buruzko Komunitateko Informazio Zerbitzua
Europako programetan parte hartu nahi duten ikertzaile gazteentzako informazio baliagarria. Informa zaitez europar ikerketa-beketarako diru-laguntzen eta beken inguruan. http://cordis.europa.eu/

NAZIOARTEKO IKASLEENTZAKO TXOSTEN INTEGRATUAK:
Atzerrian ikastera nora joango zaren erabaki behar duzu eta informazio gehiago nahi duzu hautatutako harrerako herrialdearen, hiriaren edo unibertsitatearen inguruan? Webgune honetan informazioa eta laburpenak aurkituko dituzu Europa osoko

berariazko unibertsitate jakinen inguruan, baita ikasleek beren esperientzien berri emateko idatzitako txostenak ere.
www.iris.siu.no/iris.nsf/irisstart [EN]

### NAZIOARTEKO HEZKUNTZARI BURUZKO WEBGUNEA

Doako gida, beste herrialde batean ikasteko aukera aintzat hartu duten mundu osoko ikasleentzako informazioa, aholkuak eta aukerak biltzen dituena. Honako hauek guztiak biltzen ditu: unibertsitateen gida bat, bilatzaile bat, ikasleen profilak eta nazioarteko hezkuntzaren eremuko aldizkari nagusietako artikuluak.
www.intstudy.com [EN]

### Studyabroad.Com

Atzerriko ikasketa-programak bilatzeko tresna aproposa. Urtearen edo seihileko akademikoaren, udako ikastaroen, hizkuntzen edo gaien arabera bila dezakezu, edo bestela herrialdeetako hasierako orrietara jo dezakezu herrialde bakoitzari buruzko berariazko informazioa aurkitzeko. www.studyabroad.com [EN]

### UNESCO: IKASKETAK ATZERRIAN

Atzerrian egiteko ikasketei buruzko berariazko gunea hezkuntza-sistemak, aintzatespena, ikerketa-bekak eta bestelako informazio baliagarriak. Kontsultatu atzerriko ikasleentzako bigarren mailakoen ondoko ikasketetarako UNESCOren nazioarteko gida eta 129 herrialdetako goi-mailako irakaskuntzako erakundeek eskainitako bekak. www.unesco.org/new/en/education/ [EN]

### Worldstudent.com

Beste herrialde batean ikasteko jakin behar duzun guztia. Aukeratu nahi duzun herrialdea, eta informazio orokorra lortuko duzu herrialdeari buruz, hezkuntzaerakundeei buruz, finantziazioari buruz eta gai praktikoei buruz, hala nola ostatua edo osasuna.
www.worldstudent.com/uk/studyabroad/index.shtml

### iAgora: ERASMUS PROGRAMEI ETA ATZERRIKO IKASKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

Atzerrira ikastera zoaz eta aholku praktikoen bila zabiltza? Ezagutu ERASMUS edo CEMS esperientziak eta ikasleen nazioarteko trukeetarako beste zenbait ekimen. Bestela, bat egin ikasle komunitatearekin iAgora webgunean.
www.iagora.com/istudy/index.html [EN]

### Braintrack UNIBERTSITATE AURKIBIDEA

170 herrialdetako unibertsitateen, institutu politeknikoen, akademien eta goi-mailako irakaskuntzako bestelako erakundeen helbide elektronikoetarako ataria.
www.braintrack.com [EN]






# 6. CV-A ETA EUROPASS


## 6.1. CURRICULUM VITAE-A ETA AURKEZPEN GUTUNA 105

## 6.2. EUROPASS 106

6.2.A. Europass curriculum vitae-a (Europass cv -a) 107

6.2.B. Europass hizkuntza pasaportea 107

6.2.C. Europass mugikortasun dokumentua 108

6.2.D. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria 109

6.2.E. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria 109

## 6.3. YOUTHPASS 110

# 6. CV-A ETA EUROPASS

## 6.1. CURRICULUM VITAE-A ETA AURKEZPEN GUTUNA

Curriculum vitaea, enplegu bat lortzeko gure “bisita-txartela” da. Hortaz, dokumentu labur batean, nor zaren eta zer lanbide-ibilbide egin duzun adierazten ahalegindu behar duzu. Europar eredua da curriculuma egituratzeko egokiena, baina originala izaten eta zure nortasuna erakusten ahalegindu behar duzu, enplegu-emaileak irudika dezan lerro horiek idatzi dituen pertsona.

Aurkezpen-gutuna curriculum vitaearekin batera doan dokumentua da, norberak bere burua aurkeztekoa. Agurretik interesa piztu behar duzu zure hautagaitza jaso behar duen pertsonarengan, zure curriculumaren ezaugarri pertsonal edo profesional nagusiak nabarmenduz eta enpresak eskatutako profilarekin bat etorriz.
Testu laburra eta zuzena behar du aurkezpen-gutunak, idatzi duenak ideiak garbi dauzkala adierazten duena eta enplegu-emailea zure curriculuma irakurtzera eta jarraian zu ezagutzera bultzatzeko gauza.

Curriculum vitaeak eta aurkezpen-gutunak egiteko moduari buruz dokumentu ugari daude eskuragarri. Zure europar curriculum vitaea egiteko asmoa baduzu, gida honetan balio handiko baliabide bat jarri dugu zure eskura.

### CURRICULUM VITAE -A ETA AURKEZPEN GUTUNA HERRIALDEEN ARABERA

SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak informazioa eskaintzen du EBko zenbait herrialdetan curriculum vitaea eta aurkezpen-gutuna egiteko jarraibide orokorren inguruan, eta CVen eta aurkezpen-gutunen zenbait eredu ere aurkezten dizkizu, dagozkien hizkuntzetan. Laguntza handikoak izango dira zuretzat, berariazko ezaugarrien berri ematen dizutelako, herrialdearen arabera.
www.sepe.es/contenido/empleo_formacion/eures/info_trabajadores/eu0102.html

### EUROPASS CV-A PRESTATZEKO AHOLKU PRAKTIKOAK

Almeriako Diputazioaren Europako proiektuen arloak Europako herritartasun-gida jartzen du zure eskura. Bertan, hainbat aholku praktiko eta jarraibide aurkituko dituzu Europass CVa eta aurkezpen-gutuna prestatzeko. Gainera, enpleguari buruzko ingelesezko hiztegia ere badakar.

http://www.dipalme.org/Servicios/Informacion/Informacion.nsf/aff1dd050488813ac1256ae10033dfd3/b12ac6a4a125beb7c125744e00371996/$FILE/GUIA%20CIUDADANIA%20ACTIVA.pdf

### TITULUEN AINTZATESPENA

Zure CVa idaztean, kontuan hartu kualifikazioen eta tituluen aintzatespenari buruzko informazioa jaso behar duzula. Hau da, harrerako herrialdean zure lanbidea arautua dagoen jakin behar duzu, baita zure titulazioak bertan zer balio duen jakin ere. Horretarako, jar zaitez harremanetan Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioarekin edo NARIC sarearekin, eta bertako arduradunek informazioa emango dipute EBko estatu kide guztietako aintzatespen akademiko eta profesionalaren inguruan:
www.enic-naric.net/

> OHARRA: Gidaren 5. atalean, EBko prestakuntzari buruzkoan, informazio gehiago aurki dezakezu tituluak baliozkotzeko moduari dagokionez..

## 6.2. EUROPASS

Beste herrialde batean hezkuntza- edo prestakuntza-programa batean matrikulatzeko, enplegua bilatzeko edo atzerrian lan-esperientzia bat edukitzeko asmoa baduzu, zure gaitasunak eta trebetasunak erraz ulertzeko moduan aurkezteko gauza izan behar duzu.

Europass sistema berriari esker, honako zeregin hauek errazagoak dira herritarrentzat:

- gaitasun eta kualifikazio pertsonalak Europa osoan aurkeztea (Europar Batasuna, AELC/EEE eta herrialde hautagaiak), aise ulertzeko moduan;
- Europa osoan barrena mugitzea eta lan egitea.

Europass sistemak bost dokumentu biltzen ditu:
Interesdunak bere kabuz egin ditzakeen bi dokumentu;

1. Europass curriculum vitaea (CV)
2.-Europass hizkuntza-pasaportea

Eskumena duen administrazioak egiten eta ematen dituen hiru dokumentu gehiago:

3. Tituluaren edo ziurtagiriaren Europass osagarria
4. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria
5. Europass mugikortasun-dokumentua

## NON ESKURA DITZAKEZUN:

Ereduak eskuratzeko, agiri horiek egiteko edo informazio gehiago lortzeko:
http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/hornav/Introduction.csp?loc=es_ES

## 6.2.A. EUROPASS CURRICULUM VITAE-a (Europass CV-a)

Europass sistemaren dokumentu garrantzitsuena da. Europa osorako estandarizatutako eta normalizatutako curriculum vitaea da, eta, horrenbestez, Europako herritar guztiei aukera ematen die gaitasun eta prestakuntza pertsonal guztiak eredu berean aurkezteko. Gainerako Europass dokumentuak ereduzko dokumentu horri eransteko aukera ere badago.

Europassen web-orrian Europass CVaren ereduak aurki ditzakezu EBko hizkuntza guztietan.
http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/hornav/Downloads/EuropassCV/CVExamples.csp

### Europass CV-aren eredua nola bete behar den:

Hiru aukera dauzkazu eskura:

- Europass CVa online betetzea: Pantailan ageri diren adibide eta jarraibideei jarraiki.
- Europass CVaren dokumentuak deskargatzea: Eredua bete gabe, jarraibideak, adibideak, Europass-en lehen orrialdea.
- Eguneratu zure Europass CVa (XML / PDF + XML): Dagoeneko Europass CV bat eskura baduzu XML / PDF + XML formatuan, hura kargatzeko eta zure datuak eguneratzeko aukera duzu.

### GOMENDIOA

Zure Europass CVa online bete nahi baduzu, prozesuaren amaieran hautatuko duzu zer formatutan deskargatu nahi duzun. Guk honako hau gomendatzen dizugu: deskargatu kopia bat XML / PDF + XML formatuan, nahi duzunean kargatzeko eta datuak online eguneratzeko aukera izan dezazun, eta beste kopia bat formatu editagarrian (Word edo OpenOffice). Bi kopietan, CVa egin den data erantsiko dugu artxiboaren izenean, une oro zure curriculuma gutxi gorabehera noiz eguneratu den jakiteko.

## 6.2.B. EUROPASS HIZKUNTZA PASAPORTEA

Europass hizkuntza-pasaporteak aukera ematen dizu Europan lan egiteko edo prestatzeko funtsezkoak diren zure hizkuntza-gaitasun pertsonalak deskribatzeko.

Europako Kontseiluak sortu du Europass hizkuntza-pasaportea, Hizkuntzen Portfolio Europarrera biltzeko. Beste bi dokumentuk osatzen dute portfolio hori, hain zuzen ere hizkuntza-biografiak eta hizkuntza-dosierrak. Europassen web-orrian hainbat adibide aurki ditzakezu, EBko hizkuntza oficial guztietan.
http://europass.cedefop.europa.eu/es/home

### Nola egin Europass hizkuntza pasaportea:

Curriculumarekin bezala, hiru aukera dauzkazu, eta oso garrantzitsua da EUROPASS CVari buruz eman dizugun gomendioari jarraitzea.

## 6.2.C. EUROPASS MUGIKORTASUN DOKUMENTUA

Europass mugikortasun-dokumentua dokumentu pertsonala da. Titularrak jatorrizkoaz bestelako herrialde europar batean egindako berariazko ikastaldia erregistratzen du dokumentu horretan, bere esperientziak —eta, bereziki, jasotako gaitasunak— hobeto komunikatu ahal izateko.

Besteak beste, ikastaldiaren barnean honako hauek har daitezke:

- enpresa batean egindako lan-praktikak;
- ikastaro akademiko bat truke-programa baten barnean;
- aldi baterako borondatezko lana GKE batean.

Bi zentro elkartuk, batak jatorrizko herrialdean eta besteak harrerakoan, ikuskatzen dute mugikortasun-esperientzia. Bien artean, esperientziaren iraupena, edukiak eta helburua zehazten dituzte; gainera, harrerako herrialdeak tutore bat hautatzen du. Unibertsitateak, eskolak, prestakuntza-zentroak, enpresak, GKEak eta abar izan daitezke ekimen horren zentroak.

Europass mugikortasun-dokumentua Europako edozein herrialdetan mugikortasun-esperientzia bat egiten duen orori emateko sortu da, interesdunaren adina edo hezkuntza-maila edozein izanik ere.
Mugikortasun-proiektu jakin batean inplikatutako bi zentroek, nazionalak eta harrerakoak, egin behar dute Europass mugikortasun-dokumentua, interesdunarekin adostutako hizkuntzan.
Europass mugikortasun-dokumentuen adibideak:
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/europassmobility/examples

### Non eskura daiteke?

Jar zaitez harremanetan atzerrira bidali zaituen zentroarekin, eta eska iezaiozu Europass Zentro Nazionalarekin harremanetan jar dadin.
http://europass.cedefop.europa.eu/es/about/national-europass-centres

### 6.2.D. TEKNIKARI TITULUAREN EDO PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAREN EUROPASS OSAGARRIA

Teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria erdi-mailako lanbide-heziketako tituluari edo profesionaltasun-ziurtagiriari erantsitako dokumentua da, hirugarrenei, bereziki beste herrialde bateko erakunde edo enplegu-emaileei, ziurtagiriaren esanahia ulertarazteko sortua, titularrak eskuratutako gaitasunei dagokienez.

Tituluaren/ziurtagiriaren Europass osagarri batean erregistratutako informazioa eskumeneko agintarien eskutik dator, maila nazionalean adostutako prozedurei jarraiki.

### ZER EZ DEN

Teknikari-tituluaren edo profesional-ziurtagiriaren Europass osagarria ezin daiteke inola ere izan:

- titulu edo ziurtagiri ofizialaren ordezkoa;
- automatikoki, agintari akademikoek jatorrizko ziurtagiria edo titulua formalki onartzen dutela bermatzen duen mekanismoa.

### Non eskura daiteke?

Prestakuntza-zentroak ematen du teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria, edo, hala badagokio, jatorrizko titulua edo ziurtagiria emateko ardura duen administrazioak.

— Dagoeneko zenbait herrialdek teknikari tituluaren edo profesional-tasunziurtagiriaren Europass osagarrien katalogo nazionalak sortu dituzte;

— Oraindik horrelakorik eduki ezean, jar zaitez harremanetan zure herrialdeko erreferentziazko puntu nazionalarekin, teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria (zure hizkuntzan edo Ebko beste hizkuntza batean) egin behar dizun erakundea zein den galdetzeko.

Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarriaren adibidea:
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/certificatesupplement/examples

### 6.2.E. GOI-MAILAKO TITULUAREN EUROPASS OSAGARRIA

Goi-mailako tituluaren Europass osagarria lanbide heziketako edo unibertsitateko goi-mailako irakaskuntzako titulu ofizialari erantsitako dokumentua da, hirugarrenei, bereziki beste herrialde bateko erakunde edo enplegu-emaileei, tituluaren esanahia

ulertarazteko sortua, titularrak eskuratutako gaitasunei dagokienez. UNESCOk eta Europako Kontseiluak batera sortu dute goi-mailako tituluaren Europass osagarria.

### ZER EZ DEN

Goi-mailako tituluaren Europass osagarria ez da:

- titulu ofizialaren ordezko bat;
- automatikoki, agintari akademikoek jatorrizko titulua formalki onartzen dutela bermatzen duen mekanismoa.

### Non eskura daiteke?

Jatorrizko titulua eman duen goi-mailako irakaskuntzako zentroak egin behar du goi-mailako tituluaren Europass osagarria.

Goi-mailako tituluaren Europass osagarriaren adibidea:
http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/diploma-supplement

## 6.3. YOUTHPASS

Ziurtagiri bat da, gazteek Gazteak Ekinean programaren esparruko ikaskuntza eta parte-hartzea onartzen eta baliozkotzen duena. Aldi berean, "ikasten ikasteko" pedagogia- eta hezkuntza-tresna bat ere bada.

YOUTHPASS Europako Batzordearen ekimen baten emaitza da. Ikaskuntza ez-formala onartu eta baliozkotzeko europar estrategiaren esparruan garatu da ekimen hori, Gazteak Ekinean programaren testuinguruan.
Une honetan lanean ari dira etorkizunean

YOUTHPASS Europako beste ekimen batzuetan integratzeko, hala nola EUROPASS edo EUROPAKO HERRITARTASUNAREN testuinguruko Europako beste programa batzuk.

YOUTHPASS ZIURTAGIRIAREN WEBGUNEA

www.youthpass.eu/

# 7. EB-N OPOSIZIOAK EGITEKO


## 7.1. EB-N OPOSIZIOAK EGITEKO 113

- 7.1.A. Eb-rako oposizioen inguruko berriak 113
- 7.1.B. Betekizunak 113
- 7.1.C. Izena ematea 114
- 7.1.D. Oposizioetarako kategoriak 114
- 7.1.E. Probak: 2 fase 114

## 7.2. OPOSIZIOAK EGITEKO BALIABIDEAK 115

# 7. EB-N OPOSIZIOAK EGITEKO

## 7.1. EB-N OPOSIZIOAK EGITEKO

Europar Batasunerako lan egitea erronka bat da. Erakunde paregabea da, egiten duen lanarengatik eta eskaintzen duen kultura-aniztasuneko giroarengatik.

Egiten duzun lana egiten duzula, erakundea tamainaz nahiko txikia izaki eta Europar Batasuneko jardueren aniztasuna dela medio, zure lanbide-karreraren hasiera hasieratik garrantzizko erantzukizunak har ditzakezu hainbat alorretan.

2010. urteaz geroztik, Langileak Hautatzeko Europako Bulegoak arauak eta azterketak aldatu ditu profesional onenak gardentasunez, azkartasunez eta eraginkortasunez bilatzeko. Plaza baterako oposizioak egiteko zer egin behar duzun jakinaraziko dizugu hemen, eta alor horretako berri nagusiak jakinaraziko dizkizugu.

Langileak Hautatzeko Europako Bulegoak berriz ere diseinatu ditu EBko funtzionarioa izateko oposizioetako probak. Prozesua azkartzeko eta fidagarriagoa egiteko ahalegina izan da, hautagaien gaitasunei eta egokitzapenari lehentasuna emanez jakintzaren edo memorizazioaren aurretik. Langileak Hautatzeko Europako Bulegoaren arduradunetako batek, Koen Hendrixek, ziurtatu duenez, “Europako onenak aurkitu nahi ditugu, eta horretarako sistema eguneratu egin dugu nazioarteko merkatuetan eremu pribatuan langileak hautatzeko erabiltzen diren mekanismoei jarraiki. Batez ere, lehiakortasuna bilatzen dugu”. 2011an, guztira, 1300 plazaren deialdia egin da. Ondoren, jarraitu beharreko urratsen berri emango dizugu.

### 7.1. A. EB-rako oposizioen inguruko berriak

- Deialdi bakar bat urtean kategoria bakoitzeko, data finkoarekin.
- Oposizio-prozesuaren faseak murriztu dira. 15 hilabetetik gora izatetik 9 hilabete izatera.
- EBren jakintzari buruzko probak kendu dira.

### 7.1. B. Betekizunak

- Europar Batasuneko 27 estatuetako bateko (2013ko maiatza) herritarra izatea.
- EBko bi hizkuntza ofizialetan ongi hitz egitea, horietako bat ingelesa, frantsesa edo alemana izanik.
- Deialdiak eskatutako kualifikazioen jabe izatea.

### 7.1. C. Izena ematea

www.eu-careers.eu webgunean online kontu bat ireki behar da, eta, jarraian, hautagaitzan izena eman. Zure informazio pertsonal eta profesionalaren berri eman eta Langileak Hautatzeko Europako Bulegoan kontu bat irekiz gero, hautaketa-prozesuen nondik norakoen berri izateko aukera izango duzu, baita zure eskaera berresteko eta hautaketa-taldearekin harremanetan jartzeko aukera ere.

Ondoren, oposizioaren arabera, inprimakia inprimatu eta bidali behar duzu, baldintza orokor eta espezifikoak betetzen dituzula frogatzen duten egiaztagiriekin batera.

### 7.1. D. Oposizioetarako kategoriak

- Administratzailea. Unibertsitate-titulu bat eskatzen da. Ekonomialariak, legelariak, ikertzaileak eta abar.
- Hizkuntzalaria. Unibertsitate-titulu bat eskatzen da. Itzultzaile eta interpreteak.
- Laguntzailea. Bigarren Hezkuntzako titulu bat eskatzen da. Administrari-laguntzaileak, idazkariak, teknikariak eta abar.
- Profil bereziak. Titulazioa, kasuaren arabera. Zientzialariak, ikuskatzaileak eta abar.

### 7.1. E. Probak: 2 fase

- *Eskatzaile guztientzat:*

  Zenbakizko, hitzezko eta abstrakziozko arrazoimena: erantzun anitzeko test informatizatua ingelesez, frantsesez edo alemanez, hitzezko, zenbakizko eta abstrakziozko arrazoimena eta lanbide- eta hizkuntza-egokitzapenerako gaitasuna ebaluatzeko.

- *Eskatzailearen jatorrizko herrialdean egiten da:*

  Lehen proba gainditzen dutenenetzat: Idatzizko proba, honako hauei buruzkoa: arazoak aztertu eta konpontzea, komunikatzeko, lehenesteko eta antolatzeko gaitasuna, lanbide-prestakuntza eta –garapenerako prestasuna, talde-lana eta abar. Gainera, eskatutako plazari dagokionez jakin beharrekoei buruzko proba bat egingo da, baita hizkuntza-proba bat ere, hizkuntza nagusiari (ama-hizkuntza) eta bigarren hizkuntzari buruzkoa (azterketa guztiak bigarren hizkuntza horretan egin beharko dituzu).

  - Talde-dinamika (administratzaile izateko hautagaitzarako)
  - Ahozko aurkezpena (administratzaile izateko hautagaitzarako)
  - Elkarrizketa, Bruselan egun bakarrean egitekoa.

## 7.2. OPOSIZIOAK EGITEKO BALIABIDEAK

### LANGILEAK HAUTATZEKO EUROPAKO BULEGOA

Langileak hautatzeko prozesuak egiten ditu organo horrek, eta, gainera, Europar Batasuneko instituzio eta organoen aldi baterako eta etengabeko lan-aukerei buruzko informazioa ematen du. Europar Batasuneko lanbide-aukerei buruzko informazioa aurkituko duzu webgune honetan. Webgunea bisitatuz gero, hautagaitzaren prozeduren berri izango duzu eta galdera ohikoenen erantzunak aurkituko dituzu. Gainera, informazio osagarria lortzeko nora jo behar duzun esango dizute.
http://europa.eu/epso

### ESPAINIAREN ORDEZKARITZA OROKORRA EB-N

Informazioa Espainiak EBn duen ordezkaritza iraunkorraren web-orrian. Oposizioei, praktikei, kontratuzko agenteei, adituei, plaza hutsei eta Europako curriculumari buruzko informazioa eskaintzen du. Europar Batasuneko oposizioak prestatzen ari bazara, Espainiak Europar Batasunean duen ordezkaritza iraunkorrak ikastaroak antolatzen ditu aldian-aldian hautagai espainolei prestaketan laguntzeko. Web-orrian zenbait azterketa-adibide ere eskaintzen dira
www.es-ue.org/Default.asp?lg=2&section=14

### INFORMAZIO OROKORRA

Europako instituzioek oposizio eta lehiaketen deialdiak egiten dituzte Europako funtzio publikoan hutsik dauden plazak betetzeko; hala eta guztiz ere, beste zenbait plaza betetzeko, bestelako prozedurak erabili behar dira. Web-orri honetan, deitutako oposizioak ez ezik, beste zenbait plaza huts ere aurkituko dituzu. Kontsulta ezazu aldian-aldian. Gainera, plaza eskatzean zuretzat baliagarri izango den informazioa aurkitzeko aukera izango duzu.http://ec.europa.eu/spain/trabajar-y-estudiar-en-la-ue/empleo/vacantes-de-empleo/index_es.htm

### EUROPA ATARIA

EBko informazio-iturrien gidak, instituzioetako web-orrietako langileen kontratazioatalekiko zuzeneko loturak eskaintzen ditu.
http://europa.eu/epso/index-en.htm

### OPOSIZIOAK EGITEKO

The European Bookshop web-orrian test moduko galderak biltzen dituzten liburuak dituzu eskura, azterketak prestatzeko. www.libeurop.be/eu-concours.html

### ENPLEGUA ERKIDEGOKO INGURUNEAN

Erkidegoko ingurunean lana bilatzeko bidea errazten du web-orri honek.
www.eurobrussels.com/



# 8. BEKAK ETA PRAKTIKAK




8.1. NAZIOARTEKO BEKAK ETA PRAKTIKAK 117

8.2. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMAREN BEKAK 117

8.3. PRAKTIKAK EUROPAKO INSTITUZIOETAN 119

8.3.A. Instituzio eta praktiken zerrenda 120

8.4. PRAKTIKAK NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN 124

8.5. NAZIOARTEKO PRAKTIKETARAKO BEKAK 125

8.6. PRAKTIKAK KUDEATZEN DITUZTEN BILATZAILEAK ETA WEBGUNEAK 128

# 8. BEKAK ETA PRAKTIKAK

## 8.1. NAZIOARTEKO BEKAK ETA PRAKTIKAK

Atzerrian lan eginez hizkuntza hobetzen laguntzen duten bekak dira. Batzuek ez dute ordainsaririk, baina beste batzuetan gastu pertsonaletarako beka bat hartzen da. Unibertsitateko eta lanbide-heziketako gazte tituludunentzako eta karrerako azken ikasturteetako ikasleentzako bekak dira.

*Ezaugarriak*

- 18 urtetik 30 urtera bitarteko adina eduki behar duzu.
- Maila handia eduki behar duzu herrialdearen hizkuntzan.

*Egin ditzakezun zereginak*

Aldatu egingo dira, zure lanbide-profilaren arabera. Mediku, ingeniari, ekonomialari, soziologo eta abokatuentzako eskaintzak ageri dira, bereziki.

*Prozedura*

Instituzioek, unibertsitateek, lanbide-zentroek edo horietako erakunde laguntzaileek kudeatzen dituzte praktika horietako gehienak. Zeuk ere kudea dezakezu, atzerriko zure lanbide-profileko enpresekin harremanetan jarriko zaituzten enpresa edo agentzia pribatuen bitartez.

> OHARRA: Gidaren 3. atalean, hizkuntzak ikasteari buruzkoan, atzerriko praktikak kudeatzen dituzten agentzia pribatuen zerrenda jaso da.

## 8.2 ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMAREN BEKAK

EBren ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PROGRAMAK bi mugikortasun-programa handi eskaintzen ditu goi-mailako edo lanbide-heziketako ikasketei loturik:

### 1. LEONARDO DA VINCI

Leonardo Da Vinci programa hirugarren mailakoa ez den lanbide-heziketako ikasleentzako programa da, dagoeneko goi-mailako prestakuntza-zikloetako titulu baten jabe direnak alde batera utzita. Europar Batasuneko beste herrialde batean praktikak egiteko bekak eskaintzen ditu.

Zure ikasketa-zentroak informazioa eman diezazuke bi programa horiekiko lankidetza-aukeren inguruan.
www.oapee.es/oapee/inicio/pap/leonardo-da-vinci.html

## 2. ERASMUS

- "Ikasketetarako ikasleak" programak aukera eskaintzen dizu Europako beste herrialde bateko goi-mailako beste ikastetxe batean ikastaldi bat (gutxienez 3 hilabete eta gehienez 12) egiteko. Parte-hartzaileek Erasmus unibertsitate-gutunaren jabe izan behar dute. Finantziazioari esker, gastuei (bidaia, mantenua, ostatua eta abar) aurre egiteko aukera izango duzu.
www.oapee.es/oapee/inicio/pap/erasmus/estudiantes-para-estudios.html

- "Hizkuntza-ikastaro trinkoak" programak, berriz, harrerako herrialdeko hizkuntzarekin laguntzen dizu baldin eta Erasmus ikasketa-beka bat eskaintzen badizute.
www.oapee.es/oapee/inicio/pap/erasmus/EILC.html

- "Praktikak enpresetan ikasleentzat", programak goi-mailako hezkuntzako ikasleak ditu jomugan, eta Europako beste herrialde bateko enpresa edo erakunde batean 3 hilabetetik 6 hilabetera bitarteko egonaldia emateko aukera eskaintzen die (goi-mailako lanbide-heziketa ikasten baduzu, berriz, bi hilabete da gutxieneko iraupena).
www.oapee.es/oapee/inicio/pap/erasmus/estudiantes-para-practicas.html

### EUSKO JAURLARITZAREN ERASMUS BEKAK:

Eusko Jaurlaritzak Erasmus ikasleentzako bekak eskaintzen ditu, baita nazioarteko unibertsitate-mugikortasuneko eta goi-mailako arte-irakaskuntzetako beste programa batzuetarako bekak ere.
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib2/eu_2033/becas_erasmus_e.html

### KUTXABANK ERASMUS BEKAK:

Kutxabank-ek diru-laguntzak banatzen ditu hautagaitza guztien artean.
Kontsultatu betekizunak eta lortu aparteko laguntza bat:
http://becas.bbk.es/cs/Satellite/becasbbk/eu/gure_bekak/heziketa_osatzea/2012_2013_ikasturteko-erasmus

> ! OHARRA: Beka horiei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, EBko prestakuntzari buruzko 5. atalean aurkituko duzu.

## 8.3. PRAKTIKAK EUROPAKO INSTITUZIOETAN

Europar Batasuna eta Europar Batasuneko instituzioak nazioarteko praktika-iturri nagusietako batzuk dira, Europako ikasleentzat, bereziki. EBko garrantzizko ia organo guztiek ikasleentzako praktika-programak antolatzen dituzte, udan edo urteko beste sasoi batzuetan.

### BETEKIZUNAK

Parte hartzeko, Europar Batasuneko Estatu kide bateko nazionala izan behar duzu. Oro har, Europako instituzioetako bekek unibertsitate-lizentziadunak edo lehen ikasketa-zikloa amaitu duten goi-mailako hezkuntzako ikasleak dituzte jomugan.

Hizkuntzak jakitea ere eskatu ohi zaie praktiketarako hautagaiei: gutxienez, ama-hizkuntzaz gain, Europar Batasuneko 23 hizkuntza ofizialetatik beste hizkuntza batez ondo jakitea eskatzen zaie, normalean.

### ORDAINSARIA

Ordaindutako zein ordaindu gabeko praktikak daude; erkidegoko erakunde edo instituzioaren mendean egongo da era batekoa edo bestekoa izatea.

### ARGITALPENA

5 hilean behin argitaratzen dira, normalean. Udazkenean eta udaberrian deialdi bana egiten da normalean, eta, horregatik, hobe duzu aldi horietan instituzioetako praktika-orriak kontsultatzea.

### PRAKTIKEN IRAUPENA

Erakunde edo instituzioaren araberakoa da betiere, baina batez bestekoa bost hilabete da.

### ESKATUTAKO PROFILAK

Zuzenbidean, ekonomia-zientzietan, itzulpengintza eta interpretazioan, kazetaritzan eta ingeniaritzetan lizentziadunak.

### HAUTAKETA PROZESUA

Erakundearen araberakoa da, baina oro har dosier bat betetzeko eta epe jakin baten barnean bidaltzeko eskatuko dizute, adierazitako lanbide-esperientziaren, prestakuntzaren eta merituen kopia ziurtatuak jasota.

## 8.3.A. INSTITUZIO ETA PRAKTIKEN ZERRENDA

### 1. EUROPAKO PARLAMENTUA:

Europako Parlamentuak praktikaldi ugari eskaintzen ditu: ordainduak eta ordaindu gabeak, desgaituentzat, interpreteentzat, itzultzaileentzat eta abar.
www.europarl.europa.eu/parliament/public/staticDisplay.do?language=ES&id=147

### 2. EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA

Praktikak Europar Batasuneko Kontseiluan. Zalantzarik baduzu, jar zaitez haiekin harremanetan honako helbide honetan: stages@consilium.europa.eu
www.consilium.europa.eu/contacts/traineeships-office.aspx?lang=en

### 3. LANBIDE PRAKTIKAK EUROPAKO BATZORDEAN

PRAKTIKA OROKORRAK:
Kazetarientzat eta zuzenbidean eta enpresa zuzendaritzan lizentziadunentzat

Urtero-urtero Europako Batzordeak bosna hilabeteko praktikaldiak antolatzen ditu Europar Batasuneko estatu kide guztietatik eta EBko kide ez diren herrialde hautagaietatik datozen unibertsitarioentzat. Prestakuntzaldi horiei esker, ikasleek lan-esperientzia hartzen dute Europar Batasuneko departamentuetako batean. Urtero, martxoaren 1ean eta urriaren 1ean hasten dira. Europar Batasunean beka bat garatzeko hautatutako pertsona guztiek ordainsari bat jasotzen dute, eta gainera bidaia-gastuak itzuli egiten zaizkie muga baten barruan.

Praktika gehienak Bruselan eta Luxenburgon garatzen dira. Batzuetan, Europako Batzordeak bere herrialde kideetan dituen bulegoetan egin daitezke.
http://ec.europa.eu/stages/index_en.htm [EN][FR][DE]

### 4. EUROPAR BATASUNEKO JUSTIZIA AUZITEGIA

Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiak plaza kopuru mugatu bat eskaintzen du urtero, gehienez bost hilabetean ordaindutako praktikak egiteko.

Bi praktikaldi daude:

- Martxoaren 1etik uztailaren 31ra bitarte (inprimakia urriaren 1a baino lehen bidaliko da), eta
- Urriaren 1etik otsailaren 28ra bitarte (inprimakia maiatzaren 1a baino lehen bidaliko da).

http://curia.europa.eu/jcms/jcms/Jo2_10338/informations-generales

## 5. EUROPAKO KONTU AUZITEGI

Europako Kontu Auzitegiak bi praktikaldi antolatzen ditu zenbait lanbide-profiletarako. Ordaindutako praktikaldiek (1120 euro hilean) bost hilabeteko iraupena dute. Eta ordaindu gabeko praktikaldiak era badaude.
http://eca.europa.eu/portal/page/portal/aboutus/workingatthecourtofauditors/Traineeship

## 6. EUROPAKO ARARTEKOA

Europako Arartekoak praktikak eskaintzen ditu urtean bi aldiz, abokatu-profiletarako, bereziki. Praktikek 4 hilabetetik 11 hilabetera bitarteko iraupena dute, eta Estrasburgon edo Bruselan egiten dira. Irailaren 1ean eta urtarrilaren 1ean hasten dira.
www.ombudsman.europa.eu/trainee/en/rules.htm

## 7. EUROPAKO INBERTSIO FUNTSA

Praktika horiek hautatutako pertsonaren prestakuntzarako garrantzitsua den proiektu bati lotuta daude. Gehienez ere 5 hilabete irauten dute, eta Europako Inbertsio Funtsak Luxenburgon duen egoitzan egiten dira.
www.eif.europa.eu/jobs/internships/index.htm [EN]

## 8. EUROPAKO BANKU ZENTRALA

Praktikei buruzko informazioa ikusteko, hautatu “Job opportunities” menu nagusian.
www.ecb.int/ecb/jobs/apply/html/index.en.html

## 9. BERRERAIKUNTZA ETA GARAPENEKO EUROPAKO BANKUA (EBRD)

Praktiketako langileentzako lanpostuak iragartzen dituzte enplegu-eskaintzen datubasean, baina CVa bidaltzeko eta lanpostu bat ad hoc bilatzeko aukera ere eskaintzen dute.
www.ebrdjobs.com/fe/tpl_ebrd01.asp?newms=info34 [EN]

## 10. LANBIDE PRAKTIKAK ERKIDEGOKO BESTE ERAKUNDE BATZUETAN

EBk espezializatutako eta deszentralizatutako zenbait agentzia sortu ditu Estatu kideei eta herritarrei laguntzeko. Agentzia horietako askok lanbide-praktikak egiteko aukera eskaintzen dute, eta EBko erakundeek baino profil espezifikoagoak eskaintzen dituzte, normalean.

*ERKIDEGOKO AGENTZIAK, HERRIALDEZ HERRIALDE SAILKATUAK*
http://europa.eu/agencies/inyourcountry/index_es.htm

## 11. EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE LANTALDEA

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak bi praktikaldi antolatzen ditu urtean, otsailaren 16an eta irailaren 16an, bosna hilabeteko iraupenarekin.
www.eesc.europa.eu/organisation/tgj/trainees/index_en.asp

## 12. ESKUALDEETAKO LANTALDEA

Praktikak bi alditan banatzen dira: otsailaren 16tik uztailaren 15era bitarte, eta irailaren 16tik otsailaren 15era bitarte.
http://cor.europa.eu/en/about/traineeships/Pages/traineeships.aspx

## 13. HIZKUNTZA MODERNOEN EUROPAKO ZENTROA

Hizkuntza Modernoen Europako Zentroaren lan-metodologia ezagutaraztea da praktika horien helburu nagusia, baita Hizkuntza Modernoen Europako Zentroaren lan-arlo guztiei lotutako proiektuak biltzen dituzten jarduerak garatzea ere. Praktikak Grazen (Austria) egiten dira, hain zuzen ere Hizkuntza Modernoen Europako Zentroaren egoitzan. Graduondoko prestakuntza-maila duten eleaniztunentzako praktikak dira, eta 3 hilabetetik 6 hilabetera bitarteko iraupena dute.
http://traineeship.ecml.at/ [EN][FR]

## 14. EUROPAKO INBERTSIO BANKUA

Urtebete baino gutxiagoko lanbide-esperientziako duten unibertsitate-lizentziadunentzako praktikak eskaintzen ditu. Askotariko profilak aukeratzen dituzte.
www.eib.europa.eu/about/jobs/internship/index.htm [EN][FR][DE]

## 15. ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIA

Praktikaldiak antolatzen dira urtean bi bider. 8 aste eta 5 hilabete bitarteko iraupena dute.
www.echr.coe.int/ECHR/EN/Header/The+Court/How+the+Court+works/Employment+and+traineeships/ [EN][FR]

## 16. EUROPAKO ESPAZIO AGENTZIA

Graduatuentzako programa, urtebeteko lanbide-praktikaldia eskaintzen duena Europako Espazio Agentziaren mendeko zentroetako batean: ESTEC European Space and Technology Center Herbehereetan; ESOC European Space Operations Center Alemanian, ESRIN ESA Center Italian, edo ESA HN Parisen, kultura anitzeko giro batean.
www.esa.int/Education/Gaining_experience [EN]

### 17. ROBERT SCHUMAN BEKAK

Ordaindutako praktikak unibertsitateetako edo maila baliokideko zentroetako tituludunei erreserbatzen zaizkie, ikasketa-garaian ikasitakoa osatzeko eta Europar Batasuneko eta, bereziki, Europako Parlamentuko jarduerarekin ohitzeko aukera izan dezaten. Ordaindutako praktikaldiak honako hauek dira: Robert Schuman bekak, aukera orokorra; eta Robert Schuman bekak, kazetaritza-arlokoak.
www.europarl.europa.eu/parliament/public/staticDisplay.do?id=147&pageRank=2&

### 18. ASIARAKO ETA OZEANO BARERAKO BATZORDE SOZIOEKONOMIKOA

Erakunde honen eguneroko jarduna ezagutu nahi duten graduko ikasleei zuzendutako bekak.
http://www.un.org/esa/socdev/unyin/internships.htm [EN]

### 19. BRUJASKO EUROPA IKASTETXEA

Brujasko Europa ikastetxeak deitutako graduondoko ikasketak egiteko bekak.
www.coleurope.eu/template.asp?pagename=admisintro [EN][FR]

### 20. FLORENTZIAKO EUROPAKO UNIBERTSITATE INSTITUTUA

Florentziako Europako Unibertsitate Institutuak deitutako ikerketa-bekak
www.eui.eu/Home.aspx [EN]

### 21. EPO. PATENTEEN EUROPAKO BULEGOA.

Praktikak eskaintzen dituzte patenteen alorreko profesionalentzat eta zuzenbideko, nazioarteko harremanetako, europar gaietako, ekonomiako eta komunikazioko graduatuentzat.
www.epo.org/about-us/jobs/vacancies/internships.html [EN] [FR][DE]

### 22. EUROPAKO ESKUALDEEN BATZARRA

Bekak eskaintzen ditu hainbat arlotan, 3 eta 6 hilabete bitartekoak.
www.aer.eu/home/internships.html [EN][FR][DE]

### 23. CEDEFOP

Bekak eskaintzen ditu hainbat arlotan, 3 eta 6 hilabete bitartekoak.
www.cedefop.europa.eu/EN/working-with-us/Traineeships.aspx

### 24. Marie Curie BEKAK

EBko VII. Esparru Programaren Marie Curie bekek ikertzaile indibidualen edo ikerketarako erakunde eta zentroen finantziazioa dute jomugan.
http://ec.europa.eu/research/mariecurieactions/index.htm

## 8.4. PRAKTIKAK NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN

### MUNDUKO BANKUA

Munduko Bankuak bi praktika-programa eskaintzen ditu, eta beste bi programa profesional gazteentzat. Praktika-programetako bat neguan egiten da, eta bestea, berriz, udan. Eskaera kopurua handiagoa da udako programarako (5000 gutxi gorabehera).
Munduko hainbat tokitan egin daitezke, baina gehienak erakundearen egoitza zentralean egiten dira, Washingtonen. Bankuaren arabera, praktikak egiten dituzten ikasle gehienek Munduko Bankuarentzat jarduten dute ondorenean. Praktika horiek egin ahal izateko, goi-mailako unibertsitate-titulu baten jabe izan behar duzu, eta graduondoko ikastaro batean matrikulatuta egon. Praktikak ordaindu egiten dira.
www.bancomundial.org/empleos/practicas.htm

### NAZIOARTEKO MONETA FUNTSA (FMI)

Nazioarteko Moneta Funtsa ekonomia-lankidetzarako erakundea da, eta nazioarteko moneta-sistemaren egonkortasuna zaintzeaz arduratzen da. Udan praktikak egiteko bekak eskaintzen ditu, instituzioak eskatutako gaietako batean hirugarren ziklo bat egiten ari diren unibertsitate-tituludunentzat, ekonomia-zientzietako lizentziadunentzat, bereziki. Beken barnean, hileko ordainsaria, Washingtonerako joan-etorriko txartela eta aseguru medikoa hartzen dira.
www.imf.org/external/np/adm/rec/job/summint.htm [EN]

### MUNDUKO MERKATARITZA ANTOLAKUNDEA (OMC)

Munduko Merkataritza Antolakundeak praktika-programa bat jarri du abian MMAko herrialde kideetako 30 urtez azpiko graduondoko ikasleentzat. Ez dago programarekin bat egiteko data finkorik, parte-hartzaileak erakundearen balioespen eta premien arabera biltzen direlako programara. Munduko Merkataritza Antolakundeak praktikak ordaintzen ditu, ikasle bakoitzari eguneko diru-kopuru jakin bat esleituz.
www.wto.org/english/thewto_e/vacan_e/intern_e.htm [EN]

### UNICEFEN PRAKTIKA PROGRAMA

Bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleentzat. Praktika-programa UNICEFen egoitzan eta bulego nazionaletan egiten da, eta 6 astetik 16 astera bitarteko iraupena izaten du. Onarpen-irizpideei buruzko informazioa lortzeko eta hautagaitza-inprimakia deskargatzeko aukera baduzu.
www.unicef.org/about/employ/index_internship.html

### PRAKTIKALDIAK NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN

Mundu osoko gobernuz kanpoko eta gobernu arteko nazioarteko erakundeetako praktikaldiei buruzko iragarkien berri ematen duten loturen direktorioa.
www.unog.ch [EN]

### PRAKTIKAK NAZIO BATUEN IDAZKARITZAN, NEW YORK-EN

Informa zaitez bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleentzako programa horren inguruan. Webguneak informazio xehatua eskaintzen du onarpen-irizpideen, eskaeraprozeduraren, baldintza orokorren eta bisatu-betekizunen inguruan.
www.un.org/Depts/OHRM/sds/internsh/index.htm [EN][FR]

## 8.5. NAZIOARTEKO PRAKTIKETARAKO BEKAK

Hainbat erakundek beka eta praktikak eskaintzen dituzte, EBn zein EBtik kanpo. Zuentzat interesgarri izan daitezkeen batzuen berri emango dizuegu jarraian, zerrenda batean bilduta.

### FARO BEKAK

Valladolideko Unibertsitateko Fundazio Nagusiak kudeatutako programa honek Espainiako ia 1000 ikasleri urtero-urtero aukera ematen die ia mundu osoko enpresetan praktikaldia egiteko bekak eskatzeko. Hezkuntza Ministerioak sustatutako mugikortasun-programa da. Informazio espezifikoagoa lortzeko, zeure burua erregistratu behar duzu.
www.becasfaro.es/pages/cont/index.php?id=27

### ARGO BEKAK

Argo Global mugikortasun-programa bat da, Hezkuntza Ministerioak sustatua, Espainiako unibertsitate guztietako tituludunen prestakuntza osagarria bultzatzeko, atzerriko enpresetan praktikak eginez.
http://becasargo.es/portal/web/guest

## CONFEBASK

Urtero-urtero beka-laguntza programa bat jartzen du abian, Leonardo da Vinci europar programaren babesean, Europako herrialdeetako enpresetan 24 asteko praktikaldi bat egiteko, lan-munduan lehen esperientzia bat edukitzeko helburuarekin.
www.confebask.es

## SEPI FUNDAZIOA

Esperientziarik gabeko tituludun gazteentzako prestakuntza praktikorako beka-programak sustatzen ditu, mota askotako instituzio eta enpresekin elkarlanean (Iberia, Deloitte, Telefónica, CASA, EADS eta abar). Bereziki egokiak ingeniaritzen eta enpresa-administrazioaren edo enpresa-zientzien alorretarako. Beka horietarako, urteroko deialdia egiten da.
www.funep.es/

## IES-CONSULTING

IES-Consulting Espainiara praktikak egitera etorri nahi duten europar ikasleentzako programa da. Espainiako zenbait enpresatan stageak egiteko aukera eskaintzen du, eta, bereziki, turismo-sektorean lan egiteko aukera.
www.ies-consulting.es

## VULCANUS BEKAK. Vulcanus in Japan

Programa honi esker, EBko ikasleek Japonian industria-praktikak egiteko aukera dute, Japoniako industria-enpresa batean jardunez eta aldi berean japoniera ikasiz.
Irailean hasten da eta hurrengo urteko abuztuan amaitzen, EBko estatu kideetako ikasturte akademikoarekin bat egiteko. Ikasleek astebeteko mintegia eta 4 hilabeteko japoniera-ikastaro trinkoa egiten dute Japonian, eta, jarraian, 8 hilabeteko praktikaldia Japoniako enpresa batean.
www.eu-japan.eu/global/vulcanus-in-japan.html

## BANCAJA LEONARDO ADEIT BEKAK

Bancajaren eta ADEIT Valentziako Unibertsitatea-Enpresa Fundazioaren arteko akordioari jarraiki, azken horrek 250 beka (2012-2013) Europako enpresetan praktikak egiteko. Espainiako edozein unibertsitatetako edozein titulazio dutenei zuzenduak.
www.adeit-uv.es/becasleonardo/

## ICEX BEKAK

1975. urteaz geroztik, enpresa-nazioartekotzeko zerbitzuak ematean espezializatutako profesional gazteen prestakuntza sustatzen dute.
www.icex.es/icex/cda/controller/page/0,2956,35582_10219_3088388_0_,00.html

## MAEC-AECI BEKAK

Atzerriko eta Espainiako herritarrentzako MAEC-AECID beka-programen urteko deialdia Espainiak garapenerako laguntza ofizialaren herrialde hartzaileekiko ezarritako lankidetza-politikaren tresna nagusietako bat da, eta, aldi berean, Espainiaren eta munduko gainerako herrialdeen kultura- eta zientzia-harremanetarako funtsezko elementua. www.aecid.es

## OPTIMUS PROGRAMA

Unibertsitatea-Enpresa Fundazioak eta Francisco de Vitoria Unibertsitateak sustatutako OPTIMUS programaren helburu nagusia tituludun gazteak lan-merkatuan integratzea da, enpresa eta erakundeekiko koordinazioaren bitartez. Planteamendu dual bati jarraiki, OPTIMUS programak bi zati biltzen ditu, bat eginik doazenak: batetik, prestakuntza enpresan, tutoretzapeko lanbide-praktikaren bitartez, eta, bestetik, trebetasun eta gaitasunetan oinarritutako prestakuntza akademikoa, enpresamunduarentzat. www.fue.es/HTML/0211_rrhhTitulados_OPTIMUS.asp

## UNIVEM PROGRAMA

Gaur egun enpresek beste lehentasun batzuk hartzen dituzte aintzat, profesional gazteak kontratatu behar dituztenean. Izan ere, enpresak, gero eta neurri handiagoan, negoziazio-arlo jakin batzuetan berariazko prestakuntza jaso duten gazteak behar ditu. UNIVEM programari jarraiki, Unibertsitatea-Enpresa Fundazioak, Espainiako unibertsitate eta negozio-eskola bikainenekin sinatutako lankidetza-akordioen bitartez, gure inguruneko profil onenak dituzten eta espezializazio-masterra egiten ari diren gazteak eskaini nahi dizkie enpresei.
www.fue.es/HTML/0211_rrhhTitulados_UNIVEM.asp

## CITIUS PROGRAMA

Unibertsitatea-Enpresa Fundazioak, Madrilgo Unibertsitate Autonomoak eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak sustatutako CITIUS programa lehen enplegurako saltoa izan da 7000 profil baino gehiagorentzat. Enpresen % 80k baino gehiagok, behin programaren zikloa amaiturik, programan parte hartu dutenei lan-kontratua egiteko erabakia hartu dute. www.fue.es/HTML/pdfs/Citius.pdf

## GAIA PROGRAMA

Zure enpresak atzerrian jarduten badu eta gure mugetatik kanpo egoitzaren bat baldin badu, GAIA bekak tituludun berriak edukitzeko aukera eskaintzen dizu, beren gaitasunen, prestakuntzaren eta hizkuntza-mailen arabera aldez aurretik aukeratu ondoren, Espainiatik kanpoko egoitza horietan gauzatu beharreko eginkizunak gauza ditzaten. www.fue.es/HTML/0211_rrhhTitulados_GAIA.asp

### AIESEC

Europako ikasle-elkartea, bazkideei beste herrialde batzuetan nazioarteko praktikak egiteko aukera eskaintzen diena. Urtero, AIESEC elkarteak bere kideetako 10 000ri beste herrialde batzuetan 2 hilabetetik 7 hilabetera bitarteko praktikak egiteko aukera eskaintzen die, enpresa-kudeaketaren, teknologiaren, hezkuntzaren eta garapenaren eremuetan.
www.aiesec.org/cms/aiesec/AI/students/International_Internship.html

### PASARELA PROGRAMA

Pasarela programak osatu egiten du, unibertsitate-ikuspegi batetik, goi-mailako lanbide-heziketako tituludunen prestakuntza, garrantzi handiko hiru eremuri dagokienez: hizkuntzak, informatika eta trebetasun eta gaitasunak. Hiru elementu horiek eta enpresan egindako praktikek erabat prestatutako eta malgutasun handiko hautagaiak sortzen dituzte.
www.fue.es/HTML/0211_rrhhTitulados_PASARELA.asp

### FULBRIGHT BATZORDEAREN BEKAK ESPAINIAN

Fulbright Batzordeak zenbait beka ezarri ditu Espainian, zenbait diziplinatarako eta maila akademikotarako. Beka guztiek goi-mailako titulazioak dituzte xede. Web-orrian, AEBetako zentro eta unibertsitateetan goi-mailako titulazioetarako ikasketak zabaltzeko aukera ematen duten Fulbright beken zerrenda aurkituko duzu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Fulbright Batzordearen orria. www.fulbright.es

### PERIODOS DE PRÁCTICAS EUROPEOS EN PROCTER & GAMBLE

Urte osoan, eta udan ere bai, konpainia honek prestakuntzaldiak eskaintzen ditu Europa osoan, ikasketen azken edo azkenaurreko urtea egiten ari diren hainbat diziplina eta prestakuntzatako ikasleentzat. www.pgcareers.com/ [EN]

## 8.6. PRAKTIKAK KUDEATZEN DITUZTEN BILATZAILEAK ETA WEBGUNEAK

Jarraian beka eta praktiketarako berariazko bilatzaile batzuen zerrenda aurkeztuko dizuegu.

### BECAS 2013

Oso zaila da ikasketak finantzatzen lagunduko dizun beka bat aurkitzea, eta Interneten agertzen den informazioa batzuetan oso sakabanatuta dago, edo oso nahasia da. Hori dela-eta, atari honetan 2013an ikasketak egiteko beka- eta laguntza-kopururik handiena ahalik eta modurik ordenatuen eta eskuragarrienean eskaintzeko.
www.becas2013.net/

## EUROGRADUATE. THE EUROPEAN GRADUATE CAREER GUIDE 2013

Europako gazteentzako enplegu-eskaintzei, praktikei eta enplegagarritasunari buruzko informazioa ematen du EUROGRADUATEk. Izena eman dezakezu, euren Newsletterra posta elektronikoz jasotzeko.
www.eurograduate.com

## DOKTOREGOKO ETA DOKTORATU ONDOKO EUROPAR IKERKETARAKO BEKAK

Europako programetan parte hartu nahi duten ikertzaile gazteentzako informazio baliagarria. Informa zaitez europar ikerketa-beketarako diru-laguntza eta beken inguruan.
http://cordis.europa.eu/home_es.html

## LEHEN ENPLEGUKO BEKAK ETA PRAKTIKAK

Beka eta praktiken bilatzailea.
www.primerempleo.com

## BECASFACIL

Beken bilatzailea, bekei buruzko doako informazio-zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen duena.
www.becasfacil.com

## UNIBERTSITATE BEKAK

Atzerriko espainiar irakasle, ikertzaile eta ikasleentzako bekei buruzko datu-basea.
www.universidad.es/informacion_y_recursos/becas

## QUIERO UN BUEN TRABAJO

Unibertsitate-titulazioa duten ikasle eta gazteei orientazioa eta laguntza ematen dien Guía de empresas que ofrecen empleo argitalpenak ospe handia lortu du.
www.quierounbuentrabajo.com/

## IAGORA

Europa osoko enpresekin mota guztietako okupazioetan lan egiteko aukerak eta praktikak eskaintzen ditu. Enpresen izenak eta enpresa bakoitzaren deskribapen txiki bat ikus daitezke, baina ez harremanetarako datuak. Orria bitartekari soila da.
www.iagora.com/index.html [EN]

## EUROPLACEMENT

Mundu osoko lan-eskaintzak biltzen ditu, baita bitartekotza pertsonalari buruzko atal bat ere. Praktiken hautaketan, ostatu-bilaketan eta herrialdean bizitzeko baimenari dagozkion arazoen konponketan laguntzen dute. Zenbait herrialdetako bizimoduari buruzko gida batzuk proposatzen dituzte, eta zenbait aholku ematen dituzte aurkezpen-gutuna, curriculuma eta hautaketa-elkarrizketa egiteko moduaren inguruan.
www.europlacement.com/en/1/3-15-personal-mediation.html [EN]

## EUROBRUSSELS

Praktikaldiak Europan. Europako hainbat enpresa, elkarte eta GKEren praktika-eskaintzei buruzko datu-basea da.
www.eurobrussels.com/jobs/internship [EN]

## EKONOMIALARIENTZAKO ESKAINTZAK EUROPAN

Web-orri honek harremanetan jartzen ditu mundu osoko enpresa handiak, garrantzizko unibertsitateak, GKEak eta abar praktikaldietan interesatutako pertsonekin. Bitartekaria da, eta ez du aldez aurreko baldintzarik jartzen. Lanbide-profil guztiak biltzen ditu.
www.euroeconomistjobs.com/job_search.php

## CAPCAMPUS

Ikasketak amaitu aurretik egokitzat jotzen baduzu lanbide-esperientzia baliagarri bat edukitzea, webgune honek informazioa eskaintzen dizu Frantziako praktikaldien eta Europako eta atzerriko truke- eta enplegu-programen inguruan. Zenbait aholku ere aurki ditzakezu bertan, hautagaitza aurkeztu aurretik aurkezpen-gutuna eta CVa prestatzeko zer egin behar duzun argituko dizutenak.
www.capcampus.com/emploi-20/ [FR]

## INTERNABROAD

Atzerriko praktikaldiei buruzko informaziogunea. Ordaindutako eta borondatezko praktika akademiko edo profesionalen eta lanbide-heziketako programen eskaintza mundu osoan. Oso zehatza eskaintza bakoitzaren deskribapenean. Lanbide-profil guztiak biltzen ditu.
www.internabroad.com/ [EN]

## INTERNSHIPUSA

Estatu Batuetan lanbide-esperientzia jaso nahi al duzu? AEBetako enpresa baten prestakuntza-programa batean parte har dezakezu, zure diziplinarekin zerikusia duen lanpostu batean. Webgune honek aukera eskaintzen dizu zure jarduera-sektoreko enpresak bilatzeko, zergei, osasun-laguntzari eta segurtasunari buruzko informazioa jasotzeko eta CV bat estilo amerikarrari jarraiki idazteko aholku batzuk ikasteko. Ezagutu dagoeneko programetan parte hartu duten beste zenbait pertsonaren iritzia.
www.ciee.org/trainee/ [EN]

## UNIVERSIA

Universia Iberoamerikako unibertsitate-lankidetzarako sare nagusia da, Iberoamerikako 23 herrialdetako 1.216 unibertsitate bazkide biltzen dituena (unibertsitateko 14 milioi ikasle eta irakasleren ordezkari dira). Garrantzizko zerrenda eta informazioa eskaintzen du Europako instituzioetan eta nazioarteko beste erakunde batzuetan praktikak aurkitzeko
http://internacional.universia.net/verano/practicas/index.htm



# 9. LANA OPORRETAN




9.1. SARRERA 133

9.2. BALIABIDEAK ORO HAR 133

9.3. ITSAS BIDAIETAN, ITSASONTZIETAN ETA ONTZI ENPRESETAN LAN EGITEKO 136

9.4. ABENTUREN ETA ARRISKU KIROLEN ARLOAN LAN EGITEKO 137

9.5. ANIMAZIO TURISTIKOAREKIN LOTURIKO POSTUETAN LAN EGITEKO 139

9.6. KANPAMENDUETAN LAN EGITEKO 139

9.7. NEKAZARITZAN ETA BASERRIETAN LAN EGITEKO 140

# 9. LANA OPORRETAN

## 9.1. SARRERA

Oporretako lana edo urte-sasoiko lana da urteko garai jakin batzuetan bakarrik egiten dena, dagokion industrian edo eskualdean lan-eskaintza askoz ere handiagoa delako urte-sasoi batzuetan beste batzuetan baino. Ikasleentzat, oporraldietan egindako lana da urte-sasoiko lana.

Uda ongi pasatzeko garaia izan daiteke, eta gainera diru pixka bat irabazteko aukera ere eman dezake, beste herrialde batean bizitzeko aukera emango dizun enplegu batean jardunez. Abentura eta bizi-esperientzia uztartu nahi dituzten bidaiariek ordaindutako lanen eskaintza zabala dute eskura, dibertsioa bermatzen dutenak.

Normalean lanbide-prestakuntza txikia eskatzen dute enplegu horiek, baina zenbaitetan aldez aurreko jakintza eskatzen dizute kirol baten edo beste prestakuntza baten inguruan, edo parte hartu nahi dutenek ikastaro bat egin behar dute enpresa kontratugilearen kontura.

Lanpostu ohikoenak honako hauek dira: kanpamentuko monitorea, kanpoko eta kiroleko jardueretarako monitorea, turismo-animatzailea, nekazaritzako eta abeletxeko lanak, itsas bidaia eta itsasontzietako lanak, urte-sasoiko enpleguak eski-estazioetan, eta abar.

Arrisku-kirolen bat egiten baduzu edo ohiz kanpoko beste trebetasunen bat baduzu, horrelako lan batean aritzea izan daiteke zuretzat aproposena, oporraldi batez gozatzeko eta aldi berean zaletasun pertsonal batean aritzeko aukera eskaintzen dizun neurrian.

## 9.2. BALIABIDEAK ORO HAR

### ANYWORK ANYWHERE

Kontratazioko nazioarteko gunea, ikasleentzat, ibiltarientzat eta mundu osoan bidaiatzen duten pertsonentzat. Noizbehinkako, urte-sasoiko eta aldi baterako enplegu-aukeren iragarkiak biltzen ditu, baita Erresuma Batuko eta munduko gainerako eskualdeetako enpleguari buruzko informazioa ere. Baliabide interesgarriak dira.
www.anyworkanywhere.com/ [EN]

## ENPLEGUA OPOR ZENTROETAN

Online direktorioa, opor-zentro batean udako edo neguko urte-sasoiko lan baten bila dabiltzan pertsonentzat. Urte-sasoiko lanpostuak biltzen ditu direktorioak, sektore guztietakoak, hala nola haur-zaintzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak, gidariak eta jatetxeetako eta bezeroaren arretarako zerbitzuko enpleguak.
www.holidayresortjobs.co.uk/ [EN]

## UDAKO ENPLEGUAK

Uda honetarako lan bila segitzen al duzu? Webgune honek hainbat enplegu-aukera eskaintzen dizkizu, Europan eta mundu osoan. Enpleguak kanpamentuetan, parkeetan, turismo-zentroetan, hoteletan eta urte-sasoiko beste jarduera batzuetan. Informazio baliagarria hasteko moduaren, baliabideen eta aholkuen inguruan.
www.summerjobs.com/ [EN]

## GAPWORK

Ikaslea bazara edo bidaiatzeko urte sabatikoa hartu baduzu, webgune honetan beharrezko informazio guztia aurkituko duzu Europako eta atzerriko noizbehinkako lanaren inguruan: oporretan lan egiteko bisatuak, urte sabatikoak, bidaia-aseguruak, hegaldiak, hirietako mapak, osasuna eta abar.
www.gapwork.com/europe.shtml [EN]

## KING'S SPORTS CAMPS

Kirol-jardueretarako monitoreen eta haur-zainketarako langileen kontratazioa Europan. Eskatutako kualifikazioei eta kontratazioei buruzko informazioa, CV egokiena idazteko aholkuak, hautagaitza-prozedurak, prestakuntza eta abar.
www.kingscamps.org/index.html [EN]

## STA TRAVEL

Irabaz ezazu soldata Estatu Batuetako kanpamentu bateko animatzaile gisa jolasten eta lan egiten, edo bestela Korean irakasten edo Irlandan garagardo-pintak ateratzen. Mundu osoan barrena zeregin harrigarrienetan ere ogibidea nola atera dezakezun esaten dizute hemen.
www.statravel.com.au/work-overseas.htm[EN]

## THE FRONTIER CLUB

Atzerrian lana aurkitzeko laguntza: itsas bidaiak, kontserbazioa, auzolandegiak, irakaskuntza, eski-estazioak, aldi baterako eta udako enpleguak.
http://frontierclub.com/index.htm [EN]

### SEASON WORKERS

Erresuma Batuko atari honek udako hainbat ikastaro eta lan-eskaintza eskaintzen ditu, hala nola kanpoko jardueretarako eta eski-estazioetarako monitorea eta beste hainbat aukera, urte sabatikoa hartu nahi duten, edo, besterik gabe, bizitzako esperientziarik zirraragarriena bizi nahi duten guztientzat.
www.seasonworkers.com/ [EN]

### SUMMER JOBS 4 U

Udako lanak Europan eta munduko gainerako herrialdeetan.
www.summerjobs4u.co.uk/ [EN]

### TRANSITIONS ABROAD

Orri bikain honetan, mota guztietako informazioak aurki ditzakegu atzerriko lanen inguruan, eta besteak beste nabarmentzekoak dira, batetik, enpresen direktorioak, eta, bestetik, atzerrian, munduko edozein tokitan lan egin duten pertsonen esperientzien berri ematen duten artikuluak.
www.transitionsabroad.com/ [EN]

### ACHUS!

Planeta osoko parke tematikoen eta aisia-parkeen gida ofiziala (ur-parkeak, jolasparkeak, zooak, lorategi botanikoak eta abar). Kontinentez kontinente katalogatuta eta herrialdez herrialde banatuta ageri dira. Gainera, profesionalentzako baliabide-direktorio batean sartzeko aukera ere eskaintzen du.
www.achus.net/ [EN]

### IYHF

Hostelling International webguneak, 80 herrialde baino gehiagoko gazte-aterpetxeen 90 elkarte baino gehiago biltzen ditu. Webgunearen bitartez, 4000 aterpetxeren orrietan sartzeko aukera dago, eta bertan hainbat lan-eskaintza agertzen dira normalean.
www.iyhf.org/ [EN]

### JOBMONKEY

Urte-sasoiko lanean espezializatutako atari honek aparteko aukerak eskaintzen dizkizu mundu osoan barrena modu dibertigarrian bidaiatzeko, eta, aldi berean, gogoko duzun zerbait egitearen truke diru pixka bat irabazteko.
www.jobmonkey.com/ [EN]

### JUST JOBS 4 STUDENTS

Erresuma Batuko ataria, ikasleentzako enplegu-eskaintza ugari biltzen dituena.
www.justjobs4students.co.uk/ [EN]

### LIVE WORK & PLAY

Atzerrian lan egiteko, urte-sasoian lan egiteko bereziki, gida espezializatuak argitaratzen dituen enpresa. Web-orrian eskuragarri dauden aleak kontsultatzeko aukera dago, baita balio handiko beste web-orrietarako loturen bilduma kontsultatzeko aukera ere. Bidaiari ekintzaileenek gidetan kolabora dezakete, beren esperientzien berri emanez.
www.liveworkplay.com.au/ [EN]

### PAY AWAY

Atzerrian lan egiteko hainbat artikulu eta baliabide aurki ditzakezu gune honetan. Arreta berezia eskaintzen die oso ohikoak ez diren sektoreetako aldi baterako enpleguei: kanpamentuetarako eta bestelako kirol-jardueretarako monitoreak, abeletxeetako lanak, uzta-bilketa eta abar.
www.payaway.co.uk/ [EN]

## 9.3. ITSAS BIDAIETAN, ITSASONTZIETAN ETA ONTZI ENPRESETAN L AN EGITEKO

Ontzien arloan langileak bilatzen ari dira etengabe, itsasontzietan, itsas bidaietan, petrolio- eta gas-plataformetan, kontserba-enpresetan eta arrain-ustiapenetan eta abarretan lan egiteko. Okupazio duina (eta ongi ordaindutakoa) lortzeko aukera ona da; gainera, eguneroko lana abentura zirraragarri bihurtzen da. Lanpostu ugari bete behar izaten dira, bai kopuru aldetik, bai motaren aldetik.

### ALASKA JOBS

Alaskan, arrain-industrian lan egiteko, kontserba-fabrika batean, arrain-haztegi batean, arrantza-ontzi batean eta abar.
www.jobmonkey.com/alaska/ [EN]

### FIND CRUISE SHIP JOBS

Itsas bidaietan, hondartzako konplexu turistikoetan eta turismo-gidari moduan edo abenturako jardueretako monitore moduan lan egiteko eskaintzak biltzen dituen ataria.
www.find-cruise-ship-jobs.com/ [EN]

### INTERNATIONAL CRUISE SHIPS

Nazioarteko itsas bidaietan lan egiteko.
www.cruiselinejobs.com/ [EN]

### VOOVS.COM

Itsas bidaietan, hondartzetan, tourretan eta abarretan lan egiteko.
www.seasonal-jobs.com/ [EN]

### ROYAL CARIBBEAN

Gurutzaldien arloko konpainiarik handienetakoa da munduan. Enplegu-eskaintzak bulegoetarako eta luxuzko gurutzontzietan.
www.royalcaribbean.es/ourCompany/career.do

### IBEROCRUCEROS

Konpainiaren ontzian nahiz bulegoetan hutsik dauden lanpostuak aurkituko dituzu hemen, zeure datuak igor diezazkiezun. Ez badago zure profilari egokitzen zaion lanposturik, baina langile-taldean sartu nahi baduzu, zure CVa bidali diezaiekezu, eta kontuan hartuko zaituzte, lanpostu hutsik suertatuz gero.
www.iberocruceros.com/e/Empresa/ofertas-empleo-cruceros/trabaja-con-nosotros.html

### WIND ROSE NETWORK

Itsas industriari buruzko informazioa ematen du, alor horretan lanpostu bat bilatzea errazagoa izan dadin. Enpresa honek ontzi-konpainia eta itsas operadore ugaritako lanpostuak kudeatzen ditu eta itsas bidaietan, merkataritzako ontzietan eta itsas zabaleko plataformetan lanpostuak eskaintzen ditu.
www.windrosenetwork.com/ [EN]

## 9.4. ABENTUREN ETA ARRISKU KIROLEN ARLOAN LAN EGITEKO

Zure bizimoduan arriskua eta abentura atsegin baldin badituzu, zure kirol-jarduera gogokoena egitearekin bateragarria den lan bat aurkitzen saia zaitezke; hartara, zure gustuko jarduera egiteaz gain, diru-sarreraren bat ere izango duzu. Sektore hori oso zabala da eta askotariko lanpostuak izaten dira: kirol-monitoreak, sorosleak, zerbitzariak, harreragileak eta abar.

## ADVENTURE COMPANY

Enpresa honek naturan egiten diren jarduerak antolatzen ditu. Lanposturen bat hutsik baldin badute, lan-eskaintzak kontsulta daitezke.
www.adventurecompany.co.uk/ [EN]

## ADVENTURE JOBS

Kirolarekin eta abenturarekin loturiko lan mota ugari: aisialdiko begiraleak, animazio turistikoa, ostalaritzako langileak eta bestelako postuak aisialdiko establezimenduetan.
www.adventurejobs.co.uk/ [EN]

## CLUB SWIM

Enpresa aitzindari honek teknologia berriak aplikatzen ditu igeriketaren arloan. Urpekariak, entrenatzaileak, irakasleak, sorosleak eta igeriketa-arloko profesionalak hartzen ditu lanerako.
http://swim.isport.com/ [EN]

## COOL WORKS

Webgune hau urte-sasoiko lanetan espezializatuta dago, munduko lekurik onenetan. Udako lanak Yellowstone edo Yosemite parkeetan edo AEBetako beste parke nazional batzuetan; udako enpleguak kanpamenduko begirale moduan; eskiestazioak, arrantxoak, parke tematikoak, tour operadoreak eta beste hamaika aukera internautaren eskura.
www.coolworks.com/ [EN]

## ENDEAVOUR TRAINING

Instruktore kalifikatuak behar dituzte hainbat jardueratarako: raftinga, mendizaletasuna, eskalada, espeleologia, txirrindularitza, amildegi-jaitsiera eta abar. “Job Vacancies” atalean informazioa aurki daiteke.
www.endeavour.org.uk/ [EN]

## JOBS IN THE ALPS

Enpresa honek eski-estazioetan lana eskaintzen die gazte ikasleei, neguan nahiz udan. Postu ugari izaten dituzte, gehienak Europako hotel eta jatetxeetan lan egiteko. Europar Batasuneko herritarrentzat edo Frantzian eta Suitzan lan egiteko baimena dutenentzat soilik. Abenturazaleentzat aukera onena da.
www.jobs-in-the-alps.com/ [EN][FR]

## 9.5. ANIMAZIO TURISTIKOAREKIN LOTURIKO POSTUETAN LAN EGITEKO

Sektore honetako enplegu-eskaintza askotarikoa da: kirol-jardueretarako monitoreak, haurren eta gazteen jardueretarako begiraleak, hoteletako animazioa, performancea, emanaldiak...
Sektore honetako enpresetan jende dinamikoa nahi izaten dute, jendetasun handikoa, egokitzeko zailtasunik ez duena, jendearekin kontaktuan egotea gustuko duena eta hainbat hizkuntza dakiena.

### ANIMAJOBS

Enpresa espainiar hau animazio turistikoaren sektorean espezializatua dago. Lan-poltsa propioa du eta honako postu hauetarako eskaintzak izaten ditu: animatzaileak (junior eta senior), animatzaileburuak, kirol-monitoreak, haurren eta nerabeen begiraleak, gauekoak, balio anitzekoak... Baldintza bat bete behar da, nahitaez: gutxienez 2 hizkuntza jakitea. Gainera, posta elektronikoko zeure kontua ere sor dezakezu doan. www.animajobs.com/

### RESORTJOBS.COM

Webgune honetan bidaiekin eta aisialdiarekin loturiko enplegua eskaintzen dute: konplexu turistikoetan, eski-estazioetan, kanpamenduetan, parke nazionaletan, itsas bidaietan, jatetxeetan, hoteletan eta bestelako enpresetan.
www.resortjobs.com/ [EN]

### ACTTIV

Animazio turistikoaren arloan espezializatutako enpresa espainiarra da. Bere lan-poltsa dauka eta honako animatzaileei zuzendutako lan-eskaintzak izaten ditu: junior, senior, animazio-buruak, kirol-begiraleak, haurren begiraleak, nerabeen begiraleak, gauekoak, askotariko jardueretarakoak… Ezinbestekoa da gutxienez bi hizkuntza jakitea. Gainera, posta elektronikoko kontu bat sor dezakezu doan.
www.animacion.net/ [EN]

## 9.6. KANPAMENDUETAN LAN EGITEKO

Oporraldian haur eta gazteentzat jarduerak antolatzen dituzten enpresek langileak behar izaten dituzte hainbat lanpostu betetzeko: aisialdiko begiraleak, kirol-monitoreak, eskulanetarako, mantentze-lanetarako, bulego-lanetarako, ibilgailuak gidatzeko, zaintzarako, sukalderako eta abarrerako.

Nolanahi ere oso garrantzitsua da hautagaiak gustura aritzea haur eta gazteekin eta hainbat hizkuntza menderatzen badituzte, are eta hobeto.

### CLUBCAMPAMENTOS.INFO

100 kanpamentu antolatu, kudeatu eta merkaturatzen ditu Espainian eta beste herrialde batzuetan. Astialdiko begirale-titulua, kirol-entrenatzaile titulua edo antzekoa baduzu, hizkuntzak badakizkizu edo kanpamentuetako arloetakoren batean esperientzia baduzu eta lan bila bazabiltza, zure CVa bidali diezaiekezu.
www.campamentos.info/campamento-campus-colonias/club-campamentos-info/bolsa-de-trabajo

### CAMP CHANNEL

Kanpamenduen direktorioa da eta lan-eskaintzen atala ere badu.
www.campchannel.com/ [EN]

### HOLIDAY BREAK

Europako hainbat herrialdetan kanpamenduetan lan egiteko eskaintzak.

www.holidaybreakjobs.com/ [EN]

## 9.7. NEKAZARITZAN ETA BASERRIETAN LAN EGITEKO

Honelako enpleguei esker landa-ingurunearekin kontaktuan egoteko eta aire zabalean jarduteko aukera izaten da. Lan gogorrak izaten dira, askotan, baina norberarentzat oso aberasgarriak. Normalean fruta eta barazkiak biltzen lan egiten da, edo baserrietan animaliak zaintzen edo bestelako nekazaritza-lanetan. Lan fisikoa aire zabalean; aukera interesgarria eta lanbide-esperientzia paregabea.

### CASUAL FRUIT PICKING JOBS

Chandler and Dunn enpresa Erresuma Batuan dago eta fruta-bilketan eta nekazaritza-lanetan jarduten du. Bi baserri ditu eta frutak eta barazkiak biltzeaz gain, abereak zaindu, ardiei ilea moztu eta abelburuen okela manipulatzen dute.
www.chandleranddunn.co.uk/

### PICKING JOBS

Nekazaritza-sektoreko lanpostu ugari, urte-sasoikoak, baserri batean aritzeko edo uzta-bilketan jarduteko. Interesatzen bazaizu, zure gustuko lanpostuaren fitxan sartu eta enpresarekin zuzenean harremanetan jarri behar duzu; zure bizitzari buruzko hainbat xehetasun eman beharko dituzu eta zein datatan lan egin dezakezun zehaztu.
www.pickingjobs.com/ [EN]

## SEASONAL WORK IN DENMARK

Urte-sasoiko lanpostuak eskaintzen dira webgune honetan, nekazaritzaren sektorean, Danimarkan.
www.seasonalwork.dk/ [EN]

## Experience internationale

Nekazaritzaren arloko askotariko lanpostuak eskura ditzakezu atari honetan, nagusiki fruta-bilketan eta bestelako landa-lanetan. Sasoi bat Frantzian pasatu nahi duten atzerritarrei zuzenduta dago.
www.experience-internationale.fr/ [FR]

## Apecita

Nekazaritzan eta elikaduran espezializatutako frantses agentzia.
www.apecita.com/ [FR]

## Anefa

Nekazaritzaren arloko enpleguaren eta prestakuntzaren frantses elkarte nazionalaren webgunea.
www.anefa-emploi.org [FR]



# 10. “AU PAIR”




10.1. ZER DA AU PAIR PLANA? 143

10.2. NOLA LAN EGIN AU PAIR MODUAN? 143

10.3. AU PAIR MODUAN JOATEKO BALIABIDEAK 144

# 10. "AU PAIR"

## 10.1. ZER DA 'AU PAIR' PLANA?

Herrialde batera joan eta hizkuntza-maila hobetzeko bada modu merke bat: au pair plana. Jende askok (gehienetan neskak izaten dira) aukera hau hautatu du bidaiak egin, hizkuntza hobetu eta atzerriko herrialde bat ezagutzeko.

Au pair plana zera da, familia gonbidatzaile batekin bizitzera joatea eta familia horretako seme-alabak zaintzea, etxeko lan arinak egiten lagunduz. Gehieneko lan-orduak aldatu egiten dira au pair aukeraren arabera eta herrialdearen arabera, baina, oro har, astean 20-40 ordu izaten dira eta astean egun bat, gutxienez, libre izaten da. Trukean, au pairra familia hartzailearekin bizi da, familiako kide bat izando balitz bezala, eta astean diru-kopuru txiki bat jasotzen du. Batzuetan, au pairrak hizkuntza-ikastaroak edo bestelako ikastaroak egiten ditu ordu libretan.
Lan-ordutegitik kanpo, libre eta independente izango zara. Au pairrek ez dute lan-harremanik familia hartzailearekin; izan ere, Europaren kasuan, Au pairrei buruzko Europako Itunari atxikitzen zaizkio eta herrialde bakoitzeko arauak bete behar izaten dira. EBko herrialde askotan atzerriko neskei erraztasunak ematen dizkiete bisatua eta lan-baimena lortzeko.

Ez dira nahastu behar au pair direlakoak eta nannyak; azken horiek haurrak hezteko kontratatzen dira baina ez ohi dira familia enplegu-emailearekin bizitzen. Nannyen prestakuntza heziketarekin eta pedagogiarekin loturik egoten da eta ordainsariak, betebeharrak eta eskubideak lan-arloko legediaren araberakoak izaten dira.

## 10.2. NOLA LAN EGIN AU PAIR MODUAN

*Bi aukera daude:*

1. Zenbait webguneren bitartez familiarekin zuzenean harremanetan jar zaitezke. (Horrek hainbat konplikazio eragin ditzake)
2. Au pair zerbitzuak kudeatzen dituen agentzia bat bilatzea. Dena legezkoa dela bermatzeko, agentzia IAPA International Au Pair Association elkartean erregistratuta dagoela egiazta dezakezu; IAPA elkartea 1994. urtean sortu zen au pair lanetan aritzen ziren pertsonak babesteko.

Agentziek eskaintzen dituzten zerbitzuak aldatu egiten dira, baina, oro har, au pair bakoitzari familia egokia bilatzen diote eta alderantziz, eta izapide burokratikoak ere betetzen dituzte. Eskatzaileak diru-kopuru bat ordaindu behar izaten du eta horren truke, zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea izango du.

OHARRA: Agentzien zerrenda bat ikusi nahi izanez gero, 3. atalean, hizkuntzei buruzkoan, aurkituko duzu.

## 10.3. "AU PAIR" MODUAN JOATEKO BALIABIDEAK

### Ttransitions abroad.com

Webgune honetan liburu bateko kapitulu baten laburpena aurkituko duzu; hain zuzen ere, erakunde eta agentziek gomendatzen duten The Au Pair and Nanny's Guide to Working Abroad liburuaren "Au pair moduan lan egitea Europan" izeneko kapituluaren laburpena. Susan Griffith eta Sharon Legg dira idazleak. Horretaz gain, au pair plana kudeatzen duten Europako hainbat herrialdetako agentzien zerrenda bat ere aurkituko duzu. Webgune oso gomendagarria!
http://www.transitionsabroad.com/publications/workabroad/articles/workasaupairineurope.shtml [EN]

### International Au Pair Association

Elkarte hau 1994. urtean sortu zen au pair lanetan aritzen diren pertsonak babesteko. Au pairrei herrialdeari buruzko informazioa ematen die; au pair zerbitzuen kudeaketarekin loturiko enpresa eta agentziak biltzen ditu eta laguntza praktikoa bermatzen du.
www.iapa.org/ [EN]

### Au Pair World

Au pair moduko enpleguari buruzko datu-base ezagunena da Interneten. Au pairrak eta harrera-familiak doan erregistra daitezke. Erregistratu ostean, zuk nahi duzun au pairrarekin eta familiarekin zuzenean harremanetan jar zaitezke munduko edozein txokotan.
www.aupair-world.net [NL][EN][FR][DE][IT]

### Au Pair Box

Ezin errazagoa! Bete ezazu «eskaintzak» edo «eskaerak» inprimakia eta bidali Internet bidez. Era berean, Txat bat eta foro bat ere baditu, esperientziak elkartrukatzeko.
http://es.easyaupair.com/register/

### Au Pair Search

Erregistratu egin behar da au pair, harrera-familia edo au pair, agentzia moduan, eta munduko edozein tokitan, zuri gehien komeni zaizun eskaintza bilatu ahal izango duzu online. Lan-baimenei eta aurkezpen-gutunei buruzko gomendioak daude, eztabaida-foro bat eta hegazkin-tarifak.
http://www.aupairsearch.com

### Find Au Pair

Mundu osoan komenigarrienak diren au pairrak eta familiak aurkitzeko atari bat. Eztabaida-foroa, bisatuei buruzko informazioa eta ohiko galderak.
www.findaupair.com [EN]

### Planet Au Pair

Europako kultura bizitzeko aukera bikaina izango duzu harrera-familia baten ingurune seguruarekin. Webgune honetan programak, eskaera-prozedurak eta behar duzun informazio praktiko guztia aurkituko duzu.
www.planetaupair.com



# 11. EUROPAKO PROGRAMAK




11.1. GAZTEAK EKINEAN PROGRAMA 147

11.2. YOUTHPASS 147

11.3. GAZTEAK EKINEAN PROGRAMAKO EKINTZAK 148

11.4. EKINTZA: GAZTEAK EUROPAREKIN 149

- 11.4.A. 1.1. Ekintza.- Gazte trukeak 149
- 11.4.B. 1.2. Ekintza.- Gazte ekimenak 150
- 11.4.C. 1.3. Ekintza.- Demokrazia parte-hartzaileko proiektuak 151

11.5. 2. EKINTZA: EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA 152

11.6. 3. EKINTZA: GAZTEAK MUNDUAN 152

# 11. EUROPAKO PROGRAMAK

## 11.1. GAZTEAK EKINEAN PROGRAMA

13-30 urte dituzu eta Europa ezagutu nahi duzu? Gazte-trukea egin nahi duzu? Boluntarioen gaia interesatzen zaizu? Europako gazteen topaketetan parte hartu nahi duzu? Prestakuntza gustuko duzu? Gazteriaren alorreko proiektu bat duzu? Horrelako ekintzetan parte hartu ahal izango duzu Gazteak Ekinean Programaren bitartez.

"Gazteak Ekinean" Europako programa 2013. urtera bitarte egongo da indarrean. Programa hori 15-28 urteko gazteei zuzenduta dago, baina zenbait ekintza 13-30 urteko gazteentzat ere izaten dira.

Helburua zera da: gazteen alorrean lankidetza garatu eta indartzea, Europar Batasunean. Bizitza publikoan gazteen parte-hartzea sustatzera bideratuta dago, baita gazteen espiritu ekintzailea, enpresa-espiritua eta espiritu sortzailea indartzera ere.

Hona hemen aldi osorako finkatutako Programaren lehentasun iraunkorrak:
- Gazteen parte-hartzea
- Kultura-aniztasuna
- Europar herritartasuna
- Aukera gutxiago dituzten gazteak gizarteratzea

### PROGRAMAREN GIDA

Proiektu bat abiarazi nahi duten gazteek eskaera-orria bete beharko dute eta gidan deskribatzen diren prozedurak bete beharko dituzte.
www.juventudenaccion.injuve.es/materiales/guias.html?__locale=es

## 11.2. YOUTHPASS

Europako Batzordearen ekimen baten emaitza da. Ziurtagiri bat da eta gazteek Gazteak Ekinean programaren esparruan ikaskuntzako esperientzia eta parte-hartzea izan dutela ziurtatzen du, hezkuntza-esperientziatzat eta ikaskuntza ez-formaleko alditzat onartuta.

Ziurtagiriaren helburuak hauek dira: gazteak lan-munduan errazago sartzea eta gazte-alorreko langileen gaitasunak hobetzea, hausnarketa egitea ikaskuntza ezformaleko eta informaleko prozesu pertsonalari buruz eta proiektuan eskuratutako gaitasunei buruz, eta gazteriaren alorreko lana gizartean onartzea.
www.youthpass.eu/es/youthpass/

## 11.3. GAZTEAK EKINEAN PROGRAMAKO EKINTZAK

Gazteak Ekinean programan honako ekintza hauek biltzen dira:

### 1. EKINTZA. GAZTEAK EUROPAREKIN

1.1.- GAZTE TRUKEAK:
Gazte-trukeen bidez, jatorriz kultura ezberdinetakoak diren gazte taldeek (13-25 urtekoak) elkar aurkitu eta elkarren kulturak ezagutzeko parada izaten dute.

1.2.- GAZTE EKIMENAK
Gazte-ekimenei esker, laguntza eskaintzen zaie herri, eskualde edo nazio mailan mamitutako proiektuei, baita hainbat herrialdetako antzeko proiektuen arteko sare-loturari ere. Bereziki 18-30 urteko gazteei zuzenduta daude.

1.3. DEMOKRAZIA PARTE -HARTZAILEKO PROIEKTUAK
Proiektu horien bidez, herri mailan, eskualdean, nazioan edo nazioartean 13-30 urteko gazteek bizitza demokratikoan parte hartzea bultzatzen da.

### 2. EKINTZA. EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA

Ekintza honen helburua da gazteak boluntarioen hainbat jarduera motatan parte hartzera bultzatzea. Irabazi-asmorik gabeko jardueretan edo ordaindu gabeetan taldeka edo banaka parte hartzen duten 18-30 urteko gazteei zuzenduta dago.

### 3. EKINTZA. GAZTEAK MUNDUAN

Herrialde elkartuekin batera burutu beharreko proiektuak bultzatzen ditu, batez ere gazte-trukeak eta gazteriaren alorrean nahiz gazte-erakundeetan lanean diharduten pertsonen arteko trukeak; horretaz gainera, gazte-erakundeen arteko elkarteak eta sareak garatzea bultzatzen du.

### 4. EKINTZA. GAZTEENTZAKO LAGUNTZA SISTEMAK

Ekintza honen helburua da laguntza-egituren kalitatea garatzea, gazteriaren alorrean dihardutenen lana babestea eta programaren kalitatea hobetzea.

### 5. EKINTZA. GAZTERIAREN ALORREKO LANKIDETZA EUROPARRA SUSTATZEA

Ekintza honen helburua da gazteen alorreko eragileen arteko elkarrizketa bultzatzea; gazte-mintegiak, mintegi nazionalak eta nazioz gaindikoak indartzea; gazteen eremuan elkarlan politikoa garatzen laguntzea, eta gobernuz kanpoko erakundeen arteko kooperazioa sustatzea.

## 11.4. 1. EKINTZA: GAZTEAK EUROPAREKIN

### 11.4.A. 1.1. Ekintza. Gazte trukeak

Ekintza honen bidez hainbat nazionalitatetako gazte taldeen artean trukeak egin daitezke. Gazteen garapen pertsonala eta prestakuntza-prozesua bultzatzea da helburua, trukearen fase guztietan modu aktiboan parte hartuz; gainera, beste herrialde batzuetako bizitza (ekonomiari, gizarteari eta kulturari dagokienez) hobeto ulertzea lortu nahi da, herritarrekin zuzeneko harremanak izanik, kulturarteko ikaskuntza bultzatzearren.

Truke horiei esker, gazteek lankidetzako eta laguntasuneko harremanak egiten dituzte hainbat Estatutako taldeekin eta aukera-berdintasuna sustatzeko lagungarri izaten da.

Trukeak 13 urtetik 25 urtera bitarteko gazteen artean izaten dira, betiere programan parte hartzen duen herrialde batean bizi badira. Gazte-trukean gutxienez 16 gazte eta gehienez 60 gazte behar dira. Truke-jardueraren iraupena 6-21 egunekoa (joan-etorriak ere kontatuta) izango da.

Irabazi-asmorik gabeko edozein erakunde edo elkartek proposa dezake gazte-truke bat egitea, edo gazteekin lan egiten duten tokiko, nazioko edo eskualdeko elkarteek, edo gazte taldeek.

Finantzaketa: Jarduera horren gastuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak daude. Erkidegoko diru-laguntza baterako finantzaketaren printzipioan oinarritzen da; horrek esan nahi du programak soilik ez duela estali behar kostu guztia. Bidaiaren % 70 ordaintzen da, baita prestaketako eta jardueretako gastuak ere.

Prozesu osoan jarrera aktiboa eta parte-hartzailea izan behar da. Trukea prestatzeko fasean parte hartu behar duzue, baita ebaluazioan ere, trukearen aurretik, bitartean eta ondoren.

INFORMAZIO GEHIAGO:
Hona hemen informazio guztia: formularioak, solaskide-bilaketa, esperientziak...
www.juventudenaccion.injuve.es/acciones/intercambios/?__locale=es

GAZTEAUKERA
Ezagutu itzazu Euskadiko gazteek burututako proiektuak. Parte-hartzaileen esperientziak eta argazkiak ere badaude.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-5072/eu/contenidos/informacion/prog_europeos_proyectos/eu_9054/programa_juventud_proyectos.html

### 11.4.B. 1.2. Ekintza. Gazte ekimenak

Gazte-ekimen bat proiektu bat da, gazteek pentsatzen, diseinatzen eta garatzen duten proiektu bat. Horrelako ekimenei esker proiektuaren garapen osoan zuzenean eta modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezakezue, zer egin nahi duzuen erabakitzearekin hasi eta egindako jarduera guztiak ebaluatzearekin bukatu.

Gazte-ekimenen bidez proiektuak bultzatzen dira, dimentsio europarra indartzeko eta esperientzia-trukearen nahiz gazteen arteko lankidetzaren efektuak zabaltzeko asmoz.

*Ekimenak honelakoak izan daitezke:*

- NAZIOKOAK: talde bakar batek jatorrizko herrialdean diseinatu eta garatzen baditu.
- NAZIOZ GAINDIKOAK: hainbat herrialdetako gazte talde batek baino gehiagok batera gazte-ekimen bat diseinatzen badute.

18-30 urte (15 urtetik 17ra bitartekoen kasuan, tutorearekin batera) izan behar dituzu eta programan parte hartzen duten herrialderen batean bizi behar duzu, legez. Taldeak gutxienez 4 parte-hartzaile izan behar ditu. Proiektuaren iraupena 3-18 hilabetekoa izan daiteke eta jarduerak ez du iraupen zehatzik izan behar.

Proiektuan lantzeko aukeratutako gaiak interesgarria izan behar du ekimenean parte hartzen duten gazteentzat eta gazte horien ingurune hurbilarentzat (artea eta kultura, desgaitasuna, kontzientzia europarra, gazte-informazioa, ingurumena, etorkinak, hezkuntza, enplegua, aisialdia, kirola, komunikabideak eta abar).
Proiektua diseinatzeko garaian, taldeak tutore baten laguntza izan dezake baina, funtsean, proiektua taldeak diseinatu behar du.
Jardueraren gastuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak daude. Erkidegoko dirulaguntza baterako finantzaketaren printzipioan oinarritzen da; beraz, beste baliabide batzuk ere izan behar dira, norberarenak edo bestelako diru-laguntza nahiz ekarpenen bidezkoak.

### INFORMAZIO GEHIAGO:

Hona hemen informazio guztia: formularioak, solaskide-bilaketa, esperientziak...
www.juventudenaccion.injuve.es/acciones/iniciativas/?__locale=es

## 11.4.C. 1.3. Ekintza. demokrazia parte-hartzaileko proiektuak

Demokrazia parte-hartzaileko proiektuen helburua zera da: gazteek beren herri, eskualde edo nazioko komunitatearen bizitzan parte-hartze aktibo handiagoa izatea, baita nazioartean ere, demokrazia ordezkatzailearen mekanismoetan parte har dezaten bultzatuz.

18 urtetik 30 urtera bitarteko gazteek parte har dezakete, betiere programan parte hartzen duen herrialde batean bizi badira, legez. Proiektuak hiru hilabetetik hemezortzi hilabetera bitarteko iraupena izan behar du, betiere prestaketa, gauzatzea, ebaluazioa eta jarraipen-jarduerak kontuan izanik.

Demokrazia parte-hartzaileko proiektuen helburua hauxe da, besteak beste:

- Gazteak parte-hartze egituretan integra daitezen sustatzea.
- Agintari publikoen eta gazteen arteko elkarrizketak sustatzen dituzten jarduerak burutzea.
- Elkarrizketa mota oro garatzeko mekanismoak sustatzea.
- Elkarrizketa garatzea, erakundeetako kide ez diren gazteak ere sartuta.
- Gazte talde jakin batzuei parte-hartzea eragozten dieten oztopoak identifikatu eta gainditzea.

EBk proiektu aukeragarrien aurrekontuaren % 75 arteko diru-laguntza emango du, diru-laguntza gehienez ere 50 000 € izanik. Erkidegoko diru-laguntza baterako finantzaketaren printzipioan oinarritzen da; beraz, bazkide parte-hartzaileek edo beste erakunde batzuek ere parte hartu beharko dute finantzaketan, guztizko aurrekontuaren % 25, gutxienez, ordainduta.

Demokrazia parte-hartzaileko proiektu baten sustatzaile diren bazkideetako edozein proiektuaren koordinatzaile izango da eta Agentzia Nazionalean aurkeztu beharko du bazkide parte-hartzaile guztien izenean.

### INFORMAZIO GEHIAGO:

Hona hemen informazio guztia: formularioak, solaskide-bilaketa, esperientziak...
www.juventudenaccion.injuve.es/acciones/democracia/?__locale=es

## 11.5. 2. EKINTZA: EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA

Europako Boluntario Zerbitzua (EBZ) “ikaskuntza”-zerbitzua da, non ikaskuntza ezformalaren alorreko esperientziaren bidez gazte boluntarioek gaitasunak eskuratzen dituzten, edo dagoeneko dituztenak hobetzen, garapen pertsonalari, heziketakoari eta profesionalari begira, baita gizarte-integrazioari begira ere.

> OHARRA: 12. atalean, boluntarioei buruzkoan, Europako Boluntario Zerbitzuari buruzko informazio eta baliabide guztiak aurkituko dituzu.

## 11.6. 3. EKINTZA: GAZTEAK MUNDUAN

Gazteak Munduan ekintzaren helburua hauxe da: gazteen alorrean eta hezkuntza ez-formalaren alorrean munduko beste eskualde batzuekin trukeak eta lankidetza sustatzea. Ekintza horren esparruan, “herrialde bazkideetako” erakunde eta gazteekin egiteko proiektuei laguntza ematen zaie; herrialde horien artean daude Gazteak Ekinean programan parte har dezaketen herrialde guztiak, baina “programako herrialdetzat” hartzen ez direnak.

**Europar Batasuneko auzo-herrialdeekiko lankidetza (3.1. ekintza)**
**Proiektuan gutxienez honako hauek sartu behar dute: auzo-herrialde bazkideetako bi bazkidek eta programako herrialdeetako bi bazkidek. Jarduera programako herrialde batean antola daiteke, edo proiektuan parte hartzen duen auzo-herrialde bazkide batean, betiere Mediterraneo ingurukoa ez bada.**

Ekintza honen esparruan honako jarduera hauek finantza daitezke:
- Gazte-trukeak.
- Prestakuntzako eta sare-loturako proiektuak.

**Munduko beste herrialde kide batzuekiko lankidetza (3.2. ekintza)**
**Neurri honen bidez lankidetza sustatzen duten proiektuak indartu nahi dira, programako herrialdeen eta Europar Batasuneko auzo-herrialdeak ez diren munduko gainerako herrialdeen artean, betiere Europar Batasunarekin hitzarmenik sinatu badute gazteen alorrean. 3.2. ekintzaren barruan, Latinoamerikako, Afrikako, Karibe eta Ozeano Bareko eta Asiako herrialdeekin lotura duten proiektuek izango dute lehentasuna.**

### INFORMAZIO GEHIAGO:

Hona hemen informazio guztia: formularioak, solaskide-bilaketa, esperientziak...
www.juventudenaccion.injuve.es/materiales/materiales.html?__locale=es





# 12. BOLUNTARIOAK




## 12.1. SARRERA 155

## 12.2. NAZIOARTEKO BOLUNTARIOAK 155

12.2.A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa 155

12.2.B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak 156

## 12.3. EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA (EBZ) 158

12.3.A. Europako Boluntario Zerbitzuak Euskadin dituen erakundeak 159

12.3.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak 160

## 12.4. AUZOLANDEGIAK 161

12.4.A. Auzolandegiekin loturiko baliabideak 161

## 12.5. GAZTE TRUKEAK 163

12.5.A. Baliabideaks 163

# 12. BOLUNTARIOAK

## 12.1. SARRERA

Jendeari laguntzen diozun bitartean gaitasun berriak eskuratu nahi al dituzu? Boluntario izanik, jende berria eta beste kultura batzuk ezagutuko dituzu eta esperientzia errepikaezina biziko duzu; horrek guztiak eragin positiboa izango du zure etorkizuneko karreran. Atzerrian izan zaitezke boluntario, edo zure etxetik hurbil. Jarraian aipatuko ditugun webguneen bidez, Europan eta munduan boluntario izateko dauden milaka aukerak aurkeztuko dizkizugu. Esate baterako, Europako Boluntario Zerbitzua, gazte-trukeak eta auzolandegiak.

## 12.2. NAZIOARTEKO BOLUNTARIOAK

Nazioarteko Boluntario Zerbitzua aurreko mendean sortu zen, 1920. urtean, eta hainbat esparrutako ekintzak biltzen ditu, hala nola hezkuntza-alorreko lankidetza, boluntarioak larrialdi eta katastrofe humanitarioetan, prebentzioa eta landa-garapena. Europako Boluntario Zerbitzuak baino perspektiba zabalagoa du.
Prozesuan hiru parte-hartzaile nagusi daude: boluntarioa, erakunde igorlea eta erakunde hartzailea.

Kontuan izan behar da erakunde igorlerik ez dela beti izaten. Irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek ostatua eta otorduak eskaintzen dizkiete gazteei berariazko programetan laguntzako eta lankidetzako lanak egitearen truke. Oporrak edo gure bizitzako aldi bat igarotzeko beste modu bat da; beste hizkuntza eta/edo kultura bat ezagutzeaz gain, interes sozial, kultural edo humanitarioko proiektu batean lagun dezakegu. Erakunde bat edo beste aukeratzeko garaian, hainbat faktore izan behar dira kontuan: zer alorretan lan egin nahi dugun, non egin behar diren boluntario-lanak, zenbat denbora dugun eta gure berariazko prestakuntza.

### 12.2.A. Euskadiko gazteak lankidetzan programa

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi bazara, 20-31 urte badituzu eta jarduera gauzatuko den herrialdeko hizkuntza baldin badakizu, programa honen bidez boluntario-zerbitzua eskain dezakezu Amerikako, Afrikako edo Asiako herrialdeetan, hiru hilabetez.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatzen dute programa hau, Euskadiko gazteak sentsibilizatzeko Hegoaldeko herrialdeen garapenari laguntzeko lankidetza-ekintzen bidez eta EAEko gazteengan herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzeko.

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA: Informazio gehiago Gazteaukera webgunean
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-6525/eu/contenidos/informacion/jov_coop_1programa/eu_13753/programa.html

### 12.2. B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak

Zerrenda honetan, boluntarioen programak dituzten erakundeei buruzko informazioa aurkeztuko dugu:

#### VOLUNTEERS FOR PEACE

Bakearen aldeko ekimenetan eta laguntza humanitarioa ematen nazioartean lan egiteko boluntarioak. www.vfp.org/ [EN]

#### WORLD VOLUNTEER

Mundu osoko boluntarioen lanerako baliabideak biltzen dituen webgunea.
www.worldvolunteerweb.org/[EN]

#### BOLUNTARIO PROGRAMEN NAZIOARTEKO ELKARTEA

Kontsulta itzazu online aukera guztiak eta irakurri informazio praktikoa, baita, oro har, boluntarioen lanari buruzko zenbait gomendio ere. Bi hilean behin buletina kaleratzen dute, eta harpidetza egin daiteke.
www.volunteerinternational.org/ [EN]

#### GLOBAL VOLUNTEER NETWORK

Libre dauden boluntario-postuei buruzko informazioa, Txina, Ekuador, Ghana, Nepal, Errumania, Errusia, Thailandia eta Ugandako erakunde kideen bitartez. Hautagai izan nahi baduzu, online formularioa bete dezakezu. Eta ez ahaztu argazkiak begiratzea!
www.volunteer.org.nz/ [EN]

#### OXFAM

Oxfam International erakundearen edo bere erakunde elkarturen baten boluntario-zerbitzuaren jardueretan parte hartzeko moduari buruzko informazio praktikoa.
www.oxfam.org/en/getinvolved/volunteer

### NAZIOARTEKO ZERBITZU ZIBILA

Boluntarioen proiektuak, epe labur eta luzekoak, mundu osoan; horrelako proiektuak gauzatzen dituzten erakundeei buruzko informazioa eta beste hamaika lotura eta dokumentu baliagarri. www.sciint.org [EN]

### BOLUNTARIOAK ATZERRIAN

Boluntario-zerbitzua interesatzen al zaizu? Webgune honetan boluntarioen lanari buruzko informazioa aurkituko duzu, baita nondik hasi behar duzun ere. Beste webgune baliagarri batzuekiko loturak ere baditu.
www.volunteerabroad.com/ [EN]

### WORKINGABROAD

Erakunde independentea, mundu osoan boluntario aritzeko aukera ematen duena. Hautagai izateko formularioa online bete dezakezu eta boluntarioen esperientziak ere irakur ditzakezu.
www.workingabroad.com [EN][FR]

### YOUTH CHALLENGE INTERNATIONAL

Erronkak gustuko dituzu? Bizi ezazu esperientzia hau 18-30 urteko boluntario-taldeekin batera, tokiko garapenaren, arreta sanitarioaren eta ingurumenaren esparruetan. www.yci.org [EN]

### BRITISH TRUST FOR CONSERVATION VOLUNTEERS

Fundazio honek ingurumena babestearekin loturiko boluntario-lanak sustatzen ditu.
www.btcv.org.uk/ [EN]

### COMMUNITY SERVICE VOLUNTEERS

Erresuma Batuko boluntario-lanari buruzko informazioa eskaintzen du.
http://csv.org.uk/?display=volunteering [EN]

### CROSS-CULTURAL SOLUTIONS

Boluntario-programa hauek osasunarekin, hezkuntzarekin eta garapenarekin loturik daude, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Asiako, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako hainbat eremutan dituzte programak.
www.crossculturalsolutions.org/ [EN]

### DO IT

Britainia Handiko boluntario-erakundea; 40 urtetik gorako esperientzia du. Erresuma Batuko boluntario-lanari buruzko datu-basea eskaintzen du.
www.do-it.org.uk/youthnet/jsp/polopoly.jsp?d=445 [EN]

### DRH NORWAY: ONE WORLD VOLUNTEER INSTITUTE

Boluntario- eta lankidetza-programak gazteentzat.
www.drh-norway.org/ [EN]

### INTERVIDA

Proiektu humanitarioak Asian, Afrikan eta Latinoamerikan. Boluntarioen poltsa dauka.
www.intervida.org/

### I-TO-I

Boluntario-lanak hamaika herrialdetan eta ingeles-irakasle izateko prestakuntza.
www.i-to-i.com/ [EN]

### Kibbutz Volunteer

Israelgo kibbutz batean boluntario jarduteko gomendioak eta informazioa.
www.kibbutzprogramcenter.org/ [EN]

### Teaching & Projects Abroad

Irakaskuntzako eta boluntarioen proiektuak mundu osoko hogei herrialdetan.
www.teachingabroaddirect.co.uk/ [EN]

### United Nations Volunteers

Nazio Batuen boluntario-laneko programa.
www.unv.org/

## 12.3. EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA (EBZ)

Gazteak Ekinean Programa Europar Batasunaren ekimena da, eta mugikortasuna eta elkarren ezagutza sustatzea ditu helburu; 2007-2013 aldian egongo da indarrean. Programa horren ekintzetako bat Europako Boluntario Zerbitzua da, eta 18-30 urteko gazteei zuzenduta dago; gazte horiek 6 hilabetetik 12 hilabetera bitarteko aldian boluntario-lanak egiteko aukera izaten dute, askotariko jarduera-alorretan: gizarte-alorra, ingurumena, kultura, kirola, artea..., betiere boluntarioaren jatorrizko herrialdea ez den beste batean.

Ahalegin bereziak egiten dira, baita pizgarriak eman ere, egoera ahuleko gazteek, baita desgaitasunak dituztenek ere EBZn modu aktiboan parte har dezaten 16 urtetik aurrera.

### Nola parte hartu Europako Boluntario Zerbitzuan?

Datu-base batean, harrerako erakunde guztiak eta garatzen dituzten proiektuak biltzen dira, baita gertuen dauden erakunde igorleak ere. Erabil ezazu datu-basea zure intereseko proiektu bat bilatzeko; jarri harremanetan zure gertuko elkarte batekin eta haiek bideratuko dizute guztia.
www.evsdatabase.eu

### Hona hemen EBZren helburuak:

- Kulturarteko ikaskuntza-esperientzia ez-formal berria eskaintzea, gazteen gizarteratzea eta laneratzea sustatuz eta besteekiko jarduera solidarioetan modu aktiboan parte har dezaten bultzatuz.
- Tokiko komunitatearen garapenari laguntzea.
- Hainbat herrialdetako erakundeen artean esperientziak elkartrukatu eta lotura berriak egin daitezen indartzea.

Proiektua lankidetzan oinarritzen da; hain zuzen ere, elkartutako hiru aldeen gizarte-lankidetzan: boluntarioa, erakunde igorlea eta erakunde hartzailea.

*Erakunde igorleak* honako konpromiso hauek hartzen ditu: boluntarioari nazioarteko bidaia bideratzeko, asegurua kudeatzeko eta abiatu aurretik prestakuntza eskaintzeko konpromisoa.

*Erakunde hartzaileak* honako konpromiso hauek hartzen ditu: boluntarioari etengabe laguntza emango dion tutore bat eskaintzeko konpromisoa; boluntarioa proiektuko jardueretan txertatzeko eta prestakuntza emateko konpromisoa; jarraipena eta tutoretza egiteko konpromisoa; ostatua, mantenua eta diru xehea emateko konpromisoa; eta proiektua gauzatzen den tokiko ingurunean boluntarioa integratzeko konpromisoa, hizkuntzaren, kulturaren eta gizartearen alorretan.

Boluntarioak gastu guztiak ordainduak izaten ditu: bidaia, ostatua eta mantenua, asegurua eta diru xehea. EBZ proiektuen bidez ez dira lanpostuak betetzen; ordainsaririk gabeko jarduera boluntarioak dira.

### 12.3.A. Europako Boluntario Zerbitzuak Euskadin dituen erakundeak

Boluntarioen proiektu batean parte hartu nahi baduzu, jo ezazu Euskadin egiaztatutako erakunde igorle edo hartzaileren batera. Gaur egun Euskadin Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzen ari diren erakunde igorle nahiz hartzaile egiaztatuen zerrenda aurki dezakezu Gazteaukeran, bai eta partaideen esperientziak eta argazkiak ere.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-5072/eu/contenidos/informacion/prog_juve_vol/eu_9470/prog_juve_vol_e.html

## 12.3.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak

### EBZ: INFORMAZIO GEHIAGO ETA HAUTAGAI IZATEKO FORMULARIOAK

Xehetasun gehiago aurkituko dituzu gazteria-programaren Europako Boluntario Zerbitzuaren proiektuari buruz: proiektuaren deskribapenak, nork parte har dezakeen eta nola parte hartu.

Boluntario nahiz erakunde hartzaile izan, EBZren programa batean parte hartzeko eskaera aurkezteko nahitaez bete beharreko formularioak aurkituko dituzu (PDF edo WORD formatuan).
http://ec.europa.eu/youth/youth-in-action-programme/doc82_en.htm# [EN]

### GAZTEAUKERA EUSKADIKO GAZTEEN ATARIA

Gazteaukera atarian honako hauek aurki ditzakezu: gaur egun Euskadin EBZn parte hartzen ari diren erakunde igorle eta/edo hartzaile egiaztatuak, baita parte-hartzaileen esperientziak eta argazkiak ere.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-5072/eu/contenidos/informacion/prog_juve_vol/eu_9470/prog_juv_vol_e.html

### EUROPAKO BOLUNTARIO OHIEN ESPAINIAKO SAREA (REVE)

REVE kultura-arloko irabazi-asmorik gabeko elkartea da eta Europako Boluntario Zerbitzuaren barruko zerbitzua amaitu duten gazteei eta Europako gazte-programen barruko jardueretan parte hartu nahi dutenei laguntza eta orientazioa ematen die.
www.ex-evs.es/

### ZERBITZU BOLUNTARIOAREN EUROPAKO ERAKUNDEEN ELKARTEAO

Elkarte honetan biltzen dira zerbitzu boluntarioaren nazioarteko proiektuak gauzatzen dituzten erakunde nazionalak. Webguneak sarearen aurkezpen zehaztua eskaintzen du, baita kideen zerrenda bat ere.
www.facebook.com/alliancenetwork/info [EN]

### ZERBITZU BOLUNTARIOAREN ERAKUNDEEN ELKARTEA

Atzerrian boluntario-jarduera egin nahi baduzu, webgune honek informazioa eskainiko dizu Europan zerbitzu boluntarioko programekin lan egiten duten erakunde kide guztiei buruz.
www.avso.org [EN]

### GAZTEEN EUROPAKO ATARIA

Europako Boluntario Zerbitzuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, atari hau bisitatzea gomendatzen dizugu
http://europa.eu/youth/index.cfm?1_id=es

## 12.4. AUZOLANDEGIA

Auzolandegia zera da, arraza, kultura, ideologia eta nazionalitate guztietako pertsonak elkarrekin bizi eta lan egiten duten toki bat; 10 egunetik hilabete batera bitarte irauten du proiektuak eta tokiko babesle batek antolatzen du. Auzolandegi gehienak udan izaten dira eta 7 parte-hartzailetik 25 parte-hartzailera bitarte izaten dituzte, nazioartekoak.

Auzolandegietan jende askoren energiak uztartu eta elkarrekin gure etorkizun komuneko arazo garrantzitsuak konpontzen dira. Pariseko haurrentzako zentro batean lan egin dezakezu, Austriako garapen iraunkorreko proiektu batean eta abar.

Proiektuak hiru kategoriatan sailkatzen dira:

- lan fisikoa: eraikuntza, konponketak edo haztegiak;
- gizarte-lana: haurrekin edo arazoak dituen jendearekin; eta
- lana eta ikasketak: lan egitearekin batera ikasi ere egiten da.

Eta hainbat modalitate ere badira, nazioartean erabiltzen den kodearen arabera.

- AGRI - Nekazaritza
- ART - Auzolandegi artistikoak
- CONS - Eraikuntza
- CULT - Kultura
- ENVI - Ingurumena
- FEST - Jaia
- HIST-STUDI – Historia eta ikasketak
- KIDS - Umeekin lan egitea
- MANU - Eskuz egin beharreko lanak
- RENO - Zaharberritzea
- RENO-HERI-RESTORATION – Kultura edo ondarea
- SOCI - Gizarte-proiektua
- WORK & STUDY – lana – ikasketak / Eztabaidak / Ikerketa

### 12.4. A. Auzolandegiekin loturiko baliabideak

#### AUZOLANDEGIAK EUSKADIN

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak Euskadiko gazteentzat auzolandegiak antolatzen ditu atzerrian. Gazteaukera webgunean izango duzu plazei eta baldintzei buruzko informazioa, baita jendearen esperientziak ere.
www.gazteaukera.euskadi.net/r58-3412/eu/contenidos/informacion/campos_trabajo_informacion/eu_7496/campos_trabajo_informacion.html

### NAZIOARTEKO ZERBITZU ZIBILA

Boluntario-zerbitzuko erakundea; mundu osoan 37 adar eta talde ditu eta iraupen laburreko auzolandegien antolaketa zuzentzen du. Auzolandegiei buruzko informazio orokorra eta joan aurretik prestatzeko gomendioak. Auzolandegiak bilatzeko, herrialdearen arabera edo gaiaren arabera egin daiteke.
www.ongsci.org

### Concordia

Erakunde honek Europan, Afrikan, Asian eta Latinoamerikan auzolandegiak finkatzen eta babesten ditu. Auzolandegiei buruzko informazioa eta, joan aurretik, nola funtzionatzen duten hobeto ezagutzeko eta prestatzeko gomendioak.
www.concordia-association.org/index.php [FR]

### NAZIOARTEKO TRUKERAKO ONGINTZAKO ERAKUNDEA

Nazioarteko erakunde honek Alemanian, Latinoamerikan eta Suitzan ditu auzolandegiak. Programei buruzko informazio orokorra ematen du eta auzolandegi batean aurki daitekeenaren gaineko gomendioak ere bai. Informazioaren zati bat ingelesez aurki daiteke. www.ibg-workcamps.org [DE][EN]

### Pro International

Alemaniako erakunde honek mundu osoko auzolandegietan jarduten du. Proiektuen deskribapena egiten da webgunean eta hautagai izateko formulario bat ere aurki daiteke, parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko datuekin batera. Informazioaren zati bat ingelesez ere aurki daiteke (programa PDF formatuan).
www.pro-international.de [DE]

### NAZIOARTEKO BOLUNTARIO ZERBITZUA

Udako kanpamendu batean parte hartzeko aukera izango duzu Europan, Ipar Amerikan edo Afrikako iparraldeko herrialdeetan, mundu osoko jendea ezagutuz. Proposatzen dituzten jardueren artean, bakearen aldeko eta arrazakeriaren aurkakoak nabarmen ditzakegu. Egonaldiak iraupen labur, ertain edo luzekoak izan daitezke. 18 urtetik gorakoek baino ezin dute parte hartu.
www.ivs-gb.org.uk [EN]

### GAZTE BOLUNTARIOEN NAZIOARTEKO ZERBITZU KOMUNITARIOAK

Alemanian eta Europako gainerako herrialdeetan antolatzen diren iraupen laburreko auzolandegiei buruzko informazioa, baita Afrikan, Asiako hegoaldean eta Latinoamerikan egiten diren auzolandegi luzeei buruz ere. Programen eta proiektuen deskribapena eta eskaera aurkezteko eta prestatzeko gomendioak. Informazioaren zati bat ingelesez aurki daiteke. www.ijgd.de [DE][EN]

### GAZTEEN ELKARTASUNA: NAZIOARTEKO AUZOLANDEGIAK

Frantziako Gazte eta Kirol Ministerioaren esparruan, elkarte honek nazioarteko auzolandegiak antolatzen laguntzen du. Auzolandegiei buruzko informazio orokorra.
www.solidaritesjeunesses.org/?section=1 [EN][FR]

### BAKEAREN ALDEKO BOLUNTARIOAK

80 herrialdetan egiten diren nazioarteko auzolandegiei buruzko informazioa. Honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: 80 herrialdetako auzolandegietarako harreragileak eta boluntarioak kontsultatu eta izendatzea, hautagai bakoitzarentzat egokiena den programa bilatzeko laguntza, ohiko galderak, auzolandegien direktorio bat eta boluntarioentzako gomendioak.
www.vfp.org [EN]

## 12.5. GAZTE TRUKEAK

Truke-programei esker, beste herrialde bateko familia batera joateko aukera izando duzu aldi baterako; familia aldez aurretik hautatzen da eta horrekin batera, ikastetxe batera ere joango zara, edo bestela, ikasturtea atzerrian egin dezakezu harrerafamilia batean.

Familiek kultura-trukean parte har dezakete etxetik atera ere egin gabe. Nazioarteko parte-hartzaile bat hartuz gero, familia osoak izango du kulturarteko esperientzia paregabe eta aberasgarria bizitzeko aukera. Irakatsiz, ikasiz eta konpartituz, denbora eta distantzia gaindituko dituen adiskidetasuna eta lotura sortuko da.

> ! Oharra: Gazteak Ekinean programaren barruan, Europar Batasunak taldeko gazte-trukeak finantzatzen ditu. Informazio gehiago nahi izanez gero, Europako Programen 11. atalean aurkituko duzu.

### 12.5. A.Baliabideak

### IKASI ETA ESPERIMENTATU BESTE KULTURA BATZUK

AFS boluntarioen erakundea da, irabazi-asmorik gabekoa. Webgunean programak aurki daitezke, gazte parte-hartzaileen eta nazioarteko ikasle gazteak hartu nahi dituzten familien artean kulturarteko ikaskuntza sustatzeko programak, hain zuzen.
www.afs-intercultura.org

### Youth for understanding (nazioarteko ikasle trukea)

Urtebete edo uda bat atzerriko familia gonbidatzaile batekin bizitzen igarotzeko aukerak aurkituko dituzu. Hautatu zure jatorrizko herrialdea eta parte hartzeko moduari buruzko informazioa lortuko duzu.
www.yfu.org

### GAZTEAK BAKEAREN ALDE EKINEAN (YOUTH ACTION FOR PEACE - YAP)

Webgune honetan, mundu osoko boluntarioen trukeetan parte hartzen eta nazioarteko gazte-mugimenduekin lan egiten duten erakundeen lotura interesgarriak aurkituko dituzu.
www.yap.it [EN]

### Lions Club

Erakunde honek 15-21 urteko gazteen arteko trukeak antolatzen ditu, lau astetik sei astera bitarteko aldietarako. Nazioarteko harremanen eta zonen araberako trukeen arduradunekin harremanetan jartzeko informazioa aurkituko duzu. Informazioaren zati bat beste hizkuntza batzuetan ere aurki dezakezu; web-orri nagusian egin behar da hautaketa.
www.lionsclubs.org/EN/index.php [EN]

### GAZTEEN NAZIOARTEKO TRUKE ERAKUNDEA

Erakunde honek mugikortasuna, nazioarteko ikaskuntza eta Nazioarteko Boluntario Zerbitzua sustatzen ditu. Hautagai izateko eskaerak aurkezteko eta herrialde elkartuei buruzko informazioa.
www.icye.org [EN]





# 13. EUROPAKO SAREAK




## 13.1. EUROPAKO SAREAK 167
## 13.2. EUROPAKO INFORMAZIOAREN EUSKAL SAREA (REVIE) 167
## 13.3. EUROPAKO BATZORDEAREN ESPAINIAKO ORDEZKARITZA 168
## 13.4. EUROPAKO BATZORDEAREN INFORMAZIO SAREAK 169

13.4.A. Europe Direct 170
13.4.B. Europako Dokumentazio Zentroak (EDZ) 171
13.4.C. Eures 171
13.4.D. Naric 173
13.4.E. Ploteus 173
13.4.F. Eurodesk 174
13.4.G. Euroguidance 175
13.4.H. Solvit 175
13.4.I. Kontsumitzailearen Europako Zentroa 176
13.4.J. Enpresei laguntzeko Europako sarea 176

# 13. EUROPAKO SAREAK

## 13.1. EUROPAKO SAREAK

Europar Batasun osoan sare ugari daude eta lagungarri izango zaizkizu informazioa bilatzeko, zure eskubideen berri izan eta horiek baliatzeko, tituluak homologatzeko edo lana bilatzeko. Sare horietan erakundeak, GKEak, elkarteak eta kolektiboak biltzen dira, eta, beste herrialde batera mugitzeko garaian zalantzarik izanez gero, argitzen lagun diezazukete. Bila itzazu gertuko kontaktuak eta erabili. Ez ahaztu Euskadin ere badituzula baliabideak!

## 13.2. EUROPAKO INFORMAZIOAREN EUSKAL SAREA (EIES)

Europako Informazioaren Euskal Sarea (EIES) 1997. urtean sortu zen honako helburu hauekin: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Europako informazioarekin loturik dauden baliabideak optimizatzea eta Sarea osatzen duten zentroen informazioko eta zabalkundeko lanetan (Euskadiko erakunde publiko nahiz pribatuei eta herritarrei begira) koordinazioa eta lankidetza handiagoa izatea.

EIESen lan-alorrak informazioa, aholkularitza eta zabalkundea dira, Europar Batasunarekin loturiko gai guztietan.
Euskadiren Ordezkaritza Bruselan, Eusko Jaurlaritzaren organo den aldetik, EIESeko kide da eta eginkizun garrantzitsuak betetzen ditu sarearen barruan, Sareko Zentro guztientzat funtsezko euskarri baita Belgikako hiriburuan.

### EUROPAKO INFORMAZIOAREN EUSKAL SAREA (EIEs)
www.revie.euskadi.net/y92-home/eu

### MIEMBROS DE LA RED VASCA DE INFORMACIÓN EUROPEA (REVIE)

- Eusko Jaurlaritza: Europar Batasunerako eta Kanpo Harremanak Koordinatzeko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza: Euskadiren Ordezkaritza Bruselan
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- EUDEL (Euskal Udalen Elkartea)

- Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera
- Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera
- Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala
- SEA – Arabako Enpresariak
- Deustuko Unibertsitatearen Europako Dokumentazio Zentroa
- Euskal Herriko Unibertsitatearen Europako Dokumentazio Zentroa
- Arabako Euroliburutegia
- Europe Direct Itsasmendikoi
- Europe Direct Araba

## 13.3. EUROPAKO BATZORDEAREN ESPAINIAKO ORDEZKARITZA

Europako Batzordeak Ordezkaritzak ditu Estatu Kide guztietan; zenbait herrialdetan (Espainian edo Frantzian, esaterako), Batzordeak Ordezkaritza bat baino gehiago izaten du. Jarraian, Espainiako Ordezkaritzaren egitekoa zein den azalduko dugu, zuri ere lagungarri izan dakizukeelako.

### ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:

**1.** Informazioa, dokumentazioa eta komunikazioa: Harremanetan jartzeko, telefono-zenbakia: 91 423 80 00; eta helbide elektronikoa: eu-es-docu@ec.europa.eu
**2.** Komunikabideei informazioa ematea.
**3.** Europako Batzordearen ordezkaritza Espainian.
**4. Herritarrentzako Orientazio Zerbitzua: HOZean aholkulari juridiko independente talde bat dago eta EBn dituzun eskubideekin loturiko zerbitzu doakoa eta pertsonalizatua eskainiko dizu zure hizkuntzan.**
css.madrid@gmail.com
**5.** Marka, marrazki eta modeloen erregistroa EB osoan:
http://ec.europa.eu/spain/servicios/informacion-para-empresas/oami/index_es.htm

### EUROPAKO BATZORDEAREN ESPAINIAKO ORDEZKARITZA

http://ec.europa.eu/spain/index_es.htm

**Europako Batzordea. Espainiako ordezkaritza, Madril**
Paseo de la Castellana, 46. E-28046 Madrid
Tel: 91 423 80 00. Helbide elektronikoa: eu-es-docu@ec.europa.eu

**Europako Batzordea. Eskualdeko ordezkaritza, Bartzelona**
Paseo de Gracia, 90, 1º. E- 08008 Barcelona
Tel: 93 467 73 80. FaxA: 93 4677381. Helbide elektronikoa: burbar@ec.europa.eu

## 13.4. EUROPAKO BATZORDEAREN INFORMAZIO SAREAK

Europako Batzordeak hainbat baliabide eta informazio-puntu ditu eta horietara jo dezakezu Europar Batasunari buruzko informaziorik behar izanez gero. Informazio-puntu gehienetan gai guztiei buruzko informazioa eman eta zalantzak argitzen dituzte, baina badira beste zenbait, berariazkoagoak direnak. Hona hemen:

| ZER NAHI DUZU? | SAREA | INFORMAZIOA |
|---|---|---|
| **Informazio orokorra** | | |
| Zure hiriko Europar Batasunari buruzko informazio-puntuak aurkitu | Europe Direct | Orokorra |
| Europar Batasunari buruzko informazioa eskaintzen dituzten unibertsitateak zein diren jakin | Europako Dokumentazio Zentroak | Orokorra |
| **Prestakuntzari eta enpleguari buruzko informazioa** | | |
| Europar Batasunean lana eta lan-praktikak egiteari buruzko informazioa | Eures | Enplegua Europar Batasunean |
| Europan ikasteko programei buruzko informazioa | Euroguidance | Prestakuntza eta enplegua Europar Batasunean |
| Zure titulua Europar Batasuneko beste herrialde batean homologatu | Naric | Tituluak homologatzea |
| Gazteentzako prestakuntzako eta boluntarioen programa bat bilatu | Eurodesk | Gazteentzako informazioa |
| Europar Batasunean dauden ikasteko eta prestakuntzako aukerak | Ploteus | Ikaskuntza eta prestakuntza EBn |
| Enpresa bat baduzu eta, adibidez, EBko lege batek zertan reagiten dizun jakin | Enpresei laguntzeko Europako Sarea | Enpresentzat espezializatua |
| **Nire eskubideak Europar Batasunean** | | |
| Barne-merkatuaren barruan, EBko beste herrialde bateko administrazio edo enpresa batek zure eskubideak urratu dituela uste baduzu | Solvit | Berariazkoa. Barne-merkatua Europar Batasunean |
| Kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa behar baduzu, edo Europar Batasuneko herritar garen aldetik, kontsumoaren arloko zer babes dugun jakin nahi baduzu | Kontsumitzailearen euroleihatila | Kontsumitzaileen babesa eta defentsa |

## 13.4. A. Europe Direct

Europe Direct informazio-sarean EBko herrialde guztietako 500 informazio-zentro baino gehiago biltzen dira eta Europar Batasunari buruzko informazio orokorra eskaintzen dute (sentsibilizazioa, webguneak, argitalpenak, tokiko komunikabideekiko konpromisoak eta abar).

### Europe Direct sareak zer eskaintzen du?

— Informazio-zerbitzu nagusia: EBko edozein tokitatik 00 800 67 89 10 11 telefono-zenbakira doan dei dezakezu; bestela, helbide elektronikora idatz dezakezu. Zure galderei berehala erantzungo diete eta informazio espezializatua jasoko duzu; EBri buruzko argitalpenak doan bidaliko dizkizute, postaz.

— Tokiko informazio-zerbitzuak: EBko herrialde bakoitzera egokitutako informazioa ematen dute. EBko herrialde guztietako agenteei eta informazioko nahiz dokumentazioko zentroen sareak zalantzak argitzen lagunduko dizu EBn dituzun eskubideei, bekei, proiektuei eta abarri buruz. Harremanetarako datuak eta EBn integratzeko informazio-jardueretarako gonbidapenak ere emango dizkizute.

### EUROPE DIRECT

http://europa.eu/europedirect/index_es.htm

**EUROPE DIRECT EUSKADIN**
Europe Direct Donostia San Sebastián
Prim kalea 14, 2ºD. 2006 Donostia San Sebastián
Tel: 943 47 09 62. Jorge Sáez Martínez
E-mail: europedirect@kaebnai.net
Internet: http://www.kaebnai.net

**Europe Direct Bizkaia**
Simón Bolívar kalea 8B. 48010 Bilbao
Tel: 94 607 25 28 . Itziar Fernández Marrón
E-mail: europedirect@fundacionede.org
Internet: http://www.europedirectbizkaia.org

**Europe Direct Itsasmendikoi**
01192 Arkaute
Tel: 945 28 53 87
Faxa: 945 41 02 52. Jone Fernández Landa
E-mail: jfernandez@itsasmendikoi.net
Internet: http://www.itsasmendikoi.net

### 13.4.B. Europako Dokumentazio Zentroak (EDZ)

Europako Dokumentazio Zentroen sarean Europako unibertsitateetako eta ikerketa-erakundeetako 400 zentro baino gehiago biltzen dira Europako integrazioari buruzko ikerketa eta hezkuntza sustatu eta garatzeko, betiere Europari buruzko eztabaidan parte-hartzea sustatuz.
EBko politikak hobeto ezagutzen laguntzen diote herritarrari. Edonork jo dezake zentro batera, EBko argitalpen ofizialak kontsultatzeko.

#### EUROPAKO DOKUMENTAZIO ZENTROAK
http://europa.eu/europedirect/index_es.htm

#### EUROPAKO DOKUMENTAZIO ZENTROAK EUSKADIN

**Euskal Herriko Unibertsitateko Europako Dokumentazio Zentroa**
**Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea**
**Agirre Lehendakariaren Etorbidea 83**
Tel: (+34) 946 013 651 / 652
Fax: (+34) 946 013 899
Zuzendaria: Arantza Mendizábal Gorostiaga
Dokumentalista: Rosario Martínez Pérez
E-mail: cde@ehu.es
Internet: www.ehu.es/servicios/CDE

**Deustuko Unibertsitateko Europako Dokumentazio Zentroa**
Unibertsitateko Liburutegia
Ramón Rubial kalea 1. 48009 - BILBAO
Tel.: (+34) 944 139 417
Fax: (+34) 944 139 424
Zuzendaria: María Luz Suárez Castiñeira
Dokumentalista: Begoña Prado Mota
E-mail: begona.prado@deusto.es
Internet: http://www.iee.deusto.es/servlet/Satellite/Page/1275910531283/_eusk

### 13.4.C. Eures. Mugikortasun profesionalaren europako ataria

EURES mugikortasun profesionalaren ataria da, baina askoz gehiago ere bada, 700 EURES aholkulari baino gehiagoko giza sarea baitu Europa osoan.
EURES sareak informazioko, aholkularitzako eta kontratazioko/laneratzeko (enplegu-bilaketa) zerbitzuak eskaintzen dizkie langile eta enpresaburu guztiei, baita Europar Batasuneko pertsonen zirkulazio askea baliatu nahi duten herritar guztiei ere.

EURES lankidetza-sarea da; hain zuzen ere, Europako Batzordearen eta EEEko Estatu kideetako (EBko herrialdeak, Norvegia, Islandia eta Liechtenstein) Europako enplegu-zerbitzu publikoen eta elkartutako beste erakunde batzuen arteko lankidetza-sarea. Suitza ere sartuta dago EURES sarean.

EURES sareko kideen eta elkartutako erakundeen baliabideak bateratuta, oinarri sendoa osatzen du EURES sareak, langileei eta enpresaburuei goi-mailako kalitateko zerbitzuak eskaintzeko.

### EURES

http://ec.europa.eu/eures/

### EURES AHOLKULARIAK EUSKADIN

**LANBIDE BIZKAIA**

*Dolores Goitiandia Gorrochategui*
Saralegi kalea, 3 y 4
48003 Bilbao
Tel.: 94 4985987
eures-bizkaia.goitiandia@sepe.es

**LANBIDE GIPUZKOA**

*Violeta Morcillo Narciso*
San Martzial kalea, 12
20005 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 596220
eures-gipuzkoa.morcillo@sepe.es

**LANBIDE ARABA**
Nieves Saiz-Calderón Salazar
Jose Atxotegi, 1
01009 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 181355
eures-araba-alava.saiz@sepe.es

> EURES erabiltzeko eta EBn enplegua bilatzeari buruzko informazio zehatza aurkituko duzu EBko enpleguari buruzko gidaren 4. atalean.

### 13.4.D. Naric

#### NARIC, EB-KO BESTE HERRIALDE BATEAN LAN EGITEKO EDO IKASTEKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA ETA ONARPENA

Nazionalak) sarea 1984. urtean sortu zen, Europar Batasuneko Estatu Kideetan, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan eta Europa Erdialdeko eta Ekialdeko herrialdeetan egindako ikasketa edo ikasketaldien onarpen akademikoa hobetzeko asmoz.

NARIC sareak informazioa eskainiko dizu zure unibertsitate-titulua homologatu nahi baduzu Europar Batasuneko edozein herrialdetan ikasteko. Europar Batasuneko beste estatu kide batean lan egin nahi dutelako lanbide-onarpena lortu nahi dutenentzat ere informazio-puntu garrantzitsua da. NARICek abantaila bat du: sarean lan egiten du; beraz, erabiltzaileei ematen zaien informazioa intereseko herrialdetik zuzenean jasotakoa izaten da.

#### NARIC SAREA

www.enic-naric.net

#### NARIC ESPAINIA

**Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa**
Tituluen, Aintzatespenen eta Kualifikazioen Zuzendariordetza Nagusia
Paseo del Prado, 28 - 28014 Madrid.
Tel: 00 34 91 506 55 93 Fax: 00 34 91 506 57 06
E-mail: naric@mecd.es
Web: http://www.mecd.gob.es/naric
Harremanetarako: Belén Hernández / Antonio J. Lara

OHARRA: tituluak homologatzeari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, gidaren 5. atalean aurkituko duzu, EBko prestakuntzari buruzkoan.

### 13.4.E. Ploteus

EUROPAKO ESPARRUAN IKASTEKO AUKEREI BURUZKO WEB ATARIA PLOTEUS webgunearen helburua informazioa bilatzen laguntzea da, ikasleei, lana bilatzen ari direnei, langileei, gurasoei, orientatzaileei eta irakasleei laguntzea Europako ikasketei buruzko informazioa bilatzen.

Funtsean, Europar Batasunean dauden prestakuntzako eta ikasteko aukerei buruzko informazioa eskaintzen du; honako hauek ere aurki daitezke: goi-mailako irakaskuntzako erakunde eta unibertsitateetako webguneetarako loturak, ikastetxeetako eta lanbide-heziketako datu-baseak, eta helduen hezkuntza-ikastaroak.

### PLOTEUS WEBGUNEA

http://ec.europa.eu/ploteus/

> OHARRA: PLOTEUS webguneari eta bere funtzionamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, EBko prestakuntzari buruzko gidaren 5. atalean aurkituko duzu.

## 13.4.F. Eurodesk

Eurodesk INFORMAZIO ZERBITZUA DA, GAZTEENTZAKO EUROPAKO EKIMEN ETA PROGRAMEI BURUZKO INFORMAZIO ZERBITZUA

Eurodesk Europako ekimen eta programei buruzko informazio-zerbitzua da eta EBko gazteriari eta prestakuntzari buruzko programen berri izan nahi duenari zuzenduta dago.

EURODESK sareak Europa osoko herri eta hirietan bulegoak ditu eta informazioa zuzenean helarazten die gazteei.

Gazteen Europako Atariaren webgunea ere erreferentzia-puntu izaten da horrelako ekimenei buruzko informazioa lortzeko eta sare honek kudeatzen du.

http://europa.eu/youth

### EURODESK SAREA

www.eurodesk.eu/edesk/

### EURODESK SAREAK EUSKADIN DITUEN TOKIKO PUNTUAK

**Eurodesk Sarea Bizkaia**

Euskadiko Gazteen Informazio eta Dokumentazio Zentro Koordinatzailea
Gazteria eta kirol Zuzendaritza-Eusko Jaurlaritza
Tel: 945 019539. Faxa: 945 016935
gazteinformazioa@ej-gv.es gazteinfoeuskadi@gmail.com

**Eurodesk Sarea Gipuzkoa**

Kaebnai elkartea
Prim kalea, 14 2.º D. 20006 – Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 47 09 62/ 656 96 71 79
kaebnai@gmail.com www.kaebnai.net www.kaebnai.org

## 13.4.G. Euroguidance

Euroguidance zerbitzuak Europar Batasuneko beste herrialde batean ikasteko programei buruzko informazioa eskaintzen du: lanbide-heziketatik masterretara, bigarren hezkuntza ere barnean hartuta. Europar Batasunean ikasteko programei buruzko orientazioa nahi duten partikularrei zuzenduta dago, baita orientatzaile profesionalei ere.
Euroguidance baliagarri izango zaizu baldin eta, adibidez, partikular bat bazara eta Erresuma Batuan kazetaritzari buruzko ikastaro bat egin nahi baduzu unibertsitaterik ospetsuenean.

**EUROGUIDANCE: EUROPAN IKASTEKO PROGRAMEI BURUZKO INFORMAZIOA**
www.euroguidance.net/

**ESPAINIAKO BULEGOAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO**
Los Madrazo, 17. 4ª Planta. 28071. Madrid.
Tel: 91 701 54 65. sop@mec.es

## 13.4.H. Solvit

**BARNE MERKATUKO ARAZOAK KONPONTZEKO**

Solvit sareak barne-merkatuan sortzen diren arazoak modu praktikoan konpontzen laguntzen die bai partikularrei, bai enpresei. Laguntza-zerbitzua doakoa da; dena Internet bidez egiten da eta bi aldeen artean bitartekotza egiten laguntzen du, eta are gehiago: gatazkaren konponbide praktikoa lortzen saiatzen da.

Barne-merkatuko arazoak konpontzeko Solvit lagungarri izan daitekeen kasuen adibideak:

- egoitza-baimena lortzeko arazoak;
- titulazioa edo lanbide-prestakuntzak onartzea;
- ibilgailua matrikulatzea; eta
- lan-arloko eskubideekin, gizarte-segurantzarekin, errentaren gaineko zergarekin edo boto-eskubidearekin loturiko gaiak.

**SOLVIT SAREA**
http://ec.europa.eu/solvit/

**SOLVIT SAREAK ESPAINIAN DITUEN HARREMANETARAKO PUNTUAKA**
Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa
Serrano Galvache, 26. 28033 Madril
Tel.: 91 379 99 99. Faxa: 91 394 8684
Harremanetarako: Ana Iglesias, Ana María Hernández, Javier Pascual Pontones
solvit@ue.mae.es

### 13.4.I. Kontsumitzailearen Europako Zentroa

#### EUROLEIHATILA: KONTSUMITZAILEAREN BABESA ETA DEFENTSA EUROPAR BATASUNEAN

Espainian dagoen Kontsumitzailearen Europako Zentroa kontsumitzaileei arreta emateko bulegoa da; Europar Batasuneko edozein Estatu Kideko kontsumitzaileei zuzenduta dago, norberarena ez den beste herrialde batean zerbitzu bat baliatzeko garaian edo ondasun bat erosteko garaian informazioa edo laguntza behar izanez gero. Hortaz, Espainiako nazionalitatea baldin baduzu eta Alemanian auto bat erosi nahi baduzu, Kontsumitzailearen Europako Zentroak zure eskubideei buruzko informazioa emango dizu.

**Kontsumitzaileen Europako Zentroa Espainian**

Príncipe de Vergara, 54. 28006 Madril
Tel.: 918224555 Faxa: 918224562
Email: cec@consumo-inc.es
www.cec.consumo-inc.es/

### 13.4.J. Enpresei Laguntzeko Europako Sarea

#### ENPRESENTZAKO EUROPAKO SAREA: AHOLKULARITZA ETA AUKERAK ENPRESENTZAT

Enpresen Europako Sareak konponbide zehatzak eta eraginkorrak eskaintzen dizkie 40 herrialdetik gorako ekintzaileei eta konpainiei. Enpresen Europako Sareak informazioa emango dizu, esate baterako, beste herrialde bateko bazkide bat bilatzen ari bazara eskaintza batean parte hartzeko, edo ez baduzu ulertzen Europar Batasuneko arau berri batek zure enpresaren jardueran nola eragin dezakeen, edo ez badakizu non eta nola bilatu informazioa zure hizkuntzan beste Estatu kide batzuetako negozio-aukerei buruz.

#### ENPRESEI LAGUNTZEKO EUROPAKO SAREA

http://een.ec.europa.eu/

#### SAREAK EUSKADIN DITUEN TOKIKO KONTAKTUAK

**BEAZ, S.A.**
Sabino Arana, 8. 48013 Bilbao
Tel: 944395622
Faxa: 944 278005
Email: agencia.innovacion@bizkaia.net
Web: http://beaz.bizkaia.net

**Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera**
Rekalde zumarkalea, 50, 48008 Bilbao
Tel: 94 4706500
Email: eenbasque@camarabilbao.com
Web: www.camarabilbao.com

**Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera**
Eduardo Dato, 38- 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 150190
Faxa: 945 141623
E-mail: sbarrueco@camaradealava.com
www.camaradealava.com

**Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI)**
Urkixo zumarkalea, 36-4.º. 48011 Bilbao
Tel.: 944 037000
Faxa: 944 037022
E-mail: jgabilondo@spri.es
www.spri.es

**Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera**
Tolosa hiribidea, 75. 20018 Donostia-San Sebastian
Tel.: 943 000300
Faxa: 943 000275
E-mail: aanguiozar@camaragipuzkoa.com
http://www.camaragipuzkoa.com

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco